

ZU HEMEN ZAUDE goiena



Hamargarrena ate joka

Martxoaren 29tik 31ra bitartean egingo dute Huhezinema jaialdia Mondragon Unibertsitatean / 40

Huhezinemaren aurtengo edizioko ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak, astelhehenean, fakultate aurrean.

IMANOL BELOKI

Igoera luzeena, domekan

Ziklistek 125 kilometroko lasterketa izango dute aurten Goriako hitzorduan, iaz baino 15 kilometro gehiago / 38


Elgetako biktimak omenduko dituzte Intxortako fronteko errekreazioaren ostean / 4

Aretxabaletako Ibarra kiroldegiak %91,4ko autofinantzaketa lortu du, 2.769 abonaturekin / 15

puntuak
Itsasoa lan egiten duten debagoiendarrak
Chrisallis elkarteko Bea Sever kideari elkarrizketa

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



UDALEKUAK 2017 / 21

SINADURAK

ENEIDA ITURBE / 8	ALAZNE GURIDI / 31
HORAZIO ARGARATE / 10	SAIOA GARITANO / 35
ANDONI ELEJALDE / 19	MIKEL IRIZAR / 48



Lore eskaintza, iaz, Elgetako biktime zibilei eskainitako oroitarrian. IMANOL SORIANO

Aurtengo omenaldia Elgetako errepresaliatuei

Intxortako frontearen errekreazioaren osteko omenaldian herriko biktimek izango dituzte, aurtun, gogoan. Borrokaldien 80. urteurrenean, bertakoek bizi eta galdu izandakoari erreparatuko diote 'Inpunitateari tolerantziarik ez!' aldarrikatzeko

Larraitx Zeberio ELGETA

Apirilaren 23rako iragarri dute Elgetan Intxortako fronteko borrokaldien errekreazioa, eta lau eguneko egitaraua aurkeztu dute. Hainbat erakundek hartzen du parte antolaketan; bereziki, Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak.

Antolatzaileek jakinarazi dute Elgetako biktimek omenduko dituztela, aurtun, errekreazio osteko ekitaldian. Errekreazioa 11:30ean izango da lubakien gunean eta omenaldia 13:00etan Udal Pilotalekuan. Udalak, oraingoz, herriko 25 bat biktimearen berri dauka. "Frankismoaren krimenen aurkako auzian keirelari gisa aurkezteko zabaldu-tako testigantzen bulegoan kasu gehiagoren berri izan dugu, eta ikertzen jarraitzen dugu", adierazi du Iraitx Lazkano alkateak. "Erraza izango da kasu batzuek ihes egitea, baina horretan ari gara". Gizonak zein emakumeak omenduko dituzte, eta biktime zibilak zein frontean hildakoak.

"Ekitaldia dimentsio handia hartzen ari da herritik kanpora, eta 80. urteurrena den honetan herriari eman nahi diogu protagonismoa", esan du Lazkanok.

Lau eguneko egitaraua

Eguenean hasiko dituzte urteurreneko ekintzak Elgetan. Hasteko eta behin, herriaren dagoen materialarekin Elgoibarren egindako *Memoriaren ganbaratik* ikus-entzunezkoa emango dute, apirilaren 20an.

Barikuan, apirilak 21, Robert Egby eta Nicholas Rankin idazleek hitzaldia egingo dute Elgetan. "Lanketa egin dute 36ko gerraren inguruan eta zenbait eleberri dituzte idatziak gaiaren inguruan", esan du Lazkanok.

**ERREKREAZIORAKO
BOLUNTARIOAK
BEHAR DITUZTE;
UDALETXEAN EMATEN
DITUZTE ARGIBIDEAK**

Omenaldiaren bezperan ez da aurtun kontzerturik izango; bai, ordea, urteroko elektrotzaranga eta 43°13'44"N izeneko antzezlanaren bi emanaldi. Olatz Gorrotxategi bilbotarrak zuzendutako formatu txikiko antzezlanak da. Frankismo garaian desagertu eta etxera inoiz itzuli ez diren pertsonen bilaketa du ardatz.

Omenaldi eguneko ekintzak 10:00etan hasiko dira, ongietorriarekin eta hamarretakoarekin. Iaz bezala, orain dela 80 urteko Elgeta irudikatzen lagunduko duten eszenaratze bereziak egingo dituzte Intxorta 1937 kultur elkarteak kideek. 11:30eko errekreazioaren ostean, martxa egingo dute Elgetara, *Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez* lelopean, eta 13:00etan izango da omenaldi ekitaldia. Jarraian, herri bazkaria dago iragarrita.

Antolatzaileek jakinarazi dute boluntarioak behar direla errekreaziorako. Ehun bat lagun behar dituzte, eta beste hogeitau bestelako lanetarako.

Iban Gonzalezen 'Ama nora goaz?' dokumentala gertu

Frankismoaren biktime izandako emakumeendako Foru Aldundiak egingo duen aitortza ekitaldian emango dute

L.Z. DEBAGOIENA

Donostiako foru jauregian omen-dukotitu Aldundiak frankismoaren biktime izandako emakumeak, hilaren 29an. Aitortza ekitaldi horretan emango dute Iban Gonzalezen *Ama nora goaz?* dokumentala. Aldundiak babes-tutako ekoizpena da eta 1937ko neguan frankistek Gipuzkoako hainbat herritatik bortxaz kanporatutako emakumeen historia jasotzen du. Gaur egun, 80 eta 93 urte bitartean dituzte emakumeen testigantzak jasotzen dituzte dokumentalak. "Gerra eta gerra ondorengo bizipenak atzo balira bezala gogoratzen dituzte", adierazi du Gonzalezek. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ere aurkeztuko dute lana. "Edozein giza eskubideren zapalkuntzaren aurrean bezala pertsona horiek bizi izandakoek egia, justizia eta erreparazioa behar dute.

Baina baita erakundeen eta herritarren aitortza ere", esan du Bizikidetza eta Giza Eskubideetako foru zuzendari Maribel Vaquerok.

Emakumeen bizipena ikusarazi Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia da aurrerantzean ikusgarritasun handiagoa ematea gerran eta gerra ostean emakumeek bizi izandakoei. "Bigarren planoan geratu izan gara beti eta memoriaren arloko elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean ekintza positiboak proposatzen ditugu emakumeek garai hartan bete zuten papera ikusarazteko", azaldu du Vaquerok.

Nabarmendu du 1936ko altxamenduaren osteko egunetan 750 pertsona inguru kanporatu zituztela Gipuzkoako hamalau herritatik, gehienak emakumeak eta umeak.

Maiatzera arte Donostian da 'Emeek emana' erakusketa

Intxorta 1937 kultur elkarteak bultzatu du Mauro Saraviaren argazkiekin eta Aldundiaren laguntzarekin

L.Z. DEBAGOIENA

Atzo ezkerreko ikusgai da Aieteko bakearen eta giza eskubideen etxean *Emeek emana* erakusketa. Diktadura frankistaren urteetan hainbat emakume bizi izandakoak jasotzen dira bertan, Mauro Saraviaren argazkien eta Intxorta 1937 kultur elkarteak bideoz jasotako testigantzen bitartez. "Ez ziren bakarrik biktime izan", azpimarratu du aurkezpen ekitaldian Intxorta 1937 kultur elkarteak Julia Mongek. "Erresistenteak eta eragile aktiboak ere izan ziren. Hurrengo belaunaldiek jakin behar dute".

Erakusketa maiatzaren 7ra arte egingo da ikusgai Donostian, eta, ondoren, lurraldean barrena ibiliko da herriz herri. Irailean izango da Oñatin, eta urrian Arrasaten. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako ekimena da honakoa, eta, asteen



Elixabete Galarza erretratua. M. SARAVIA

Donostian egindako aurkezpen ekitaldian Bizikidetza eta Giza Eskubideen zuzendari Maribel Vaquerok eskertu egin du emakumei dagozkien gertakariak ikusarazteko memoria arloko elkarteek eta erakundeek egindako lana.

Baratzezaintza terapia moduan, Aita Mennin

Nekazaritza ekologikoan oinarritutako mintegia eta berotegia egokitu dituzte Arrasateko Aita Menni ospitalean, gaixotasun mentala duten pazienteei gizarteratzen eta laneratzeko laguntzeko; asteon inauguratu dute, erakundeetako ordezkariak bertaratuta

Ane Vitoria ARRASATE

Ereiaro izenarekin bataiatu dute gaixotasun mentala duten pazienteei begira Ahizpa Ospitalariak Aita Menni ospitalean abiarazi duten errehabilitazio prozesu berritzailea.

Nekazaritza ekologikoan oinarritutako mintegi eta berotegi bana egokitu dute ospitalearen lorategian –Arrasateko Gesalibar auzoan– eta hango pazienteek entrenatzeko eta prestatzeko gunea izango dute bertan, "pazienteek terapeutikoki aurrera egin dezaten eta, aldi berean, trebetasun sozial eta profesionalak garatu ditzaten, komunitatera itzuli ahal izateko".

Erein, eta saldu

Hori ahalbidetzeko, ortu bati edo nekazaritza jarduera bati dagokion produkzio prozesu osoan parte hartuko dute Aita Menniko pazienteek: haziak ereitetik produktua salgai jartzen denera arte: hazitegi ekologikoko haziak manipulatu dituzte, erein eta landu; hazitegi ekologikoa lortzeko eta ereiteteo teknikak garatuko dituzte, eta hainbat substratu, konpost eta ongarri sortu. Eta horrekin batera, pazienteek landare aromatikoak eta loreak ereiten eta lantzen ikasiko dute.

Prozesua borobiltzeko, gune komertzial bat ere prestatu dute, pazienteek euren produktuak komertzializatu ahal izateko, eta, besteak beste, erosle posibleekin harremanetan jartzen ikas dezaten. Edozein modutan, aukera izango dute ortu ekologikoetan produzitutakoa tokiko azoketan saltzeko.

Inaugurazioa, martitzenean

Asteon inauguratu dute ekimen berritzaile hori; martitzenean, hain justu. Eta ekitaldian izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako sailburu Beatriz Artolazabal,



Erakundeetako ordezkariak mintegi eta berotegiaren inaugurazioan. ANE VITORIA

PAZIENTEEK LANTZEN DITUZTEN PRODUKTUAK EUREK KOMERTZIALIZATUKO DITUZTE

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatu Maite Peña, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eta Aita Menni Ospitaleko Mikel Tellaetxe zuzendaria eta bertako zuzendaritzako beste hainbat kide, langile zein paziente.

Uberatik Gesalibarrera

Haiekin batera izan ziren, baita ere, Ekoudalatx enpresako arduradunak. Izan ere, Uberako mintegi ekologiko horrek barazki, landare aromatiko, sukaldaritzako landare, lore eta fruitu txikiko landare ekologikoak ekoizten ditu, eta Aita Menniri aholkua eta laguntza eman dio nekazaritzan oinarritutako terapia berritzailea garatu eta martxan jartzeko.

Aita Mennitik azpimarratu duten moduan, Ekoudalatx proiektuaren parte funtsezkoa

da, terapeutak aholkatu eta prestatzen baititu jarduera egoki garatu dezaten, eta, gainera, mintegia eta biltegia ere enpresa berak instalatu ditu.

Sei tailer okupazional

Arrasaten dagoen Aita Menni ospitaleak 118 urte daramatza gaixotasun mentala duten pertsonak tratatzen, eta haien gaitasunak garatzen ahalegintzen da, osatzeko eta, ahal den kasuetan, pertsona horiek gizarteratzeko. Horretarako, besteak beste, terapia errehabilitazioko programak garatu dituzte eta haien baitan dauden sei okupazio-tailerretan parte hartzen dute ospitaleko pazienteek: 2014an, esaterako, baratzezaintza erabiltzen hasi zen bere tailer horietako batean, eta, ildo beretik, beste urrats bat egin du inauguratu berri den Ereiaro ekimenarekin. Horrez gainera, birziklatzea, lorezaintza eta garbiketa oinarri duen beste tailer bat ere badute; industria tailerra, Arrasateko Aga eta Bergarako Eder enpresekin lanikidetzan; ehungintza tailerra; papera birziklatzeko tailerra eta zapitxoz egindako lanen tailerra.

Errauskailuaren kontrako manifestaziorako dei egin dute

Bihar, zapatua, Donostian egingo duten protestan parte hartzera deitu du Debagoiena Eredu plataformak

U.M. DEBAGOIENA

Autobusak antolatu ditu Debagoiena Eredu plataformak eskualdetik Donostiara joateko bihar, zapatua, egingo den manifestaziorako –izena ohiko tokietan eman behar da–. Hain justu, 17:00etan abiatuko da Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatutako protesta ekimena, Anoetatik, *Erraustegirik ez! Alternatiba dagoelako* leloarekin. "Debagoienean posible dela eta alternatiba dagoela erakutsi dugulako, Gipuzkoan egin nahi den errauskailuaren aurkako manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu Debagoieneko herritarro", dio Debagoiena Eredu plataformak.

Bilketa selektiboa

"Hondakinak nahastuz, zaborra sortzen da. Hondakinak berezita kudeatuz gero, hauek baliabide bilakatzen dira. Arazoa zaborra da, ez hainbeste hondakinak. Beraz, gizarterako beste hainbat arlotan bezala 'prebentzioa' gizakiaren ongizaterako 'klabea' den moduan, hondakinen kudeaketan ere 'prebentzioa' martxan jartzea

beharrezko neurria da. Neurria, kasu honetan, erraza da benetan: hondakinak selektiboki biltzea", aldarrikatu du Debagoiena Eredu plataformaren izenean Josu Peredak.

"Egingarria delako"

Aldarrikapen hori indartzeko eskualdeko datuak ekarri ditu gogora plataformako kideak: "Debagoienean erakutsi dugu praktikarekin posible dela prebentzioa martxan jartzea, horrela zaborra ahal den eta gutxien sortzeko –Debagoienean bilketa selektiboa %80koa da, urtean soilik 5.000 tona zabor sortuz; beste eskualde batzuetan, ordea, %40koa da–. Gaur egun 170.000 tona zabor sortzen dira Gipuzkoan urtean. Herri guztiek Debagoienak bezala bilketa selektibo eraginkorrak martxan balituzte 50.000 tonara jaitsiko litzateke. (...) Irtenbidea ez da, beraz, errauskailua, nahitaezko bilketa selektibo eraginkorrak herri guztietan ezartzea baizik. Eta geratzen den zabor zatikiari (50.000 tona inguru) errausketa ez den tratamendu merke eta osasuntsuagoa ematea", gaineratu du Peredak.

Euskararen erabilerari bultzada, aisialdia baliatuta

Debagoieneko Mintzalagun taldeek Atxorrotxera irteera egingo dute etzi, domeka. 10:30ean. Eskoriatzako Euskaldun Berrien plazan elkartu eta 11:00etan Atxorrotxerako bidea hartuko dute. Behin goian, bertako gazteluaren indusketaren gaineko bisita gidatua izango dute, Ibarraundi museoko Arrate Landa irakaslearen eskutik. Goiz-pasa luntxarekin borobilduko dute. "Eguraldiaren arabera izango da. Laguntzen badu, luntxa Atxorrotxen egingo dugu. Hala ez bada, mendi buelta ahalik eta bizkorren egin, eta luntxa Eskoriatzako kontzejupean egingo da", esplikatu du Asier de la Florrek, Berbalagun egitasmoko arduradunak.

"Enpresen premia berriei" erantzuten dien eskaintza

4.0 industria sortzea; talentua erakarri, atxiki eta garatzea; osasun-arloko ingeniariak; eta ikus-entzunezko industriaren berrikuntza. Horiek dira, besteak beste, Mondragon Unibertsitateak hurrengo urtetik aurrera garatuko dituen profilak. Hain zuzen, eskaintza akademiko "berritzailea" iragarri du eskualdeko unibertsitateak. Besteak beste, Mekatronikako Ingeniaritza Gradua, Teknologia Biomedikoetako Masterra eta Industria Ingeniaritzako Masterra, Industria Elektronikaren espezialitatean. Hirurak ere Eskola Politeknikoan; edo Talentuaren Kudeaketa Masterra, hori Enpresagintza Fakultatean, Oñatin.

Autobide elektrikoaren 23 dorre Debagoiengan

Elgetako, Bergarako eta Antzuolako lurak hartuko ditu Red Electrica de Españaren goi-tentsioko lerroak. Proiektuaren beharrezkotasunik eza defendatu du EH Bilduk. Ingurumenaren eta osasunaren gaineko eragin kaltegarriak ere azpimarratu ditu

Larraitz Zeberio BERGARA

Gueñes eta Itsaso artean Red Electrica de Españak eraiki gura duen goi-tentsioko sare berriaren inguruko hitzaldia egin zuten, astelehenean, EH Bilduko Mikel Oterok eta Dani Maeztuk, Bergaran. Hainbat urtez gelditu egon ostean, Red Electrica de Españak jakinarazi du gertu dagoela egitasmoa-ri berrekiteko. Udalek jaso dituzte proiektuaren inguruko txostenak, eta atzo amaitu zen partikularrek helegiteak aurkezteko epea. Denbora luzexea goa izango dute epearen luza-pena eskatu duten udalek.

400.000 voltoko lerroa

Tentsio lerro bikoitza da aurreikusten dena, joan-etorrikoa, eta 400.000 volt garraiatuko dituena. Debagoienari dagokionean Elgetako, Bergarako eta Antzuolako lurak hartuko ditu, eta 29 dorre daude aurreikusita; zazpi Elgetan, hamahiru Bergaran eta bederatzi Antzuolan. EH Bilduko ordezkariak emandako datuen arabera, hogeit hamar urteko eraikin baten garaierakoak izango dira dorre horiek.

Beste hainbat datu eman zituzten Oterok eta Maeztuk Bergaran egindako aurkezpenaren, eta argi dute autobide elektriko hori ez dela beharrezkoa. Esate baterako, azken urteotako kontsumo elektrikoaren bilakaeraren inguruko datuak eman zituzten. "Euskal Herrian energia elektrikoaren kontsumoa %21 jaitsi da azken urteetan. Beraz, lerro berri bat eraikitzea justifikatuko lukeen balizko kontsumo hori ez da existitzen. Ez dago justifikatua", adierazi zuen Mikel Oterok.

Proiektuaren beharrezkotasunik ezari gehitzen zaizkio EH Bilduren uztez ingurumenaren zein osasunaren gaineko eragin kaltegarriak. Osasunarekin lotuta eremu elektromagnetikoan



Mikel Otero eta Dani Maeztu, astelehenean, hitzaldia egiten. L.Z.

OSASUNAREKIN ETA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ERAGIN KALTEGARRIAK ERE SALATU DITUZTE

eragina azpimarratu zuen Maeztuk eta ingurumen arloan goi-tentsioko lerro berriaren trazadurak Bergaran babestu beharrek gune natural moduan izendatuta dagoen Irukurutzeta-Sorus-Itxumendi-Gorla-Trekutz eremuan eragiten duela esan zuen. "Inguru horretatik pasako da autobide elektrikoak".

Proiektuaren gauzatzean hainbat irregulartasun izan direla azaldu zuen Maeztuk, eta azpimarratu zuen oraingoz ez dela proiektuaren inguruko behin betiko baimenik argitaratu. "Bere garaian apustu bat egin zen argindarra ekoizteko ahalmen konkretu bat edukitzeko, eta aurreikuspen horiek behar erre-laren oso gaintetik egin zituzten. Orain megawatt horiek mugitu egin behar dira, eta saldu egin behar dira. Kasu honetan, Frantziarekin egin nahi duten kone-

xio honen bitartez", azaldu zuen. "Uste dut akats asko izan direla prozedura administratiboan eta proiektu osoa badela zalantzan jartzeko modukoa". Maeztuk helegiteak aurkeztera gonbidatu zituen lur-jabeak zein udalak. Hain zuzen ere, EH Bilduk prestatutako helegite eredu orokorrak banatu zituzten asteleheneko ekitaldiaren amaieran. "Proiektuaren justifikazioa da, besteak beste, helegite horretan zalantzan jartzen duguna", azaldu zuen. "Pentsatzen dugu bultzatzaileen asmoa dela prozedura administratibo guztia 2017. urte bukararako amaitzea eta argitaratzea behin betirako baimenen bat. Pentsatzekoa da hortik aurrera hasiko dira desjabetzeekin".

Lanen hasiera 2018rako

Red Electrica de Españaren komunikazio arduradunek adierazi dute urte amaierarako aurreikusten dituztela exekuzio proiektuaren onespina eta onura publikoko aitortpena. Hurrengo urte hasieran abiarazi gura dituzte lanak, eta bi urteko iraupena aurreikusten dute. Zerbitzua martxan jartzeko baimena, berriz, 2020rako espero dute.

Banda zabal ultra azkarra 2.500 biztanletik beherako herriendako

Programa babestuaren berri emanez Gipuzkoako Foru Aldundiaren deia jasoko dute egunotan onuradunek

L.Z. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde osora bultzatu eta bizkortu nahi du banda zabal ultra azkarra. Hala, jakinarazi dute martxan dela 2.500 biztanletik beherako herriendako egokitu-tako programa berezia. Foru arduradunen esanetan, ekimenak lurraldeko 49 herri txikiri eragingo die, eta tartean dira Leintz Gatzaga, Elgeta eta Antzuola. Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok azaldu duenez, herri txikietako mila unitate higiezin baino gehiagok aukera izango dute konexio ultra azkarrak instalatzeko, eta ez dute ezer ordaindu beharko. "Deialdiaren bitartez Aldundiak inbertsioaren %95 ordainduko du eta gainerakoa operatzaileen esku gertuko da". Programa *Landagipuzkoa+* plan estrategikoaren baitan kokatzen dute, eta hiru

fasetan egingo dute. Lehen faserako Aldundiak 1.480.000 euroko inbertsioa egingo du, eta irekitako laguntza ildoan izango da herrigunetik 500 metro baino gertuago daude eraikinetarako eta ustiatagietarako. Bigarren fasean kilometro bat baino gertuago dauden txanda izango da, eta hirugarrenean bi kilometrorra daudenena. "Aurreikuspena da 2019an Gipuzkoa izatea digitalki herri txiki konektatuenak dituen Europako lurraldea", esan du Olanok.

Martitzenean zabaldu zuen lehen faseko deialdia Aldundiak, eta lehenengo urratsa izango da onuradunekin harremanetan jartzea programa babestu horren berri emateko. Ondoren, operadoreen txanda izango da. Onuradunei galdetuko diete interesa duten horrelako konexio azkarra ipintzeko.



ANTZUOLAKO UDALA

Elkartasunak argindarra Gazara

Light for Gaza beaifeirste ekimeneko kide Phil Mc Cullough eta Ann Marie Boyle gurean izan dira. Antzuolatik eta Arrasatetik jasotako laguntzari esker, Gazan errefuxiatutako 300 familia palestinarren etxeetan behin baino gehiagotan karga daitezkeen argiteria-sistemak dituztela jakinarazi dute.

Eskerrik asko**KONTXI UMEREZ**

BERGARA

Jesus Mari
Elkoroberezibarren familiak eskerrak eman nahi dizkie neurologia minusbaliotasuna duten pertsonentzako Aita Mennik Arrasaten duen Eguneke Zentroko langile eta kideei, urte hauetan berekin izan duten adeitasun eta maitasunagatik.
Elena eta Fran, eskerrik asko denagatik.

Eskerrik asko, Iker**LOURDES IDOIAGA**

OÑATIKO EAJ-PNV-KO UDAL TALDEA OÑATI

Lehenik eta behin, Oñatiko EAJ-PNVk doluminak helarazi nahi dizkie egun hauetan utzi gaituen Iker Jausoro Murgiondoren senitartekoei: ama Kontxita, anaia Ibon, emazte Olatz, Eneko eta Julen semeei, baita haren gertuko lagunei ere.
Halaber, EAJ-PNVtik, lerro hauen bidez, gure alderdikidea, 1995-1999 artean EAJko hautagaia eta 1999-2003 artean Oñatiko EAJren Udal Gobernu kide ere izan zena, oroitu nahi genuke, baita Oñati hobe baten alde berak egindako ekarpena eta lana gogora ekarri ere.
Gaztetatik izan zen Iker alderdikide eta gaztetatik egin zuen lan, beraz, Oñatiren eta oñatiarren alde. Euskara eta Hezkuntzako batzordeburua izan zen 1999-2003 artean EAJk gidatu

zuen Udal Gobernuan. Bere zuzendaritzapean jarri zen martxan lehen aldiz Oñatiko ikastetxeei diru laguntzak emateko ordenantza eta berak bultzatuta kontratatu zen hezkuntza arloa kudeatzeko lehen udal teknikaria.

Era berean, aisialdi eta kiroleko begiraleei euskaraz jakitea oinarritzko baldintza gisa ezartzea lortu zuen eta etorkinen Bertakotze Programaren oinarriak finkatu zituen. Gaur egun, guztiek jarraitzen dute oraindik indarrean.

Horrez gain, Ogasuna, Kirola eta Gaztedia batzordeko kide izan zen Iker.

Gaztelekuko kontseiluan parte hartu zuen eta bera kide zen garaian osatu zen arlo honetako lehen parte-hartze kontseilua.

Horrenbestez, EAEn Oñatiko eredu, Ikerrek EAJko kide gisa landutakoa, hain zuzen, izan da parte-hartze horren aitzindaria.

Gainera, Ur-Jauziak eta Oñatiko Etxegintza udal enpresa publikoen kontseilukide gisa ere aritu zen lanean.

Kargu horien guztien bitartez Ikerrek beti egin zuen Oñatiren eta oñatiarren interesen alde lan eta ezinbestekoa izan zaigu bere ekarpena aitortu eta eskerrak ematea.

Herri honen alde egin duzun guztiagatik.

Eskerrik asko, Iker.

Gipuzkoan errauskailurik ez delako behar**JOSU PEREDA**

'DEBAGOIENA EREDU' PLATAFORMA DEBAGOIENA

Guztion artean eraiki dugun gizarte-modelo honetan hondakina ez sortzea ezinezkoa dela ukaezina da. Ahaleginak egin behar ditugu, ordea, denboran biziraun gura badugu, behintzat -espezie eta planeta gisa-, sortzen den hondakin kopurua ahal den eta murrizten izan dadin.

Hondakinak nahastuz, zaborra sortzen da. Hondakinak berezita kudeatuz gero, hauek baliabide bilakatzen dira.

Arazoa zaborra da, ez hainbeste hondakinak. Beraz, gizarteko beste hainbat arlotan bezala "prebentzioa" gizakiaren ongizaterako "klabea" den moduan, hondakinen kudeaketan ere "prebentzioa" martxan jartzea beharrezko neurria da. Neurria, kasu honetan, erraza da benetan: "Hondakinak selektiboki biltzea".

Debagoiengan erakutsi dugu praktikarekin posible dela prebentzioa martxan jartzea, horrela, zaborra ahal den eta gutxien sortzeko -Debagoiengan bilketa selektiboa %80koa da, urtean soilik 5.000 tona zabor sortuz; beste eskualde batzuetan, ordea, %40koa da-. Gaur egun, urtean 170.000 tona zabor sortzen dira Gipuzkoan.

Herri guztiek Debagoienak bezala bilketa selektibo eraginkorrek martxan balituzte, 50.000 tonara jaitsiko litzateke. Bultzatu ditzatela administrazio guztiek bilketa selektibo eraginkorrek, Debagoiengan erakutsi dugun bezala, egingarria delako.

Eta, esan den bezala, egingarria denez, errauskailurik ez dugu behar. Prebentzio neurriak hartuz gero, zaborraren sorrera izugarri murriztea posible delako. Irtenbidea ez da, beraz, errauskailua, nahitaezko bilketa selektibo eraginkorrek herri guztietan ezartzea baizik. Eta geratzen den zabor zatikiari -50.000 tona inguru- errausketa ez den tratamendu merke eta osasuntsuagoa bat ematea.

Horregatik, Debagoiengan posible dela eta alternatiba dagoela erakutsi dugulako, Gipuzkoan egin nahi den errauskailuaren aurkako manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu Debagoieneko herritarrei Debagoiena Eredu plataformatik.

Manifestazioa Donostian martxoaren 25an arratsaldeko 5etan hasiko da Anoetatik. Debagoienetik joateko autobusa antolatu da. Izen ematea ohiko tokietan.

'Flojito'**ANGEL ERRO**

HTTPS://LABUR.EUS/WWUYG

Ez dut asteartero *Ur Handitan* saioa ikusten, baina

bai leitzen sare sozialetan emanaldiari buruzko iruzkin piloa, ohetik, eta batzuetan hurrengo egunean bilatzen dut *online*. Herenegun, kontrakoa: Twitterreko mezu faltak edo mezuen hoztasunak zuzenean ikustera bultzatu ninduen.

@desplazatua-k gaiari egotzi zion: ligatzeko eta sexua biltzeko baliabide (zahar eta) berriez aritzeak produkzioa zaildu eta "Txiolandian ere jardun gutxixeago" zekarrela.

@zuribostnerisei-k baieztatu: "Twitter diferentziaz mutuago dago aurreko astearteak konparatuta".

@EtorManterola-k "Gaur Twitter flojito... Zergatik ote?". Baten batek "aurrekoak bezain interesgarria" ez izateari egotzen zion. Beste batek aurrekoak bezalako "gai serio eta hunkigarria" ez izateari. Ez nago ados.

Euskal idazle handi bat *cruising*-az hizketan agertzeak ez zuen sarea sutan jarri. *¿Qué os pasa a los vascos?*, Eugenia lagun madrildarrak beti galdetu bezala.

Inork ez zuen Juanjo Olasagarre izenez aipatu, maltzur aritzeko bazen ere. Pentsaezina erdal idazle bat erdal telebistan agertu balitz.

Irudipena dut euskaldungoak bere burua (bere unibertsoa) gehiegi mugatzen duela, zorrotz zedarrituta zein gai diren guretzako modukoak eta zeintzuk guretzako flojitoegiak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzizutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBINE UBEDA**



ZABALIK

ENEIDA ITURBE

'Iruzurtiaren sindromea'

Duela gutxi, ezagutzen dudana emakume kazetari bat irratira joan zen bere proiektua aurkeztera.

Elkarrizketa bukatuta, ondorengo debatean geratzera gonbidatu zuten. Gogo handirik gabe, baina baiezkoa eman zuten.

Zergatik gogo falta hori? Solaskide egunero tertuliano lanetan ari diren zenbait lagun zituelako, gehienak gizonezkoak. Parean jartzen dieten edozein gairi buruz iritzi sendoak dituzten ahoberoak. Egia absolutuen jabe, ez dutenak dudarik egiten eta, gainera, besteak makurraraztea bilatzen dutenak.

Ulertzekoa, beraz, gogo falta. Ulertzekoa, baita, baiezkoa ematea. Beti haiek badira beren iritziak lau haizetara zabaltzen dituztenak, ez daukagulako beste ahots batzuk entzuteko aukerarik.

Elisendak baietz esan zuten, betebeharrak hori sentitu zuelako.

BEREZ EZ DIRELA HAIN ONAK KONBENTZITUTA, JENDEA NOIZ KONTURATUKO OTE DEN ZAIN DAUDE

Kazetaritza beste era batera ulertzen duelako.

Emakumeek komunikabideetan ordezkari handiagoa izan behar dutela sinesten duelako.

Seguruenetik, bere aurretik emakume askok esan dute ezetz. Beren buruagan

konfiantza faltagatik, akaso.

Argitaratu berri den ikerketa batek dio 15 urteko neskek zientzia eta teknologia arloetan beren burua gutxiesten joera dutela, mutilek beren maila benetan dena baino hobia dela uste duten bitartean. Estereotipoengatik eta aurreiritziengatik omen da. Baita arlo horietan eredu hartzeko emakume gutxi ezagutzen ditugulako.

Norberagan konfiantza falta hori nerabazarotik harago ailegatzen da. Ospe handiko zenbait emakumek onartu dute iruzurtiaren sindromea daukatela. Hau da, uste dute beren lorpenak zorzea lagun izan dutelako eskuratu dituztela. Eurak berez ez direla hain onak konbentzitura, jendea noiz konturatuko ote den zain daude.

Konfiantza falta, alegia.

Ez gaitezen gure buruari jarritako tranparen preso izan. Eman dezagun gure iritzia, gure erara, eta izan gaitezen eredu 15 urteko neska horiendako.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA

MURRZKETAK



Unai Busturia

HANDIK ETA HEMENDIK

Fokuaren atzekoak

JOKIN LABAIEN

HTTPS://LABUR.EUS/1GVDP

Iragarkia, *London Times* agerkarian, 1913ko abenduaren 29an: "Gizonak behar dira bidaia arriskutsu baterako, soldata baxua, muturreko hotza, hilabete luzeak iluntasun erabatekoan. Etengabeko arriskua. Ez da bermatzen bizirik itzultzea. Ospea eta aitortza, arrakasta lortuz gero". Ernest Shackleton esploratzaile famatua buru zutela Antartika oinez zeharkatzea zen helburua. [...]

Nekatu egin nintzen ostegun gauean, sofan etzanda, ETB1eko *Gailurra Xtreme* saioari begira. Otu zitzairen

Basque Ultra Trail Series lasterketa egiten saiatuko zirela. Zer den hori? Erokeria bat, 110 kilometroko erokeria. [...] Abiatu ziren Irati Anda eta Ibon Gaztañazpi aurkezleak, bi laguntzailerekin. Orduak joan ahala, Ibon bakarrik geratzen zen martxan, gainontzekoek lasterketa utzita. Barkatu, inertzia izan da. Kameraren aurrean Ibon bakarrik geratzen zela esan nahi nuen. Izan ere, une batean, kamerari lanak egiten zituzten horiek aurkeztu nahi izan baitzituen berak. Haiei aitortza egiteko modua izan zen. Osperik nahi ez eta halabeharrak kamera aurrean lotsatzera eraman zituen. Onartu zuten beraiek ere egin beharko zituztela

kilometro horiek denak Ibonek helmuga zapaltzeko asmorik bazuen. Bidea egin eta iruditan jaso, gainera. [...]

Ez dut haien arduraduna irudikatzen muturreko lasterketa derrigor egin behar zutela agintzen. Ordea, ematen du itzalean lan egiten duen horien konpromisoaren neurria, telebistan ere hainbeste diren horiena. Ostegunean, osperik eta aitortzarik bilatzen ez duten horien lanaren balioa azaldu zuten, modu xumean. Pozak poz eta minak min, helmugaratzean, pantailan Ibon bera ageri baitzen berriz. Kameralariek, ospakizunak atzeratuz, lanean jarraitzen zuten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Whatsapp iraultza izan da Gaztea irratiarendako"

AINHOA VITORIA GAZTEA IRRATIKO ESATARIA

Mireia Bikuña ARRASATE

1990eko martxoaren 21ean hasi zuen irrati ibilbidea Gaztea irratiak. 27 urte bete ditu asteon. Ainhoa Vitoriak (Arrasate, 1987) zazpi urte darama uhinetan.

Praktiketako kontratu batekin heldu zinen Gazteara, eta, egun, saiorik arrakastatsueneko kide zaitugu.

Gauza asko bizi izan ditut zazpi urtetan. Praktiketari hasita ere, beti egon naiz goizeko ordutegian lanean, *Dida* saioa egiten, eta ez nuke aldatuko. Egia esan, niri ez zait askorik kostatzen goizean jaikitzea. Arratsaldeak libre dauzkat.

27 urte beteta, ospakizunetan diharduzue aste honetan?

Estudioak berriro egin dituzte eta inauguratu egin ditugu. Hori izan da ospakizun bakarra. Saio berezi batzuk ere egin ditugu, baina ezer gutxi. Egunerokotasunean gabiltza buru-belarri.

Bost lagunek egiten duzue *Dida* saioan. Aurten aurpegi berriekin,



Ainhoa Vitoria, kazetari arrasatearra. HUHEZI

baina entzuleen erantzuna bikaina da ordu horretan.

Audientzia datuek emaitza oso onak eman dizkigute, eta asko eskertzen da hori. Entzule fidelak ditugu. Ia egunero komentarioak egiten

dituzten horietakoak. Entzuleekin dugun feedbacka oso ona da eta lantaldea bikaina da. Halako baldintzekin oso gustura egiten da lan, oso goiz jaiki beharra badugu ere.

Sare sozialek asko erraztuko dute entzuleekiko hartu-eman. Duda barik. Ni Gaztean hasi nintzen ez zegoen Whatsappik. Gu hasi ginen goizeko saioan Facebooki eta Twitterri garrantzia ematen. Profila sortzen eta entzuleak animatzen. Guztiak dira inportanteak egun, baina Whatsappena ikusgarria izan da. Iraultza izan da guretzat. Etengabeko hartu-eman izateko aukera ematen du. Une oro entzuleekin kontaktuan egoteko. **Gaztean urte asko daramaten lankideak dituzu. Zer diote irrati kateak izan duen bilakaeraz?**

Hasierako irratsaioetan kantuak ipintzeko erabiltzen zuten moduz berba egiten dutenean, harrituta geratzen naiz. Biniloak, kaseteak...

Egun, klik batean, guztia daukagu eskura: kantuak, publizitatea, promoak, eta abar.

Horrek guztiorrek zuen lana beste maila batera eraman du.

Hala da. Hasieran, irrati esatari hutsak ginen. Kantuari sarrera egin eta musika ipintzen genuen. Orain, promoak grabatu, estudioan gaudenean kamerak erabili, streaming bidez emititu, aktore lan txikiak egin... Arlo asko ukitzen ditugu. Multimediak gara.

HAU BE BADOGU!

#Hazteoir 'trending topic', berriz ere



Poliziak eskolatu eta protesta ugariaren artean ibili zen martitzenean Hazte Oir elkartearen autobus transfobikoa Iruñeko kaleetan barrena. Nafarroako hiriburutik irtetera zihoala, gainera, emakume bat harrapatu zuen autobusak. Gaiak, beste behin, oihartzun zabala izan du sare sozialetan, erabiltzaileek haserrea azaldu dute eta.

Auzokide 'jatorrenak', Eskoriatzan



Arbiñoste kaleko 4. zenbakiko auzokideek irabazi dute Beltran igogailuen enpresak Euskadiko auzo-elkarerik jatorrena zein den jakiteko sare sozialetan antolatutako lehiaketa. Sari moduan, jatekoaz eta edatekoaz gozatu dute eskoriatzar hauek:

@BeltranAscensor:

"Eskoriatzako Arbiñoste kalea 4ko auzokideak, #Euskadi-ko jatorrenak! Zorionak!" (itzulita).

Baionan egingo da ETaren armagabetzea

Baionan, apirilaren 8an, "ETaren armagabetze osoa" gauzatuko dutela baieztatu zuen atzo prentsurrekoan *bakearen artisauek* deituriko taldeak, eta sare sozialetan, baita Espainia eta Frantzia mailan, hizpide izan da gaia. Besteak beste, apirilaren 8rako Baionara joateko eta eurekin bat egiteko dei egin diete herritarrei eta eragile eta erakundeetako ordezkariak.

ITURRI ONETIK

Oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetzaz

Dekalogoak egin dute Oñatiko Udalak, bertako ikastetxeek Txirrinka elkarteak eta herriko beste hainbat eragilek elkarlanean. Bizikletan dabilzanen eta oinez dabilzanen arteko bizikidetzaz bermatzea du helburu, gutxieneko arau batzuk ezarrita. Adibidez, Oñatin oinezkoendako egokitu berri dituzten kaleetan bizikletek libre dute bertatik pasatzea, eta horrek ezinezona eragin du oinezkoen artean. Dekalogoaren bitartez, espazio publiko horien eta bestelakoan erabilera arautu gura dute.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Ezin autoa atera aparkalekutik



Autoendako aparkalekua ordu batzuetan eta jolaserako gune izaten da beste batzuetan Oñatiko Olaiturri plazatxoan. Zapatu gauetan, normalean, zentzuz aparkatzen dituzte ibilgailuak, ondokoari irteteko tokia uzten dioten edo ez begiratuta. Baina ez beti. Argazkian ikusten den moduan, erdian aparkatu zuten horiek ezin izan zuten autoa atera eurek gura zutenean.

Alternatiben Azokaren bigarren edizioa

Kapitalismoaren aurrean alternatiba asko daudela erakutsi nahi dute azoka horretako antolatzaileek, eta, horretarako, hamaika hitzaldi eskainiko dituzte Kulturateko areto nagusian. Gainera, hainbat elkarteren postuekin azoka egingo dute Seber Altuben

Ane Vitoria ARRASATE

Eraldaketa soziala bultzatzea da Alternatiben Azokaren asmo nagusia. Bertan, askotariko erakundeekin hitzaldi zikloa eskainiko dute eta hainbat eta hainbat izango dira horietan landuko diren gaiak. Aurten, ahalik eta esparru gehienetako erakundeak ekarri nahi izan dituzte azokara: kulturako eragileak, ekonomiakoak, hezkuntzakoak, energia berriztagarriekin lotura dutenak, komunikazio alorrekoak, eta abar. Hala ere, Alternatiben Azokaren antolatzaileetako bat den Iraitz Etxabururen esanetan: "Hitzaldi guztiak oso interesgarriak izango dira, baina uste dut jende gehien erakarriko duena Goienerkoek eskainiko dutena izango dela; batez ere, Garoña eta argiaren garestitzea pil-pilean daudelako". Aurtengo beritasuna da kopuru eta alor aldetik aukera zabalagoa lortu dutela, horixe aitortu du Etxa-



Iraitz Etxaburu, azokako antolatzailea, kartelarekin. ANE VITORIA

buruk. Eta, horregatik, oso pozik daudela azpimarratu nahi izan du.

Idazleek ere presentzia dute

Azoka Alternatiboaren ospakizunaz baliatuz, Gipuzkoako lau idazle ere izango dira bihar Seber Altube plazan. Eta bertan, literatura alternatiboa sustatzen

dituzten liburuak aurkeztuko dituzte. Idazle bakoitzak bere lana aurkeztuko du eta aukera bikaina izango da irakurleak hara gerturatzeko, beraiekin hitz egiteko eta sinatutako aleak erosteko. Batetik, David Agirre Unzueta aretxabaletarra izango da, eta hark *Triángulos en la cueva* liburuak aurkeztuko du.

Alternatiben Azokaren egitaraua

- **11:30** Urbisuko Etxea. Produktu ekologikoak.
- **12:00** Goiener. Energia berriztagarrien kooperatiba.
- **12:30** DDT. Banatzaile ez komertziala.
- **13:00** Koop 57 eta Fiare. Banku etikoak
- **16:15** Aritzguren sendabelarrak
- **16:45** Olatukoop. Ekonomia sozial eta eraldatzailea saretzen.
- **17:15** La Gallina Vasca eta Ekintza Zuzena. Unore satirikoa / Aldizkari libertarioa.
- **17:45** MOC. Gastu militarrekiko eragozpen fiskala.
- **17:15** La Gallina Vasca eta Ekintza Zuzena
- **17:45** MOC
- **18:40** Plisti Plasta. Heziketa espazioa naturan.
- **19:10** Desacorde. Idazle rockeroen liburuen edizioa.
- **19:40** Bagara. Autoeraketa komunitarioa eta gizarte eraldaketa.

Idazlearen esanetan: "Liburu honetan altxor baten bilaketan murgiltzeko aukera izango da". Beste aretxabaletar bat ere izango da azokan, Luis Jose Errasti, eta hark *Altruista* liburuak aurkeztuko du. Josune Murgoitio arrasatearrak *Colores prohibidos* eleberria aurkeztuko du bihar. Haren esanetan: "Nobela hau Euskal Herriko biolentzia sozialaren ingurukoa da, baina honetan ez da ETaren inguruko aipurik egiten". Azkenik, Sorluzen bizi den baina izatez argentinarra den Angel Mario Fernandez izango da. Hark *Hijos del Corralito. La guerra del agua* liburuak aurkeztuko du. Fernandez esanetan, liburu horren ildo nagusia alderdi soziala da: "Pobrezia eta marjinalizazioa existitzen dira; ikusgai daude, nahiz eta ez garen horretaz ohartzen".

Ekintza berezia

Bestalde, *Herri euskalduna erakitza goaz!* izenburuarekin ekintza berezia egingo dute Txaxilipurdi, Ekin Emakumeak eta AED elkarteek azokaren ondian. *Zurekin Arrasate Euskaldunago* kanpainaren azken txanpa da. Xedea da ekimenean parte hartzea bultzatzea, eta bazkide berriak lortzea. Herriko zenbait eragilek esku hartuko dute, baina donork izango du ekarpena egiteko aukera. Ekintza bihar 12:30ean izango da, Seber Altube plazan.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE APAIZA

Espainia

Jakina da Arrasaten, Herriko Plazan, urtean behin, mirari bat gertatzen dela. Baina urriaren hasieran denok kajoira begira baldin bagaude, benetako mirakulua egunero gertatzen da plazaren beste aldean; udaletxearen balkoian, alegia. Inguru gertuko eta eremu zabalago batean, Herriko Etxeak begiratu badituzue, hantxe, piper potea, inongo lotsarik gabe, zintzilik ikusiko duzue. Ez dakit zuei, baina niri, holako paisaiak etsipen handia ematen dit. Gurean, aldiz, plazatik harro-harro nabil, umetan Axterix eta Obelixen komikiak irakurtzen nituen bezala; badirudi hemen ere dena galdurik ez dagoela. Nigan dagoen hispanitatearen zatia ukatu gabe, txiletarrak, mexikarrak eta kubatarrak hispanoak diren modura, aske eta jabe, nire burua ere aldarrikatu nahiko nuke. Nortasun agiriak espainola naizela dio, baina bihotzak beste zerbait esaten dit. Asuntu honetan ere, azaltzen dena eta izaera ez datoz bat. Garizuma aldi sartuta gaudela, ez dator gaizki gogoratzea gauza sakratuetatik barre egitea bekatu handia dela eta garbi gelditu da gogor ordaintzen dela

Irakaskuntzaren egoera aldatzeko aldarrikapena

Martxoaren 22an, eguaztena, izandako greba hainbat sindikaturen eta Herri Eskolako zentroen eskutik etorri zen

Ane Vitoria ARRASATE

Astelehenean, Herri Eskolako Kontseiluak aho batez onartu zuen Steilas, LAB eta ELA sindikatuek egindako greba deialdiarekin bat egitea. Horregatik, grebaren presentzia indartu nahian, eta babesa irudikatzen, Herri Eskolako zentroek Arrasateko eskola ezberdinetan kontzentrazioak egin zituzten martitzenean. Eguazteneko grebak egun osoa iraun zuen eta Arrasate Herri Eskolako hiru gunetan izan zuen eragina: Musakolan, Erguinen eta Bedoñaben.



Herri eskolako kontzentrazioa. GOIENA

Hiru sindikatuek eta Herri Eskolak bat egiten dute beraien asmoetan; eta, irakaskuntzaren egoera aldatu guran, hainbat aldarrikapen egin zituzten. Guz-tira, sei izan ziren eginiko aldarrikapenak: lehenik, hezkuntza publikoko lantaldean 2.000 langile gehiago sartzea eskatu zuten. Bestetik, irakasleen ordezkapenak lehen egunetik egiten hastea. Gelen kopuruaren gaineko aldarrikapena ere egin zuten; horien ikasle kopurua %10 murriztea da helburua. %40ko behin-behinekotasuna amaitzea ere dute helburutzat, baita haur eskoletan %6ko murrizketarik ez egitea. Azkenik, hezkuntza bereziko hezitzaileen 2004ko lan hitzarmena berritzea eta lanpostu zerrenda eguneratzea ere aldarrikatu zuten greba horren bitartez.

Kulturola proiektua borobiltzeko eredu bila

Donostiako musika eta dantza eskola, Easo Abesbatza eta Errenneriako Dantzagunea izan ziren ezagututako espazioak. Bisitan egondako udal ordezkari, kultura eragile eta Kulturolako arkitektoek eraberritutako eremu horietatik ikasteko aukera izan zuten

Imanol Gallego ARRASATE

Kulturola eta Aprendices zaharberritzeko proiektuak martxa onean jarraitzen du. Oraingoan, eraberritze horren parte diren elkarte, arkitekto eta udal ordezkariak Donostia eta Errenneriako hainbat kulturgune eta instalazio bisitatu zituzten martitzenean. Zehazki, Donostiako musika eta dantza eskolan, Easo Abesbatza eta Errenneriako Dantzagunean egon ziren.

Ideiak hartzera

Bisitaren helburua espazio horiek ikusi eta eraikinen funtzionamendua gertutik ezagutzea izan zen. Era berean, Arrasate-

ko birgaitze prozesuen antzerako proiektuak bizi izan dituzten horien esperientziak ezagutu ahal izan zituzten, Arrasaten eraikitzen ari den kulturgune berrirako ideiak ezagutzeko eta jasotzeko.

Proiektu estrategikoa

Aprendices eraikinak Musika Eskola eta Goikobalu abesbatza hartuko ditu, besteak beste, eta erlojuaren eraikinean (Kulturola eraikina) herriko kultur elkarteak eta Udal Euskaltegi berria kokatuko dira. Helburua da herri zein bailara mailan garrantzi handia izango duen kultur eremu berria sortzea.



Herriko kultura eragileak Donostiako Easo Abesbatzaren egoitzan. ARRASATEKO UDALA

Aprencides mantentzearen alde

Arrasate Zientzia Elkarteak Aprendices eraikinaren izena mantentzea proposatu du: "Gure herrian beti esan izan da 'Aprenciz eskola', edo 'Aprencizetara goaz'... eta eraikinari izena aldatuz desnaturalizatu egiten da".

Xabier Bengoa Arrasate Zientzia Elkartearen kideak gaineratu du ondarea zaintzeko beharra dagoela: "Guk ondarea babestu nahi dugu, neologismoen bitartez, gure herriko toponimia, memoria... galtzen ari garela uste dugu". Elkarteak bi proposamen aurkeztu dituzte: Aprencizen eskola-musika etxea eta Aprencizak-musika etxea. Euren ustez, proposamen horiek, *aprenciz* hitzak herrian duen esanahia errespetatzeaz gain, beste edozein izenekin ere batera daitezke.

Lehen sektorea gertutik ezagutzeko aukera eguaztenean

Zuztarrak Errotuz elkartearen udaberriko hitzaldi zikloaren bigarren konferentzian, baratzera izango da protagonista. *Bizi baratzera: Garaian garaikoa, garaiz* izenburupean, baserritarra izan gabe ortutik atera daitezkeen onurei buruz jardungo du Jakobak Errekondok. Hitzaldia 19:00etan Kulturateko areto nagusian izango da.

Argitaratu dute aurtengo zerga eta tasen egutegia

Kalean da Udalaren 2017ko egutegi fiskala. Bertan jasotzen dira aurtengo tasa eta zerga guztiak ordaintzeko epeak zeintzuk diren. Herritarren betebeharrak fiskalak zerrendatzeaz gain, astean etxeetan banatu dituzten egutegiak norbanako eta familiek izan ditzaketan hobari zein salbuespenei buruzko informazioa ere ematen du.

EROSKI

ARRASATE

MARTXOAK 25 Bazkideentzat bakarrik
oparituko dizugu

BEZ_a*

DROGERIAN

eta LURRINDEGIAN

(parafarmazia eta haurtxoentzako zaintza barne)

Produktu hauetan **15€-tik gorako erosketetan**

* Kufxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen BEZa EROSKI Club txartelean. Adib. %21eko BEZa daukan 100 -tik gorako erosketak batengatik 17,35 sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean.

- Zuntz sailean dauden haurtzaintzako produktuak ez dira sustapenean sartzen.
- Gainerako baldintzak salmenta-puntuari kontsultatu.



Musakola 11 ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30



Zure **EROSKI club** txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.



"Gure kultura gizarteari azaltzeko premia dugu"

KHALID AKKOUN ANNUR MUSULMANDARREN KOMUNITATEKO PRESIDENTEA
la 30 urte daramatza Debagoienan bizi izaten, eta gaur egun Annur Komunitatearen presidentea da. Gaur inauguratuko dute meskita berria, Uriburu kalean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Debagoienan bizi diren musulmandarren komunitatea gero eta handiagoa da, eta, errealtate horri erantzuteko, gaur zabalduko ditu ateak Uriburu kaleko meskita berriak. Inaugurazioa aitzakia hartuta, euren komunitatearen egoera zein den ezagutzeko elkarrizketatu du GOIENAK ibarreko musulmandar komunitateko presidentea.

Zer dela-eta zabalitzen duzue gaur meskita berria?

Lehen geneukan meskita alokairuan izan dugu lau urtez. Eta, hain zuzen, dirua ondo aprobetxatzeko eta gero eta handiagoa den gure komunitatearen beharrak asetuko dituen lokal handiagoa izateko egin dugu urratsa. Hasieran, Kabia altzari dendako eraikina erosten ahalegindu ginen, baina, garestiegia zenez, Uriburukoaren alde egin genuen.

Meskita berria zenbaten artean erosiko duzue?



Khalid Akkoun, meskita berriaren barrualdean. XABI GOROSTIDI

60 bazkide inguru gara, baina erabiltzaileak 120tik gora izan daitezke. Gehienek ez dute lanik egiten; beraz, bi kuota ezberdin ditugu, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera. Epe luzerako inbertsio bezala ulertzen dugu, etorkizunean gure seme-alabek erabiliko duten gune kultural bat bezala.

Zein erabilera mota ditu meskitak?

Gehienbat, otoitz egiteko erabiltzen dugu. Hori izan daiteke funtzio nagusia, baina tea hartu bitartean hitz egiteko, arabiera ikasteko eta beste edozein ekin-tza antolatzeke ere erabiltzen dugu. Nire bost semeek hemen-txe ikasten dute arabiera, adibidez. Gure kultura lantzeko eta elkarri laguntza emateko leku aproposa da.

Zenbat nazionalitateko jendea babilzen zarete meskitan?

Hainbat herrialdeetako lagunak elkartzen gara. Gehienak Marokokoak, Aljeriakoak, Mauritaniakoak eta Pakistangoak. Hurrenkerak horretan. Baina, horrez gain, Senegaldik eta Malitik etorritako lagunak ere izaten ditugu. Kanean musika eta bestelakoak saltzen aritzen dira, baina tartetxo bat dutenean meskitatik pasatzeko ohitura dute batzuek. Ez dago bazkide izan beharrik barrura sartu eta otoitz egiteko. Sinestuna den ororentzat ditugu ateak zabalik.

Zer-nolako erlazioa daukazue Arrasateko erakundeekin?

Oso ona, egia esan. Hasieratik, gainera. Aurreko agintaldiko alkateari elkartzeko eskaria egin genionean, segituan esan zigun baietz. Komunitate bezala lokal bat edukitzera animatu gaituzte. Behin, gure komunitateko kide bat hil zen Makatzenan, eta gorpua Donostiara eraman zuten, ondoren hileta errituala Gasteizen egin behar izan genuen... eta udaltzain batek esan zigun: "Zergatik ez duzue Arrasaten meskita bat jartzen?"

Integrazioa hitz potoloa da. Baina urratsak falta direla uste duzue?

Nire ustez, ondo integratuta gaude. Egia da komunikabideetan kultura musulmana terrorismoarekin lotzen dela askotan, eta horrek mesfidantza sor dezake. Baina jendeak ondo hartzen gaitu eta ez dut jarrera txarrik

igartzen bertako jendearengan. Hala ere, gure kultura gizarteari hobeto azaltzeko beharra daukagula uste dut. Kultura Etxetik askotan animatu gaituzte horretara. Kanpotik ikusita, emakume bat beloarekin ikustea gogorra izan daiteke, baina gure ohituren zergatiak gizarteari azaltzea positiboa izan daiteke integrazioarako.

Etorrizunera zein asmo duzue?

Gure lokal berriaren alboan beste bat dago salgai. Hura erosi, eta lokal handiagoa izatea gustatuko litzaiguke, besteak beste, emakume musulmanentzako txokoa ere izateko.

Zure kasuan, zer dela-eta etorri zinen Euskal Herrira?

1988an etorri nintzen lehen aldiz. Aita San Antonioko kotoi-lantegian ari zen lanean, Bergaran, baina gaixo jarri zen, eta amak eta biok zaintzeko beharra genuen. Lehen urtean ez nuen lanik egin, baina soldadura ikastaro bat egin eta lanean hasi nintzen galdaragintza enpresa batean. Gaur egun, Oñatin bizi naiz, eta euskaraz egiten duten bost seme-alaba ditut. Autonomo ari naiz lanean, soldadura eta galdaragintza lanak egiten.

"OTOITZ EGITEAZ GAIN GURE KULTURA LANDU ETA ELKARRI LAGUNTZEKO LEKUA DA MESKITA"

Aniztasuna, arrazakeriaren aurkako sendagai onena

Ipuin kontaketa, elkarretaratzea eta ekintza koloretsua egin ziren martitzenean, Arrazakeriaren Aurkako Egunean

X.G. ARRASATE

Arrasateko Udala eta Ekin Emakumeak, Elkar Hezitzen eta IMME Emakume Musulmandarren elkarrekin Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean baitako ekintza jendetsua egin zuten martitzenean, Herriko Plazan.

Aniztasunaren aldeko mezua irakurri ostean, umeendako hiru ipuin kontatu zituzten udaletxe azpiko arkupean. Lehena Dorleta Kortazarrek kontatu zuen, bigarrena Lander Juaristik eta hirugarrena urdu hizkuntzan

kontatu zuen herriko emakume batek; haren alaba gaztetxoak euskarara itzuli zuen.

Ekintza kolektibo deigarria

Horren ostean, Herriko Plazaren erdigunean kokatuta zegoen kubora gerturatu ziren guztiak, eta umeek kuboaren kanpoko alde apurto eta barruan zegoen sekretua zein zen ikusteko aukera izan zuten.

Bertan, lehiaketa bidez aukeratutako aurtengo egunerako lelo irabazlea zegoen idatzita: *Bost kontinente, milaka kultura,*



Haurrak, Herriko Plazako kutxa misteriotsua zabaldu aurretik. AMAIA TXINTXURRETA

zero muga. Arizmendi Ikastola-k Jone Axpek egindako leloa hamabi hizkuntzatarara itzuli zuten, eta kuboaren barrualdean hizkuntza bakoitzean egindako panel bat jarri zuten, arrazakeriaren aurka daudela eta elkar-

bizitzaren alde daudela irudikatzeke. "Berdintasunaren alde eta inklusibo izango den gizarte eredu baten alde lanean jarraitu behar dugu", adierazi zuen Arrasateko Aniztasun teknikari Tamara Perezek.

Emausen egoitzan horma-irudi bat egingo dute

Elkartek Musakolan duen egoitzan, pareta bat margotu gabe dagoela baliatuz, aniztasunaren aldeko horma irudi bat egitea erabaki dute Emauseko kideek.

"Lokal barruan hutsune hori ikusita, eta Arrasaten aniztasunaren alde dagoen mugimendua ikusita, herritarrekin elkarlanean horma irudia egiteko prozesu bat jarri nahi dugu martxan", adierazi du Maider Sagedok, Emauseko kideak.

Martxoaren 29an batzarra egingo dute, 18:00etan, Zigorrolako egoitzan, herritarren ideiak eta esaldiak jasotzeko. Horiek batu eta diseinua erabakitzerakoan, murla elkarlanean margotzeko data finkatuko dute.

Xake jokalarari gazteek, maila aparta txapelketan

Joan den domekan, martxoaren 19an, Debagoieneko banakako eskolarteko xake txapelketa jokatu zen. "Partaideek oso maila ona erakutsi zuten eta oso partida politak ikusi ziren", esan du Xake Taldeko arduradun Asier Etxebestek

Ane Vitoria ARRASATE

Aurreko aste bukaeran, Arrasateko Etxaluze eraikinean, Debagoieneko banakako eskolarteko xake txapelketa jokatu zen. Eta, bertan, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Aramaio eta Azpeititik etorritako 32 neska-mutikok parte hartu zuten. Txapelketa hiru kategoriaz ezberdinetan banatuta jokatu zen: infantilak -2003 eta 2004 urte bitartean jaiotako partaideak-, alebinak -2005 eta 2006 bitartean jaiotakoak- eta benjaminak -2007 eta 2008 urte bitartean jaiotako jokalariek-, hain zuzen. Txapelketan, guztira, zortzi partida jokatu ziren eta honako hau izan zen sailkapena: infantil kategorian irabazlea Harri Lasa aretxabaleterra izan zen, bigarrena Osama Maragui azpeitiarra, hirugarren postua Galder Bengoa aretxabaleterrak lortu zuen eta laugarrena Ibai Etxebeste arrasatearrak. Alebin kategorian irabazlea Aitor Gallego arrasatearra izan zen, bigarrena Jurgi Etxebeste oñatiarra, hirugarren postua Eneko Garitano bergararentzat izan zen eta laugarrena Unai Pedrosa oñatiarrak lortu zuen. Azkenik, benjamin kategorian irabazlea Xabier Gallego arrasatearra



Gazteak xake txapelketan. ASIER ETXEBESTE

izan zen eta bigarrena Urtzi Lasa izan zen, kategorian horretako hirugarren postua Ethan Moral arrasatearrak eskuratu zuten eta laugarren postua Nahia Ayerbe arrasatearrarendako izan zen, hain zuzen. Gainera, domekan izandako txapelketa horri esker, infantil eta alebin mailletako lehenengo sailkatuek Gipuzkoako finaleran parte hartu ahal izango dute.

Balorazio positiboa

Txapelketa horretan xake jokalarari gazteek oso ondo jokatu

zutela baieztatu du Arrasate-Arluz Xake Taldeko arduradun Asier Etxebestek: "Partaideek oso maila ona erakutsi zuten eta oso partida politak ikusi ziren txapelketan". Horrez gainera, urduritasun eta emozioz beteriko une askoren testigu izan zela azpimarratu nahi izan du Xake Taldeko arduradunak: "Goiz osoan zehar jokaturako partidak oso zirrargarriak izan ziren. Eta, ikusitakoaren ondoren, garbi geratu da zein da Debagoiengan daukagun harrobiaren kalitatea".w

'Jainko basatia' antzezlanak ikusgai Amaia antzokian

Txalo taldearen azken lana da *Jainko basatia*. Komedia dramatiko horretan, bikote ezkonduak elkartzen dira euren seme-alaben arteko lisakarrak konpondu nahian; izan ere, bikote baten semeak besteari eraso egingo dio. Begoña Bilbao da antzezlanaren zuzendaria eta aktoreak, Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta

Tessa Andonegi dira. Obra horren pertsonaia bakoitzak nortasun berezia eta indartsua dauka. Ane, bakegilea badirudi ere, alkoholarekiko duen tolerantzia eskasaren ondorioz, zorrotz bilakatzen da. Alex, ordea, arrakasta handiko eta eskrupulorik gabeko abokatua da. Xantik izaera xumea du eta Veronikak bere frustrazioa azalaraziko du. Ikuskizuna Amaia Antzokian izango da martxoaren 26an, domekan, 19:30ean. Sarrera 10 euro da.

Franz & Martin bikotea izango da Arrasaten

Artista eta talde ezberdinen bertsio pertsonalak egiten dituen bikote akustikoa da Franz & Martin. Besteak beste, David Bowie, Nick Cave, Santana, Neil Young, Pink Floyd, Led Zeppelin eta Bee Gees taldeen bertsio propioak egiten dituzte. Hala ere, kontzertuetan, eurek sortutako konposizioak

ikusteko aukera ere izaten da. Emanaldietan, askotariko instrumentuak jotzen dituzte, hala nola gitarra elektriko, klasiko eta akustikoak, pianoa, harmonika, eta abar. Gainera, kantatzen dituzten abesti gehienetan, alde aurretik grabatutako pistak ere jartzen dituzte, non baxu eta bateria soinuak ere badauden. Bikote akustiko horren kontzertua gaur gaueko hamaiketan izango da, Aterpe tabernan.

BAR taldearen kontzertua bihar arratsaldean

BAR taldeak kontzertua eskainiko du bihar, arratsaldeko zazpietan, Musakola auzoko Estrella tabernan. Jaime Lizaranzu -abeslaria eta gitarrista-, Aitor Etxagibel -bateria-jotzailea- eta Aitor Monero -kontrabaxu-jotzailea- dira taldekideak; euren emanaldietan blues doinuak gailentzen dira, betiere, umorearen presentziarekin batera.

Familiarteko kontzertua izango da bariku arratsaldean

Arrasate Musikalen eskutik dator kontzertua, eta gaur, egubakoitza, arratsaldeko sei eta erdietan izango da, Kulturaten. Hain zuzen ere, hirugarren aldia du, eta bertan, aita eta ama ugari seme-alabekin batera joko dute; era berean, lehenegusuen arteko piezak entzuteko aukera ere izango da. Emanaldia doakoa izango da.

25. URTEURRENA

Udaberria heldu da, gerta ezazu zure azala!

Gorputz hidratazioa

Lehen 64€

Orain 54€

Eskaintza baliagarria 2017ko apirilaren 28ra arte

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

AMAGARA
Estetika Zentroa



Abian, Azbe komertziora bideratzeko prozesua

Eraikinaren jabe den Aretxabaleta Naves SLrekin hitzarmena sinatzea onartu du udalbatzak. Bulegoak bota egingo dituzte biribilgune bat egiteko eta zerra itxurako teilatua duen gunean 1.600 metro koadroko denda egitea da asmoa, 48 aparkalekurekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Azbe lantegia zenaren eraikinaren gaineko kontuak izan zituzten eztabaidarako gai eguaztenean egindako ohiko osoko bilkuran. Kide berri bati egin zion, gainera, ongietorria udalbatzak, EH Bilduko Anjel Bergaretxeri.

1.600 metro koadroko denda

Azbe eraikinak komertzio erabilera izango du; izan ere, Eroskik interesa agertu du. Horretarako izendapen aldaketa egin behar diote industria erabileratik hirugarren sektoreko, hau da, zerbitzuen erabilerara pasatuta. Eta horixe onartu zuen udalbatzak, baita eraikin horren jabe den Aretxabaleta Naves SLren eta Udalaren artean hitzarmena sinatzea ere. EH Bilduk adierazi zuen prozesua oztapatzeko asmorik ez zuela, baina aukera guztiak behar bezala ez direla aztertu, horregatik abstenitu egin zen bozketetan: "Ez dira aztertu beste aukera batzuk; aparkalekuak pribatuak izango dira...", zioen Ion Albizuk.

Azbe eraikinak bi gune ditu: bata, bulegoak izandakoa; eta bestea, industriarako erabilitakoa, zerra itxurako teilatuarekin. "Bulegoen gunea bota egingo dute, eta behin botata, Udalari emango dio jabeak. Horren helburua da, herrirako sarrera txukuntzea behar bezalako biribilgune bat eginda", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.

Gainerako gunean, 1.600 metro koadro izango dituen denda egingo dute, biltegiak eta aparkalekuak. "Denda diogunean da herritarren zerbitzura egongo den gunea, beheko partean. Aparkalekuen kasuan, gutxienez 48 izan beharko ditu, hortaz, goiko partean ere egin beharko dituzte". Eta horiek seguru asko pribatuak izango dira. Inguru guztia ere txukunduko dute gero. Eguaztenean hasierako onarpena eginda prozesua abian jarri



Azbe lantegia zenaren eraikina. MIRARI ALTUBE

du Udalak, eta, ondo bidean, udazken inguruan hasiko dituztela lanak uste dute.

Errauskailua eztabaida erdian

Galderen atalean errauskailuaren gaia atera zuen mahaigainera EH Bilduk, eta eztabaida sortu zuen horrek. "Talka" horretatik irten beharra dagoela aipatu zuen Albizuk eta horretan "Aretxabaleta eredugarria" dela: "Kontsulta adostua egin genuen hondakinen bilketaren gainean eta errauskailuaren gaia bide

berdinetik jorratu beharko litzateke. Batak besteari leporatzeko kontu asko egongo dira, baina aurrera pausoak eman behar ditugu; gutxieneko batzuk adostu, sistema bat baino gehiago mahai gainean jarri, eta zergatik ez, herritarrei hitza eman. Akordio zabalak behar ditugu".

Elkorok erantzun zion ez lukeela arazorik izango galdeketa bat egiteko: "Baina bi alternatiba erreal mahai gainean jarrita. Eta horretarako dagoeneko berandu da".

Hirugarrenez udalbatzako kide

Eguaztenean hartu zuen kargua Anjel Bergaretxek, EH Bilduko Oihane Etxebarriaren ordez. Udal jarduna ondo baino hobeto ezagutzen du: 1995 eta 1999 artean zinegotzi izan zen HB alderdiarekin eta 1999 eta 2003 artean alkate Euskal Herritarroekin. "Udal kontuetatik guztiz aparte ez naiz egon. Eta gauden tokitik Aretxabaletaren alde onena emateko gertu nator berriro".



Anjel Bergaretxe. M.A.



Bi ikasleak lagun batekin Parisen. ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA

Bizipenez beteta itzuli dira Frantziatik ALEko ikasle bi

Erdi mailako ziklo bana egiten diharduten Chaima Aaraza eta Jone Gutierrez Les Apillesen izan dira bi hilabetez

M.A. ARETXABALETA

Frantziar, Les Apillesen, izan dira, Erasmus bekari esker, azken bi hilabeteetan Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasle Chaima Aaraza eta Jone Gutierrez. Erdi mailako ziklo bana egiten dihardute eta oso gustura itzuli dira.

hizkuntza berriak ikasi eta mundua deskubritu".

Biak bat etorri dira egoitzetan lan egiteko modua hemengoaren oso ezberdina dela esatean, eta "kultura talka handia" atzeman dute, batez ere, pazienteak zaintzeko moduari dagokionez. Hizkuntzaren kasuan, jasotako laguntza azpimarratu dute bi ikasleek; Aaraza hilabetez egon zen frantsesa ikasten eta Gutierrez ez jakin barik joan zen. Nahiz eta hasieran apur bat kostatu, familia eta lankideen laguntzari esker ondo moldatu zirela azaldu dute biek.

Kultura talka handia


Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta zikloa egin du Chaima Aarazak eta *Erizaintzako zaintza osagarriak* Jone Gutierrezek, eta argi zuten atzerriara joan gura zutela: "Lan egiteko beste modu batzuk ezagutu,



M.A.

Murrizketen aurkako ekimenak

Kurtzebarri eskolako komunitatea murrizketen aurka agertu da egunotan. Martitzenean elkarretaratzea egin zuten irakasleek gurasoen babesarekin, *Hezkuntza eraiki, murrizketarik ez* leloarekin, eta eguaztenean, greba. "Espainiako Estatuaren mendekotasunetik askatu eta bide propioa eta adostua egin dezagun", adierazi zuten.



Asier Mujika, Iñigo Murgiondo eta Mikel Uribetxebarria igerilekuan jarri dituzten bizikleta berrien inguruan. MIRARI ALTUBE

Ibarra kiroldegia %91,4ko autofinantzaketa lortu du

lazko abenduan abonatu kopurua 2.769ra iritsi zen eta Udaleko kirol arduradunak oso pozik daude. Kirol jardueren ardura duen Athlonen, ostera, 'Spa Gym Corner' zerbitzua jarri du abian: lau bizikleta –bi ohikoak eta bi eliptikoak– daude igerilekuan eguaztenetik

Mirari Altube ARETXABALETA

Spa Gym Corner zerbitzu berria jarri dute abian Ibarra kiroldegian. Lau bizikleta jarri dituzte igerilekuan –oraingoz umeen igerilekuan–, bi ohikoak eta beste bi eliptikoak, eta 14 urtetik gorakoek erabili ahal izango dituzte. "Ordutegirik ez dugu zehaztu, oraingoz, eskaeraren arabera izango da", jakinarazi du Asier Mujikak, Kirol teknikariak.

Osasuna lantzeko gunea

Beste bi urterako –lau urtera luzatzeko aukerarekin– eman zion Ibarra kirol jardueren ardura Athlon enpresari Udalak otsailean, eta orain, beste zerbitzu bat eskaini gura izan die erabiltzaileei: "Kiroldegi arrunta izan beharrean osasuna landuko duen zentro baterantz jotzea da gure asmoa; horregatik zerbitzu berriak eskaintzen jarraitu gura dugu", jakinarazi du Iñigo Murgiondok, Athlonen ordezkariek Ibarra kiroldegian,

eta gaineratu du: "Igerileku ederra dugula jakinik eta hori hainbatek erabiltzen dutela oinez jarduteko edo korrikan egiteko ikusita ariketa fisikoa beste era batera egiteko baliabideak jarri gura izan ditugu. Uraren erresistentzia aprobeztatuko dugu, hainbat patologia dituztenendako onuragarria delako".

2.800 abonatu gora orain

Zerbitzua aurkeztearekin batera kirol ordezkariek iazko datuen berri eman gura izan dute "pozgarriak" direlako: "2.769 abonaturekin bukatu genuen 2016a. Eta une honetan 2.800dik gora gara. 2015a eta 2016a alderatuz gero, gainera, %15,3ko igoera

URAREN ERRESISTENTZIA APROBETXATUKO DUTE ARIKETA FISIKOA EGITEKO

izan da; hortaz, oso pozik gaude", jakinarazi du Mikel Uribetxebarriak, Kirol zinegotziak.

Antolatutako jardueretan izandako parte-hartzeari ere garrantzi handia eman diote: "2015 eta 2016 ikasturteko jardueretako partaide kopurua izan da 4.615; iazko ikasturtearekin alderatuta %33ko igoera izan du". Era berean, herritarrek asko erabiltzen duten instalakuntza dela azpimarratu gura izan dute: "Iaz 134.540 erabilera izan zuen kiroldegiak, horiek dira sarre-rako tornutik pasatutakoak. Datuok dira, gainera, kontuan hartu barik ikastetxeetako gaztetxoan joan-etorriak".

Hori horrela, autofinantzaketak %91,4koa izan zela 2016an jakinarazi du Uribetxebarria zinegotziak: sarrerak, 667.370 euro, gastuak 730.000 euro eta defizita 62.635 euro. "Horrek esan gura du erabiltzaileen eta abonatuaren diru-sarrerak oso garrantzitsuak direla. Eta emaitza bikaina dela".

Zugasti eta Lasagabaster Udaberri Txapelketako finalean

Aretxabaleta kirol elkarteak kadeteek Ordiziako bikotearen aurka jokatu dute gaur, Eskoriatzan

M.A. ARETXABALETA

Haritz Zugasti eta Ibai Lasagabaster UDako pilotari eskoriatzarrek Udaberri Txapelketa dotorea egin dute eta finalera iritsi dira. Gaur dute final hori Eskoriatzako pilotalekuan, 19:30ean, Ordiziako Etxeberria eta Zaldua bikotearen kontra. "Aurkariak ez ditugu ezagutzen eta ez dakigu zer gertatuko den, baina argi dugu ez dela izango partidu samurra", jakinarazi du Jon Etxeberria entrenatzaileak; hortaz, zaleen berotasuna pozik hartuko dute pilotariak.



Zugasti eta Lasagabaster. UDA

Debarroko txapelketa

Kadete mailako bikoteak, gainera, Debarroko txapelketa hasi du astean. Arrasateko Etxezarreta eta Zubiaren aurka galdu egin zuten, 22-7, martitzenean. "Aurreko egunetan Holandan izan dira eta entrenamendu fal-

ta igarri egin zaie", adierazi du Etxeberria, eta gaineratu du: "Dena den, gure helburua jokatzea, gozatzea, ondo pasatzea eta ikastea da". Hilabete batzuk barru hasiko den lau t'erdiko txapelketa jokatzeak asmoa ere badute UDakoek.

Hezkuntza herria batzeko

Oñatiko Nerea Zubia, Soraluzeko Lorea de Castro eta Oretako Itziar Ostolaza zinegotziak elkartu zituen EH Bilduk martitzenean, herriotako hezkuntza proiektuak ezagutzeko. Irakasleak eta gurasoak elkartu ziren, besteak beste, LABeko Bea Martxuetak gidatutako ekitaldian. Hezkuntza komunitatea indartzeko eta herria batzeko helburuarekin antolatu zuten hitzaldia.



M.A.

Juanjo Albiñana eta Juan Aroca umoristen bakarrizketa saioa

Bakarrizketa saioekin jarraitzen dute Arkupen eta gaur, egubakoitza, 20:00etan, Juanjo Albiñana (Albacete, 1985) eta Juan Aroca (Sevilla, 1968) komediagile ezagunak izango dira (sarrerak, 4 euro).

Biak ala biak eskarmentu handiko umoregileak dira eta *Comedy Central* eta *El Club de la comedia* saioetan ohiko gonbidatuak.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Eskoriatzako sarreran hasi dituzte egonkortze lanak. IMANOL BELOKI

Txukuntze-lanak hasi dituzte herriko sarreran

Intxaurtxueta auzoan egin barik dauden etxeen ingurua behar bezala jartzeaz promotorea arduratuko da, Udalarekin sinatutako hitzarmenak dioen moduan. Urbanizazioa aktibatze lanek hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako herriko sarreran, Intxaurtxueta auzoan, etxebizitzak eraikitzen hasi ziren duela hamar urte, baina, krisiaren eraginez, geldirik egon dira bertako lanak bederatzi urtez. Etxeak ez dira saldu, eta Eskoriatzako Udalak promotoreei irtenbide bat eskatu zien, etxebizitzak eginda ez egon arren ingurua behar bezala egokituta uzteko. Horretarako, hitzarmen bat sinatu zuten, eta lanak promotoreen esku geratuko zirela adostu zuten. Hala, dagoeneko hasi dira lanak, eta, Josu Ezkurdia Hirigintza batzordeburuaren esanetan, auzuneko egonkortze lanek "hiru hilabete" iraungo dutela aurreikusten da.

Urbanizazioa aktibatze lanak
Promotorearen eta Udalaren hitzarmenaren bitartez, urbanizazioa aktibatu nahi da, eta, horretarako, hainbat lan egingo dira: "Egoera prekarioan zegoen garajeetarako sarrera behar

bezala jarri dute dagoeneko, bere garaian probisonala jarri baitzuten. Dagoeneko lan horiek eginda, bizilagunak pozik geratu dira. Bestalde, egin barik dauden etxeen inguruan egingo dituzten lanak hauek izango dira: autoentzako aparkalekuak, espaloia eta pasoa jarriko dituzte, asfaltatze lanak...".

Etxebizitzak saldu nahian

Etxeak pribatuak izan arren, prezio librean salduko dituztela azaldu dute promotoreek, eta, horretarako, prezioak jaitsi egin dituzte. *Etxebizitza libreak babes ofizialeko etxeen prezioetan* lelopean kartela erreklamatu moduan jarri zuten duela hainbat hilabete. "Prezioak jaitsi dituzte, eta

INTXAURTXUETAKO URBANIZAZIOA AKTIBATU NAHI DA EGINGO DIREN LANEKIN

salduko ote diren ez dakigu, guk ez dugu hor zer eginik. Oraingoz, Intxaurtxuetako ingurua konponduko dute beraiek, eta behar bezala utziko dutelakoan gaude".

Etxeak erosteko interesaz

Goienako iturrien arabera, errepidetik bigarren blokeko etxebizitza batzuk erosteko interesa agertu dute hainbatek, eta, asmo horiek aurrera egingo balute, sei hilabetetan etxebizitza erakina bukatuta egongo litzateke.

Guztira, bi blokeren egiturak daude eraikita, bakoitzean lau atari daude eta atari bakoitzean zortzina etxebizitza, salbuespen batekin: bi ataritan etxebizitza txikiagoak egokitzeko aukera dago, apartamentu eran, eta, modu horretan bizileku kopurua handitu egingo litzateke; bestela esanda, atarte batean 10-12 etxebizitza-apartamentu egokitzeko aukera dago. 134.000 eurotik gorako prezioa jarri diete etxebizitzari; hiru logelatatik hasita, hain justu ere.



Luis Ezeiza herri eskola aurrean egindako elkarretaratzea. LUIS EZEIZA

Hezkuntza publikoak bizi duen egoera salatu dute Luis Ezeizan

Hiru egubakoitzetan batu dira eskola aurrean, lan baldintzak hobetu eta LOMCEren aurka egiteko

I.B ESKORIATZA

Steilas, LAB eta ELA sindikatuek unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan grebarako dei egin dute irakasleen sektorea, Heziketa Bereziko Hezitzaileen sektorea, Partzuergoko langileak, sukaldariak eta garbitzaileak.

Azken urteetan jasaten ari diren murrizketen kontra azaldu dira Luis Ezeiza eskolakoak, eta martxoaren 22ra arte, hiru egubakoitzetan, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako jolastokian, *Lan baldintzak hobetu hezkuntza eraiki* lelopean, kalera irten dira protesta egitera.

Hezkuntza publikoak bizi duen egoera gero eta larriagoa dela, murrizketen aplikazioek etenik ez dutela, langileen ordezkaritza ez dutela aintzat hartzen, inolako negoziatorik ez dute onartzen, hezkuntza publikoari ez diotela dagokion erreferentzial-

tasunik ematen... halakoak salatu dituzte egindako elkarretaratzeetan. Bestalde, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek martxoaren 22ko deitutako grebarekin bat egin zuten. Honela azaldu du Luis Ezeizako Maitane Gomez de Segura irakasleak: "Elkarretaratzeak egin ostean, greba izan genuen martxoaren 22an, eta Gasteizera joan ginen protesta egitera. Jende ugari batu ginen bertan, eta honekin gobernuari eskatu nahi diogu gure lan baldintzak hobetzeko, hala nola ordezkapenak lehen egunetik egitea, bajak bere osotasunean ordaintzea, erretiroa erraztea, hezkuntza publikoko plantilak handitzea...".

Martxoaren 22tik aurrera ez dute beste elkarretaratzerik aurreikusitako, baina, hala ere, lan baldintzak hobetzearen alde lan egingo dutela adierazi du Gomez de Segurak.

'Instant1ean' argazki rallya egingo dute zapatuan

Argazkigintzan trebatuko dira Eskoriatzako gaztelekuko nerabeak zapatuan egingo duten *Instant1ean* argazki rallyan. 17:30ean hasiko dira lehiaketarekin eta jasotako argazki guztiekin emanaldia egingo dute eguna amaitzean. Ondoren, afari-merienda egingo dute gaztelekuan bertan. Izena egunean bertan eman beharko dute par-

te hartu nahi dutenek, gaztelekuan, rallya hasi aurretik.

Instant1ean proiektuaren helburua da gazteek teknologiaren erabilerrari dagozkion portaera eta jarrera egokiak barneratzea, Interneten ondo nola jokatu ikastea eta sarean eskubideak eta betebeharrak zein diren argitzea. Hala, balio horiek transmititzen saiatuko dira gaztelekuko hezitzaileak, eta aurrez egindako tailerretan ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango dute.

Gogoa, konfiantza eta animoak borborka

Euskal Ligako Eskoriatza areto futbol taldeak eta Aretxabaleta taldeak derbia jokatuko dute zapatuan, Manuel Muñozen, 18:00etan. Bi taldeetako entrenatzaileek adierazi dute derbietan edozer gerta daitekeela, baina biak garaipenaren bila irtengo dira kantxara

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatu honetan, derbia jokatuko dute Euskal Ligan dabilen Eskoriatza eta Aretxabaleta areto futbol taldeek. Partidua Manuel Muñoz kiroldegian izango da, esan bezala, zapatuan, 18:00etan, eta, elkarren artean jokatutako derbiei erreparatu, harmailetan ikusle asko egongo direla aurreikusten da.

Aretxabaleta liderra da aspal-ditik eta Eskoriatza, berriz, bosgarren postuan dago. Aretxabaletak lidergoa mantendu nahi du, eta Eskoriatzak, aldiz, hasiera batean zituen helburuak alde batera utzita, laugarren postuan geratzea du erronka.

Eskoriatza, konfiantzaz

Antonio Tena Eskoriatzako entrenatzailearen esanetan: "Ibarra kiroldegian jokatutako joaneko partidua nola joan zen ikusita, eta azken jardunaldietan izan dugun jokoari erreparatu, irabaztea da gure helburua. Tal-



UDA-Eskoriatza joanekoan. IMANOL SORIANO

dearengan konfiantza handia daukat; izan ere, azken partiduetan gol gutxiago sartu dizkigute, aurrean hobeto ari gara eta taldea egonkortuta dago. Hala ere, derbi bat da, eta edozer gauza gerta liteke".

Lesio ugari Aretxabaletak

Aretxabaleta taldeko Arkaitz Riberak, berriz, dio "derbietan ez dagoela faboritorik". Bestalde, hau azpimarratu du: "Lesionatutako jokalaririk asko izan ditugu azkenaldian, eta, ordezkoak lan bikaina egiten ari diren arren, nabari da hori gure jokoa. Beraien aurka jokatu genuen azken partidua baino joko gehiagoko partidua izango delakoan nago; betiere, errespetuz, baina bi taldeok lasaia jokatuko dugu, arriskatu... Partidu ederra izango da, baina, hala ere, irabaztera irtengo gara kantxara, ez baitugu lidergoa utzi nahi.

Bi taldeak garaipenekin datoz

Eskoriatzak Scaliburaren aurka jokatu zuen pasa den jardunaldia, eta 0-3 irabazi zuen. Aretxabaletak, berriz, Gora Bilbao taldearen aurka jokatu zuen etxean, eta 5-1 irabazi zuen. Hala, biak irtengo dira kantxara derbiko puntuen bila.

Udaberriko Gaztekonkis-en hirugarren edizioa prest dago

Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeen zuzendutako aisialdi egitasmoa abenturaz beteta dator

I.B ESKORIATZA/ARETXABALETA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuak Aste Santuko bi egunerako aisialdi egitasmoa prestatu dute, eta, hain zuzen, 12 eta 17 urte arteko nerabeei zuzendutakoa izango da.

Gaztekonkis izeneko egitasmoaren hirugarren edizioa izango da, eta abentura ederra pasatzea da helburua. Apirilaren 10ean egingo dute Gaztekonkis mendian. 10:00etatik 18:00etara egun osoko mendi irteera antolatuko dute Urkulun zehar. Ibilbidean, proba ugari egin beharko

dituzte. Apirilaren 11n, berriz, Gaztetekef egingo dute Aretxabaletan 11:00etatik 17:00etara bitartean. Egundun honetako ekintza nagusia ginkana bat izango da eta proba desberdinen bidez bazkarirako osagai eta tresnak lortzen joango dira parte hartzaileak. Ondoren, Iturrigorri frontoian bazkaria prestatuko dute eta bertan bazkalduko dute. Bazkaldu ondoren, argazki emaldi batekin amaituko da lehia-keta eta sariak jasoko dituzte irabazleek. Apirilaren 1era arte eman daiteke izena.

Almen eta Eskoriatza arteko bidegorri tartea itxi egingo dute

Almengo biribilgunetik Eskoriatzako tunelerainoko bidegorri tartea itxita izango da astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 19:30ak arte. 1.699 metroko bide zatia, beraz, itxita egongo da aipatutako egunetan eta ordu tartetean.

Artapen lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu bidegorri zati horretan. Hala azaldu du Marian Miguel Artapen-Us-tiapen buruak: "Mantentimentu lanak egingo ditugu bidegorrian. Lur-jausi txikiak ere izan dira bertan, eta konkretuki areka zati batean dauden trabak garbituko ditugu. Berriz gerta ez dadin, harresi txiki bat ere jarriko dugu euskarri gisa...".



Gurelekoak batzarrean, domekan. AITZIBER GOROSABEL

Guraso elkarte hutsa baino gehiago, eragile aktiboa

Gurel elkarteak zeregin garrantzitsua jokatzen du herrian aisialdirako zein hezkuntzarako aukerak sortzen

Maite Txintxurreta BERGARA

Gurel guraso elkarteak urteko batzar orokorra egin du asteburuan. Bertan, kontuak onartu dituzte, iazko urteak emandakoa erreparatu dute, aurten urtean zehar etorriko denari buruz aritu dira eta bazkide berriak onartu dituzte.

Hala, Jaione Makazaga eta Soia Urdaci izango dira batzarkide berriak, eta, oraingoz, behintzat, errelebo lana egiteko Aitziber Gorosabelek eta Dorleta Elkorobarrutiak ere batzarrean jarraituko dute. Aurki zehaztuko dute nola banatuko dituzten batzarrean karguak. Hala, prest daude sasoi berri bati ekiteko.

Aukerak sortzeko lanean

Gurel guraso elkarteak zeregin garrantzitsua jokatzen du herrian ume zein nagusientzat hezkuntzarako eta aisialdirako

aukerak sortzen. "Herria bizirik mantentzea" dute helburu, Dorleta Elkorobarrutiaren hitzetan. Hala, umeek herriarekiko atxikimendua izatea da gura dutena, horrek, Elkorobarrutiaren esanetan, "herritar ekintzaileak" bilakatuko baititu, etorkizunean ere herria aktibo mantenduko dutenak. Urtean hainbat hitzordu izaten dituzte, eta horien bueltan ekimenetan parte hartzen dute: Zuhaitz Eguna, Aratusteak, andramaixak...

Horrez gain, ume eta gazteen aisialdirako funtsezkoak diren ludoteka zerbitzua eta udaleku eskaintza ere kudeatzen dute.

Bestetik, bere fruituak ematen hasi den beste proiektu bat Gurelek eta eskolak bultzatutako ortutxoarena da. Bertan, ume txikiak "naturak eskaintzen dituen aukerez gehiago ikasteko" aukera daukate.

Cristobal Gutierrezekin saio irekia arratsaldean

Hezkuntza munduan aditua den Cristobal Gutierrezek gai honi buruzko saio irekia eskainiko du gaur arratsaldean. 18:30ean izango da hitzordua, Kultura Etxean.

22 pertsonaz osatutako talde itxi bat Gutierrezekin tailerretan lanean dihardu, baina oraingoa deialdi zabala izango da, eta gaiarekiko interesa duen edozein

pertsonari zuzenduta dago gaurko hitzaldi-tailer hori. Umeen hezkuntza baino gehiago, helduengan jarriko du fokua oraingo saio honetan Gutierrez hizlariak. Bi ordu inguru iraungo du saio horrek.

Cristobal Gutierrez izen handiko pertsona da, eta azken 30 urteotan hezkuntzaren bueltan dihardu lanean, eredu alternatiboen bueltan, zehatzago esanda. Hain zuzen, hura izan zen Kataluniako lehen eskola libreen sortzailea.



Manex Agirre eta Xabi Igoa, bi finalistak, Aramaioko zaharren egoitzan egin zuten bertso saio batean. IMANOL SORIANO

Herenaren araua beteko da finalean ere: seitik bi

Hemezortzi bertsolarik hartu dute parte Arabako Bertsolari Txapelketan eta horietatik sei izan dira aramaioarrak; finalerako sei bertsolari sailkatu dira eta horietatik bi izango dira herritarrak, Xabi Igoak esandako moduan, "herenaren araua betez"

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Apirilaren 1ean jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketako final handia, Gasteizen, eta aramaioarrek presentzia nabarmena izango dute. Xabi Igoa eta Manex Agirre dira txapelaren borrokan ibiliko diren bertsolari aramaioarrak. Hirugarren bat ere aipatzekoa da; izan ere, Iñaki Viñaspre Aramaioko Bertso Eskolan hezitakoa da, aramaioarra ez den arren.

Hain zuzen ere, Aramaioko Bertso Eskolak egiten duen lana nabarmendu dute finalera iritsi diren bi herritarrek. Agirrek dio oinarrizkoa dela atzean talde bat edukitzea. "Bertso eskolaren lana da gakoa. Txapelketan banaka aritzen gara, baina atzetik lagun talde handi bat daukagu, eta, hori guztia ez badago atzetik, asko nabaritzen da. Zentzu horretan, pribilegiatuak gara Aramaion, oso talde finkoa, homogeneoa eta aktiboa dugulako". Igoak, berriz, taldearen dinamika jarri nahi izan du balioan.

"Orain urte batzuk lan dinamika bat jarri genuen martxan eta gaur egun, mantendu edo areagotu egin dugula esango nuke. Txapelketa ona egin dugu, oro har, Aramaioko eskolan gabiltzan guztiok, eta hori atzeko lanaren adierazle da".

Izan ere, Aramaioko Bertso Eskolako zortzi kideak lehenengo hamabi postuetan sailkatu dira azken sailkapenean.

Gainera, eskola "osasuntsu eta indartsu" dagoela nabarmendu dute bi finalistek. Agirreraren esanetan, hutsetik hasi zen bertso eskola, duela ia hogeitun urte. "Ahaletin handia egin zen ahalik eta jende gehien batzeko, baina iritsi zen momentu bat gure neurria aurkitu geniona

BI FINALISTEK NABARMENDU DUTE ARAMAIOKO BERTSO ESKOLAK EGITEN DUEN LANA

eta mantendu egin duguna. Hala, momentu honetan oso indartsu eta osasuntsu dago, helduen taldea oso aktiboa da eta umeak eta gaztetxoak ere badatoz". Igoak, berriz, adierazi du belaunaldiz belaunaldi eskola "bizirik eta maila onean" ikustea pozgarria dela. "Peru eta Paula nire ikasle izan ziren eta ni, berriz, Manexen ikasle izan naiz. Hori mantentzen dela ikustea gauza ederra da", azaldu du.

Finalera begira, biak gogotsu

Agirrek adierazi du ez dela izan bere txapelketarik onena. "Txapelketan ez dut oso ondo pasatu, deseroso eta ezinegon batekin moduan aritu naiz. Horregatik, finala iristeko gogotsu nago, arantza hori kendu eta maila ona emateko gogoz, oholza gainean disfrutatu ahal izateko".

Igoak ere saio ona egin nahi du: "Gazteak ere bagatozela aldarrikatzeko eta frogatzeko nire izena finalean bigarren aldiz ikustea kasualitatea ez dela izan".

"Herritarrek lepoan nire logoa eramatea arraroa egingo zait"

EIDER BALLINA LOGO LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Zailena logoaren ideia lortzea dela aitortu du Ballinak

E.A. ARAMAIO

16 lan aurkeztu ziren Lagun Artean dantza taldeko logo lehiaketara, eta berea izan zen onena. Zertan oinarritu zara logoa egiteko orduan?

Lagun Artean eta Aramaio ize-nak eduki behar zituen logoak. Hortik aurrerako guztia librearen. Ni, gehienbat, dantza talde batek ematen duen irudian oinarritu nintzen; hau da, gizonak eta emakumeak eta bakoitzaren jantziak. Izan ere, hori da dantza talde bateko logoan atentzioa gehien ematen duena.

Aramaioaren m hori ere bereizita dago. Zer irudikatu nahi izan duzu?

Lehiaketan nire logoa aukeratu ostean, aldaketa bat egiteko eskatu zidaten. Hain zuzen ere, m hori aldatu eta herriarekin lotura zeukan zerbait egiteko eskaera egin zidaten eta nik mendi itxura eman nion, Aramaioko kutsua izateko.

Zuk diseinatutako logoa taldearen irudia izango da aurrerantzean. Zer sentitzen duzu?

Hasieran, suposatzen dut oso arraroa egingo zaidala. Orain, adibidez, zapiak atera behar dituzte eta herritarrek lepoan nire logoa eramatea arraroa



Eider Ballina. E.B.

egingo zait. Horrez gain, poztasuna ere ematen dit, noski.

Lan handia eman dizu honek?

Hasierako ideia lortzea beti izaten da zaila, baina, behin nondik jo erabakitzen duzunean, errazagoa egiten zaizu, nahiz eta benetan pozik geratzeko aldaketa asko egin behar izaten dituzun ondoren.

Gainontzeko lanak ikusteko aukerarik izan duzu?

Egia esan, ez ditut ikusi. Beraz, ez dakit justua izan den edo ez nik irabaztea. Gero, agian, besteren bat gehiago gustatuko zait.



PAPARGORRI

Papargorri abesbatza Donostian

Pasa den zapatuan, Papargorri abesbatzak, Gasteizko Olabide abesbatzarekin batera, Donostiako Zorroaga elizan izan zen haur abesbatzen XI. topaketan parte hartu zuen. Zorroaga Fundazioaren eskutik egiten da topaketa hau. Abesbatzako zuzendari Larraitx Arriolabengoaren esanetan, "oso esperientzia polita eta aberasgarria" izan zen.

"Aramaioko fauna oso aberatsa eta anitza da"

'Aramaixoko bizilagun batzuk' izeneko dokumentala Markel Arriolabengoa eta Mikel Serrato aramaiorrek ekoiztako lana da, Aramaion aurkitu daitezkeen animalia desberdinak eta hauek ekosisteman betetzen dituzten funtzioak jorratzen dituen

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Aramaioko landaketa ezberdinek bertako faunarekiko duten eragina aztertzen aritu da Markel Arriolabengoa aramaiorra. "Bi urtez ibili naiz bideoak grabatzen, eta, bideo politikak daudenez, herritarrekin partekatzea erabaki nuen. Oso hurbil bizi gara basotik, baina, askotan, ezagutza aldetik oso urruti gaude. Beraz, nire bideoak herritarrekin partekatuta eta ezagutza hori zabaltzea izan da nire asmoa", adierazi du Arriolabengoa.

Bideoak Arriolabengoarenak badira ere, Mikel Serratok egindako lana azpimarratu nahi izan du. "Nik bideo solte batzuk besterik ez nuen, eta Mikel Serratok egin du muntaia guztia, oso forma ona eman dio dokumentalari. Hasieran modu sinplean hasi ginen muntatzen eta hori ez zihuan inora. Mikeli esker, ordea, lan serio eta formala aterada. Merituaren zati handi bat berea da", dio.



Basakatu bat, dokumentaleko irudi batean. MARKEL ARRIOLABENGOA

Animalien garrantzia

Edukian zentratuta, basoan bizi diren animaliek funtzio garrantzitsuak betetzen dituztela aitortu du Arriolabengoa. "Askotan, basoko animalien gainean berba egiten dugunean, badiru-

di gauza txarrak esaten direla bakarrik. Hala ere, oso funtzio garrantzitsuak betetzen dute eta animalia hauek ez baleude, gu ere ez ginatke hemen biziko, ekosistemari ematen dioten zerbitzuagatik". Izan ere, ekosiste-

man oreka bat egon dadin laguntzen dute animaliak. "Pasatzen dena da oreka bat dagoela guk uste duguna baino askoz ere konplexuagoa dena. Oreka hori galdu egin daiteke, adibidez, harrapariak kentzen ditugunean. Oreka hauste ohikoena izan daiteke kultibo asko dauden lekuetan sagu populazio handitzea", azaldu du Arriolabengoa. Aipatzen duen oreka horren garrantzia nabarmendu beharrekoa dela uste du dokumentalaren egileak. "Animaliek eragin zuzena daukate landareengan, eta landareek eragin zuzena dute ur hornikuntzan edo jan hornikuntzan. Guztia oso lotuta dago eta oreka bat ematen ez bada, kalteak oso handiak izan daitezke".

Askotariko animaliak Aramaion

Arriolabengoaren esanetan, fauna anitza eta aberatsa dauka Aramaiok. "Azalera handia dauka eta habitat oso ezberdinak. Haitzak daude Orixol eta Ipizte inguruan, arroka handiak daude eta hegazti asko; ur masa handiak ere badaude, Albiñako urtegia, adibidez, eta baso mota ezberdinak ere bai. Horrek aberastasun handia ematen dio gure herriari", zehaztu du.

Dokumentalean agertzen diren animalietatik, bitxieta edo ezohikoena lephoria dela dio. "Pentinsulako iparraldean dagoen animalia bat da, arraro moduan katalogatuta dagoena, eta Ara-

maion, zorionez, ikus daiteke". Horrez gain, basakatua ere aipatu du. "Askotan ez da erraza izaten basakatu purua dela esatea, zalaparta handia dago hor, mestizo eta nahasketa asko daude. Baina animalia adierazgarria da, atentzioa pizten duena".

Hala ere, onartu du animaliak ikustea ez dela hain erraza eta horrek dokumentala egiterako orduan lanak zaildu egiten dituela dio. "Hemengo basoak itxiak dira. Gainera, animalia asko, oso txikiak izateaz gain, argiak ere badira. Ez da sabanara joan eta jeep batetik lehoia ikustea. Beraz, fototranpeoko kamerak jartzen dituzu animalien arrastoak ikusten dituzun lekuan, eta mugimendua detektatzen dutenean, grabatu egiten dute. Bideo asko grabatzen dira eta horietatik askok ez dute balio, baina beste batzuk irudi politikak dira".

Oraingo, dokumentala erantzun ona ari da izaten herrian eta egilea pozik dago. "Ni gustura gelditu naiz emaitzarekin eta badirudi jendeari ere gustatu zaiola, haurrak ere gustura ari dira eta hori garrantzitsua iruditzen zait".

"EKOSISTEMAN OREKA BAT EGON DADIN LAGUNTZEN DUTE GURE BASOETAN DAUDEN ANIMALIEK"



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

Disfrutatzen ikasi!

Euskararen alde egin dezakegunaren inguruan hitz egingo dut. ETBk zein Eusko Jaurlaritzak nahikoa egiten ez dutela uste dut eta presio pixka bat eskatzen dizuet.

Semeari marrazkiak euskaraz jartzea gustatuko litzaidake. Jartzen dudak bakoitzean Nobita - Doraemon- alfer eta negartia baino ez da azaltzen. Nire ume denboran ere ez zitzaizkidan gustatzen. Une hartan ez genuen horren konpetentziarik eta kate publikoa ikusten genuen gehienok. Ondo barneratu

genuen Son Goku euskaraz. Gurean, semeak kate publikoa afalostean baino ez du ikusten, ohera joaten denean. Han ez dugu *Imagenio Movistar*. Ba... berari ere ez zaio gustatzen eta nahiago ditu Clan-en agertzen diren *Super patrulla* eta *Bob esponja*.

Azken asteetan ETB3ko programazioan aldaketak nabaritu ditudan arren, gehiengoek duten grafikoa oso pobrea da eta zaharrak dira. Maia erlea eguerdian jartzen dute, oso marrazki sanoa. Bada garaia erle honi

deskantsatzen uzteko. 03:00-05:00ak tartean Lazkao txiki, eta abar ditugu. Gure kulturako marrazkiak mantentzea ondo iruditzen zait, nahiz eta hauek zaharrak izan. Baina nork ikusten ditu ordu horietan?

Guraso guztioi, zuen seme-alabei ETB3ko marrazkiak ez ikustera animatzen zaituztet. Ea modu honetan ETBk marrazkiak eguneratzen dituen, telefonia kateetan ikus daitezkeenak, matematika, geometria, teknologia eta hainbat ofizio erakusten dituzten.

Lanbideko bi langilek hainbat lan egin dituzte, hiru hilabetez

Aramaioko Udalak bi langile kontratatatu ditu, hiru hilabetez, Lanbide programari esker, eta langile horiek hainbat lan egin dituzte herrian denbora tarte horretan. Esaterako, Ibarrako eta auzo ezberdinetako arekak garbitu, kultura etxeko gela batzuk txukundu eta bertako traste zaharrak erretiratu, udal biltegiko apalak lixatu eta margotu, Ibarrako hilerrian txukuntze-lanak, eta abar.

Gorbeialdeko Kuadrillak erabaki zuen kontratazio horiek herriz herri egitea, eta, horri esker, denbora luzez langabezia daudenei aukera ematen zaie hiru hilabetez, gutxienez, lan egiteko.

Korrikaren amaierako festarako autobusa egongo da

Apirilaren 9an, bukatuko da Korrika, Iruñean, eta Gorbeialdeko Kuadrillak autobusak antolatuta ditu bertara joateko. Izena emateko euskara@gorbeialdea.eus helbidera idatzi beharko da mezua, apirilaren 5a baino lehenago. Irteera 10:00etatik aurrera izango da, izena ematen dutenen udalerrietatik. Ordu zehatza aurrerago jakinaraziko du Gorbeialdeko Kuadrillak. Itzulerako autobusa 20:00etan irtengo da Iruñetik.

Martxoaren 31n, 16:00retan hasita, 20. Korrikaren abiatzea *Otxandiotik* izeneko saioa eskainiko dute zuzenean hainbat euskal hedabidek, baita Goienak ere -Goiena.eus-en ere ikusgai-.

Herriko artisauengandik gauza berriak ikasten

Pili Arin, Igor Herce eta Lorena Ibeas Elgetako gaztelekuan izan ziren domekan. Nork bere lanaren berri eman zuen, eta lanean ere jarri zituzten bertaratutako hemezortzi neska-mutikoak. Gazteek arretaz entzun zituzten herriko artisauen azalpenak

Larraitz Zeberio ELGETA

Herriko hiru artisauen bisita jaso zuten domekan Elgetako gazteleku zerbitzuan. Gutxitan izaten dira horrelakoak, eta ate irekiak egin zituzten ahalik eta neska-mutiko kopuru handienak izateko artisauen aurkezpena ikusteko aukera.

Igor Herceren burdingintza erakustaldiarekin eman zioten hasiera aurkezpenari. Eibartarra bada ere, Angiozarko Elizamendi auzoan bizi da aspaldi eta narruarekin eta burdingintzan egiten du lan Arrate Egurrolarekin batera. *E-mendi* da euren marka. Burdina zer den eta nola lantzen den azaldu zuen Hercek, eta erakustaldia ere egin zuen; gaztelekurako arropesekitoki bat egin zuen.

Diademak eta eskumuturrekoak

Igor Herceren erakustaldiaren ondoren Pili Arin eta Lorena Ibeas artisauak eman zuten egiten duten lanaren berri. Askotariko eskulanak egiten dituzte, eta, Herceren moduan, urtero izaten dira herrian egiten diren hainbat azokatan. Gaztelekuko neska-mutikoei diademak zelan egiten dituen azaldu zien, besteak beste, Lorena Ibeasek. Batek baino gehiagok eraman zuen etxera gaztelekuko saioan eskuz egindako diadema. Pili Arinek ere gustuko dituen hainbat diziplinaren berri eman zien neska-mutikoei. Haren laguntzarekin eskumuturrekoak egiten ikasi zuten eta ahalegindu zenak etxera eraman zuen lanaren emaitza.

Gazteleku zerbitzuko dinamizatzaile Nerea Villa pozik agertu da ekimenak emandakoarekin. Neska-mutikoak gustura ikusi ditu, eta gauza asko ikasteko aukera izan dutela esan du. "Ate irekiak egin ditugu eta hemezortzi neska-mutiko etorri dira. Uste dut egin dugun ekintza jendetsuena izan dela".



Igor Herce gaztelekuko atarian burdina lantzen. IMANOL SORIANO



Pili Arin gaztelekuko gazte talde batekin eskumuturrekoak egiten. NEREA VILLA



Lorena Ibeas gaztetxoei oihalekin egindako eskulanak erakusten. NEREA VILLA



Sumision City Blues taldea. SCB

Hiru talde lotsagabe eta indartsu gaur kafe antzokian

Sumision City Blues, The Riff Truckers eta Nevada taldeek zuzeneko emanaldia egingo dute, 21:00etan

L.Z. ELGETA

Kontzertu indartsua iragarri dute gaurko Elgetako Spaloia kafe antzokian: Nevada, The Riff Truckers eta Sumision City Blues. Eskarmentu handiko musikariek osatzen dute Sumision City Blues: Iñaki Urbizu *Pela*, Iñigo Azazeta *Anti*, Joseba Baleztena, Kike Lafuente *Penike* eta David Marinek. Obligaciones, Gramones, Joseba B. Lenoir, Willis Drummond eta beste talde askotan ibilitakoak dira. Boskote gasteztarrak *Hay un plan trazado desde arriba que se llama...* Sumision City Blues disko berria

aurkezten dihardu, eta, rockean ez ezik, bluesean eta bestelako doinueta trebeak dira.

The Riff Truckers eta Nevada

Gernikako taldea ere Spaloian izango da gaur. 2005ean sortua, rock-and-rolla dute ardatz nagusi, baina blues eta country doinuak ere jorratzen dituzte. Hirugarren diskoa prestatzen ari dira. Baina guztien aurretik Nevada taldeak emango dio hasiera kontzertuari, 21:00etan. Jaialdirako sarrera da zazpi euro. Hiru taldeen ostean DJ Karbak hartuko du lekukoa.

Euskal dantzen ikastaroa apirilaren 26an abiaraziko dute

Dantza eskolak eguaztenetan izango dira apirilaren 26tik ekainaren 28ra bitartean, eta aurten bost urte betetzen dituzten neska-mutikoendako eta hortik gorakoendako izango da.

Bi talde osatuko dituzte aurten ere: txikien taldean 2008tik 2012ra bitartean jaiotakoak sartuko dituzte eta nagusien taldean 1999tik 2007ra bitartean jaiotakoak. Euskal dantzak ikastea eta Ferixa Nagusiko jaietarako emanaldia prestatzea izango da, aurten ere, ikastaroaren xedea. Zabalik da izen-emate epea. Interesatuak liburutegian edo udallexean eman behar dute izena martxoaren 31 baino lehen. Prezioa hamabost euro da.

OHARRAK

Herrixa Dantzan

Domekan, 19:00etan, izango da martxoko emanaldia. Patxi Monterok gidatuko du saioa. Sarrera doan da eta parte-hartzea librea. Udalak lagundutako ekimena da.

Kartel lehiaketa

Jaietarako kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 5era arte da. Ehun euroko saria jasoko du irabazleak.

Irteera Eslabara

Goibeko euskaltzaleen topaguneak Eslaban hartuko du Korrikako lekukoa apirilaren 1ean. Eguaztenara arte dago zabalik antolatutako irteerarako izen-ematea.

UDALEKUAK 2017



- Udalekuen onurak
- Udaleku itxiak eta irekiak
- Hizkuntza udalekuak
- 'Udaleku piratak'



- Uztailean ikastaro berriak neska-mutilendako **astero (1, 2, 3 edo 4 aste)**.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak: azterketen prestakuntza (Cambridge, Hizkuntza Eskola)...
- Udako ikastaroak Edinburgon (Eskozian)
- Goizez eta arratsaldez.

Jatorrizko irakasleak!



IDIAMASTER

**Informa
zaitez!**



Neska-mutiko taldea Urtxintxa elkartearen Udaleku piratetan.

Aisialdirako unea heltzen denean, zer egin?

Askotariko ekintzak eskaintzen dituzten udaleku publikoak eta pribatuak daude. Ezaugarri ezberdinak dituztenak. Adinaren eta umearen edo gaztearen gustuen arabera dira. Etxetik gertu edo urrun egin daitezkeenak

Astlehenean hasi zen udaberria eta ekainaren 21ean hasiko da uda. Orduan helduko da opor garaia etxeko txikiendako. Aisialdirako ordu gehiago izango dituzte, baina gurasoek lanean jarraituko dute. Eta, opor sasoi guztietan moduan, zalantzak eta kezak sortzen dira. "Zer egin umeekin?", hori da guraso askok

egiten duten galdera. Bada, zorionez, galdera horrek badu erantzuna: udalekuak. Uda parteko kanpalekuak. Atzerrira hizkuntzak ikastera joatea. Kirola egiteko eskaintza.

Aukera 'handiegia'

Horrenbeste zabaldu da udalekuen eskaintza, askok ikasturtearekin batera egiten dute

deialdia. Irailean, hurrengo urteko ekainerako edo uztaileko matrikula egiten dute. Eta zergatik egin horrenbesteko aurrerapenarekin? Plazak bukatu egiten direlako. Aukera handia da. Akaso, larregiko handia.

Interneten sartu eta bilatzaillean Udalekuak berba sartu ahalaz bat irtetzen den zerrenda oso luzea da. Eta orduan sortzen da

bigarren zalantza gurasoendako. Zein aukeratu? Nora bideratu umea?

Horren erantzuna bi irizpideren arabera izan daiteke: umek dituen gustuen arabera edo eskaintzak duen prezioaren arabera.

Prestakuntza eta aisialdia

Udalekuen helburu nagusiak prestakuntza eta aisialdia dira. Naturaz inguratuta edo herriguneetan dauden eraikinetan elkartzen dira neska-mutikoak, begirale batzuen zaintzapean. Eskaintza bakoitzak duen iraupenaren arabera, askotariko ekintzak egiten dituzte. Udalekuak duen ezaugarrien arabera, oso bestelakoak dira horiek. Kirol konkretu baten inguruan egiten direnek ikastaro trinkoen egitura izaten dute. Kirola bera alde teorikotik eta praktikotik lantzen dute. Normalean, ikas-

turtean zehar umek lantzen duen kirol modalitate bera izaten da. Kirolaren diziplina horri bestelako jarduerak gehitzen dizkiote.

Etxetik gertu

Gurasoek gertuen duten eskaintza udal udalekuak dira. Uztailan egiten dituzte eta hilabete irauten dute. Debagoienan, herri guztietan dago eskaintza hori. Begiraleek prestakuntza berezia izaten dute umeekin ibiltzeko.

Etxetik gertu hasita, nahi beste aldendu daitezke neska-mutikoak. Euskal Herrian, Espainiako Estatuan, Europan eta atzerrian. Gazteenak etxetik gertu geratzen dira. Nerabeak, berriz, urrutiago joaten dira.

Europara, turismoa egitera

Udalekuak modan ipini zirenean, gehienek atzerrira joateko aprobetxatu zuten. AEBetara edo Londresera ingelesa ikastera joateko edo umek zaintzera joan, eta, bide batez, hango jatorrizko hizkuntza barneratu. Azken horrek aukera ematen zuen hango egonaldia bertako familia baten etxean egiteko, eta familiaren egunerokoa murgiltzeko. Egonaldi horiek hilabete osokoak edo bat baino gehiagokoak izaten ziren.

Nerabeek duten beste aukera bat da Interrail delako tren hartu eta Europan zehar bidaiatu. Kasu horretan, hainbat leku eta kultura ezagutzeko aukera

ZER EGIN UMEEKIN? ZORIONEZ GALDERA HORREK BADU ERANTZUNA: UDALEKUAK

- Ingeles ikastaroak atzerrian gazteentzat udaran begiraleekin.
- Ikasturtea Irlandan
- Ingeles ikastaroak helduentzat

Inglaterra, Irlanda, Estatu Batuak, Kanada...

www.emy.org

EMY Bidaiak - Plaza Ferrerías 18 - 20011 San Sebastián - Tel. 943 46 30 99 - info@emy.org

Udalekuen onurak

Udalekuen harira, konturatu naiz nahi beste udaleku mota daudela. Eskaeraren arabera diseinatutakoak: irekiak, itxiak, euskaraz, ele bitan, atzeriko hizkuntzan, uretakoak, naturan murgildutakoak, kirol guztietakoak, eskulanetakoak, familiarendako direnak, edo guraso bakarreko familiarendakoak. Izugarriko aukera dago, eta, bakoitzak bere modalitateak dituen onurak azaltzen ditu: jolasa, ondo pasatzea, elkarbizitza eta autonomia lantzea, besteak beste.

Eskaeraren arabera! Nork egiten du eskaera? Oso garrantzitsua da gurasoek kontzientzia hartzea zelan eta zertarako bidaltzen dituzten umeak udalekuetara: benetan pentsatuz onura horiek guztiak aprobetxatuko dituela; eskola bukatzean umeak nonbaiten edukitzeko; kontziliaziarako beste aukerarik ez dagoelako... Garrantzitsua da, horren arabera izango dalako

gurasoen gogobetetasuna ere. Eta horren arabera izango delako gurasoek eta umeek egingo dute balorazioa.



Enara Agirre, psikologoa.

Egoera zailekin zer egin?

Oso kontuan izan beharreko beste kontu bat faltan igarri dut: informazio-orrietan ez dut irakurri ze pasatzen den udalekuetan umeendako zailak edo gogorak diren egoerak bizitzea tokatzen denean. Horren aurrean, lan nola egiten duten. Udaleku itxietan, dei edo gutun bidez gurasoekin egoteko aukera dago, bai. Baina, eta, gauetako beldurrak, zailtasunak eta behar bereziak, nola kudeatzen dira? Ze

laguntza eskaintzen da? Umeek oso garbi izan behar dute hori guztiori udalekuetara lasai joateko.

Egunerokotasun ezberdina

Sarri, aspektu positiboak bakarrik aurkezten dira. Udalekuetara joatea erronka handia da umeendako. Espazio, zaintzaile-hezitzaile eta lagun berriak, egunerokotasunean funtzionatzeko era ezberdina... Eta umeak horietara guztietara egokitzerakoan: ziurtasunik ezak, zailtasunak, beldurrak, zirrarak, ezinegona, ilusioak eta egokitze era infinituak –umeak beste– agertzen dira. Horregatik da garrantzitsua udalekuetan gerta daitezkeen egoera delikatu hauei euren tokia eta garrantzia ematea, baita izena jartzea ere: erronka berri horren aurrean euren ausardia eta onarpen guztiarekin aurkeztu ahal izateko.

dute. Berezi, turismoari begira egiten diren *ihesaldiak* izaten dira. Europa alderik alde ezagutzeko aukera ematen duen tren.

Foru aldundiekin

Orain arte aipatutako eskaintzak, normalean, pribatuak izaten dira. Udalek, kirol elkarteek, enpresa pribatuak, norbana-koek... antolatzen dituztenak.

Beste aukera bat udaleku publikoak izaten dira. Besteak beste, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek antolatzen dituztenak. Adinaren arabera, bitan banatzen dira: 7-13 urte artekoendako *Udalekuak* eta 14-17 artekoendako *Gazte Oporraldiak*.

Udalekuak Hego Euskal Herriko aterpetxeetan antolatzen dira eta *Gazte Oporraldiak*, Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta estatuko nahiz Frantziako beste hainbat tokitan.

Eskaintza zabala da eta gazte informazio bulegoetan eta Internet bidez ikus daitezke txandak, datak, prezioak eta beste-lako informazioa.

Zozketaren menpe

Udaleku horiek duten abantaila prezioa da, merkexegoak direlako. Kontrara, zozketa baten menpe daude interesatuak. Dauden plazak baino neska-mutil gehiagok ematen dutenez izena, plazak zozketatu egiten dira. Neska-mutikoei eskaerak banaka, binaka edo hiruko taldeetan egin dezakete. Eta, plazak esleitzeko orduan, ordura arte udalekuetan parte hartu ez dutenei ematen diete lehentasuna.

Azkenik, 18 eta 30 urte artekoek Gazte Auzolandegietan parte hartzeko aukera dute. Izen-ematea apirillean zabalduko da.



Gazteak futbolekin jokatu udalekuetan.



EMY udalekuetako gazte taldea Niagarako ur-jauzietan.



Bi gazte Interrail trenean Europan barrena bidaiatzen.

Udalekuak

Izen-ematea: apirilaren 31k maiatzaren 12ra

Udaleku irekiak
UZTAILAK 3-21
2-12 urte
Asteka edo hiru aste

ZINGIRA ORIO
UZTAILAK 1-10
DBH 1-2
30 plaza

Kosta da kosta
UZTAILAK 8-19
DBH 3-4
30 plaza

OZALETA
UZTAILAK 11-20
DBH 1-2
30 plaza

ASKIZU GELARIA
UZTAILAK 2-9
LH 4-5-6
25 plaza

NAFARROA ETORBIDEA 23 1.SOLAIRUA. 20500 ARRASATE. Tf: 943795446. www.txatxilipurdi.eus

txatxilipurdi



Gaztetxoak Udaleku Piratetan.

Pirata izateko aukera ederra udalekuetan

'Udaleku piratak' dira Urtxintxak eskaintzen dituen udalekuak. Horietan, gaztetxoenek ingurumenarekiko errespetua, harreman osasuntsuak eta euskara sustatzen duten hainbat ekintza egiten dituzte: itsasontzian ibili, txangoak eta jolasak, esaterako

Udaleku piratak dira Urtxintxak antolatzen dituen udalekuak. Uda osoan zehar izan ohi dira; aurten, ekainaren 26an hasiko dira eta irailaren 2an emango zaie amaiera. Txanda bakoitzeko 40-44 umek eman dute izena eta 6 eta 12 urte arteko gazteek parte hartu dezakete. Betiere, adin tarte horietako umeak nahastuta. *Udaleku piratak* Pasai Donibane Arrokaundieta aterpetxean antolatzen dituzte eta *Piraten etxea* izena eman diote. Hain zuzen ere, begiraleak dira piratak, eta helburua da gaztetxoak piraten bizitzan murgiltzea eta, era berean, pirata bilakatzea. Urtero berrikuntza bat izaten dute, eta, aurten, Maixa Dortoka izango da umei ongietorria emango diena. Dortokarekin misterio bat gertatuko da eta umetxoek hori argitu beharko dute. Horrez gainera, udaleku horietan askotariko ekintzak egiten dituzte: Pasaia Donibane eza-gutu, itsasontzian ibili, Hondarribian surf padel eta mota horretako ekintzak egin, mendi txangoak, eta abar. Horiek

guztiak ingurumenaren eza-gutza sustatzeko eginak daude, hori baita Urtxintxaren helburuetako bat; jolasez ere baliatzen dira helburu hori lortzeko.

Euskara eta harremana

Bi horiek indartzea ere bada *Udaleku piraten* jomuga. Egonaldi osasuntsu eta alaiaren aldekoak dira eta harremanak indartzea funtsezkoa zaie horretarako. Aisialdia euskaraz sustatzea ere bada euren xedea, eta, horregatik, euskaraz komunikatzeko espazioa sortu dute. Izen ematea Euskal Herriko ume guztiendako dago zabalik, edozein eremutako umeentzat, hain zuzen ere. Horren abantaila da euren ingurunea ez den zerbaiten berri ematea.

Harremanetan jartzeko

- Mundaiz bidea 8-2.E (Donostia)
- idazkaritza@urtxintxa.eus
- 943 27 00 33



IZATEKO GOZATZEKO GUNE BAT UNE BAT

MAXA dortokaren abentura





8 txanda aukeran...

6 egun piraten altxorra aurkitzeko. Kantauri itsasotik nabigatzeko, piraten ibilbide zirrargarriak ezagutzeko, hondartza eta igerilekura joateko, abenturak irrati uhinetatik hedatzeko...

NON
Arrokaundieta aterpetxean Pasai Donibanen (Gipuzkoan)

NORENTZAT
2005 eta 2010 artean jaiotako haurrentzat

PREZIOA
260 euro

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

www.urtxintxa.eus

943270033




Udan ingelesa ikasteko aukera paregabea

Gaur egun hizkuntzek indar handia dutela argi dago; eta, batez ere, ingelesak. Hori aintzat harturik, Parlance eskolak hizkuntza hori ikasteko aukera ezin hobea eskaintzen du, jada 20 urtez udan antolatzen dituen udalekuei esker

Gaztetxoek ingelesa ikastea da Parlance eskolak urtero antolatzen dituen udalekuen helburu nagusia. Ikaskuntza sustatzeko, giro egokia sortzen ahalegintzen dira, eta, horregatik, ohiko eskolak eman beharrean, jarduera edota proiektu ezberdinak lantzen dituzte; modu horretan, hizkuntzaren praktika azpimarratuta. Hasieran, ordubeteko ohiko eskola teoriko bat ematen da, eta bertan, hainbat gai lantzen dira. Hori ardatz hartuta, jarduera ezberdinak sortzen dituzte. Esaterako, arroparekin lotura duten hitzak irakasten bazaizkie, jakintza teoriko hori

jaso ondoren, talde ezberdinetan, hainbat dendatara joan behar dute eta informazioa eskatu behar dute. Behin informazioa jasota, eskolara bueltatu eta jasotakoa ingelesera itzuli behar dute. Hori da antolatzen den ekintzetako bat. Hala ere, beste hainbat proiektu lantzen dituzte. Eta jolasek

ere presentzia handia dute Parlancen. Gainera, uda dela kontuan izanik, txikiek giro onaz goza dezaten, txangoak ere egiten dituzte; igerilekura, esaterako. Parlanceko zuzendari Eamon Faganen arabera: "Garrantzitsuenak proiektu ezberdinetan murgiltzea da, hori baita ikasteko erarik eraginkorrena. Txikienek azkar ahazten dituzte jasotako eza-gutzak, baina, esperientzia bat bizi badute, hobeto gogoratzen dute".

Jada 20 urte udalekuak antolatzen Uztailean dira Parlanceko udalekuak eta horietan parte har-



Parlanceko udalekuen irakasleak.

tzen duten umeek 6 eta 10 urte artean dituzte. Eskolak astelehenetik ostiralera ematen dira, 10:00etatik 13:00etara, hain zuzen. Hala ere, umeek ez dute zertan uztaile osoa igaro udaleku horietan; izan ere, astebete igaro daiteke bertan, edota hilabete osoa. Aukerak asko dira. Batzuk, adibidez, uztaileko lehenengo eta azken asteetan zehar izaten dira; tartean, gu-

rasoekin oportetara joan ahal izateko. Aurten udaleku horiek uztailearen 3tik 28ra dira eta bi irakasle jardungo dute. Horietako bakoitzak, asko jota, hamabi ikasleko talde bana izango du. Esan beharra dago udalekuotan edozein gaztetxok eman dezakeela izena; ez du zertan eskolako ikaslea izan. Faganen esanetan: "Ume guztiak dago zabalik".

Harremanetan jartzeko

- Ferrerías kalea 26, behea
- parlanceidiomas@gmail.com
- 943 77 06 83
- eta 635 73 51 54



PARLANCE
LANGUAGE SCHOOL

Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre

PLAY ENGLISH FOR CHILDREN

- Eskolak ordu batez eta ekintza eta jokoak bi orduz.
- Astez asteko matrikulaziorako aukera.

Uztailearen 3tik 28ra
Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara

IKASTARO
TRINKOAK
UZTAILEAN

HELDUENTZAKO
IKASTAROAK
IRLANDAN

Parlance Hizkuntza Eskola
Ferrerías kalea 26, behea
943 77 06 83
635 73 51 54

parlanceidiomas@gmail.com • www.parlance-idiomas.com

Jaia eta eskola uztartuz, ingeles udalekuak Idiomaster akademian

Ekintza ludikoen bitartez, ondo pasatuaz ingelesa ikasteko aukera eskaintzen du Jai Skool programak

Arrasateko Idiomaster hizkuntza akademian gustu guztietarako eskaintza daukate uda sasoiaren hizkuntzak ikasteko.

Alde batetik, ikastaro trinkoak dituzte, akademian bertan ematen dituztenak, azterketak prestatzeko, nor bere maila hobetzeko edo bestelako helburuetarako prestatzeko zuzendua.

Bestetik, Jai Skool izeneko programa jarri zuten martxan iaz, eta, izandako arrakasta iku-

sita, aurten ere eskainiko dute. Ingelesa oinarri hartuta, udaleku irekien eran egiten den ikastaroa da, 14 urtera arteko haur eta gaztetxoei zuzendua. "Ekintza desberdinak antolatzen ditugu, mendi irteerak egiten ditugu, herriko kondairak eta historia landu...", azaldu dute Idiomasterkoek. Esaterako, gai bat aitzakia hartuta, horren bueltako irteerak egiten dituzte, eta arlo horri dagokion hiztegia

lantzen dute. Iazko esperientziarekin jendea "oso gustura" geratu zen. Astebeteko ikastaroak dira, baina posible da bi, hiru edo lau astean izena ematea ere.

Bestalde, Edinburgon (Eskozia) ikastaroak antolatzen dituzte udarako, 17 urtetik gorakondako. Hiria erdigunean kokatutako eskola batean izaten da, eta han hainbat ekintza egiten dituzte.

Idiomaster

- Otolara Lizentziaduna 29
- 943 79 07 84
- FB: Idiomaster Arrasate



Idiomasterko lantaldea, akademiaren kanpoaldean.



Kosta ala kosta udalekuan parte hartu duen gazte taldea.

Txatxilipurdiko udalekuetan, aisialdia eta autonomia oinarri

Udaleku irekiak eta itxiak antolatzen dituzte, eta umeen eta gaztetxoaren parte hartzean oinarritzen dira

Txatxilipurdik udaleku irekiak eta itxiak eskaintzen ditu, eta biek ala biek "haurren autonomia, parte hartzea eta askatasuna" bultzatzea dute oinarri. Horregatik, umeek eurek parte hartze zuzena daukate euren aisialdia erabakitzen.

Udaleku irekiei dagokienez, 2-12 urte bitartekoei zuzenduta daude, eta Arrasateko hiru gunetan egiten dituzte: erdigunean, Musakolan eta San Andresen.

Hiru astekoak izaten dira –nahiz eta asteka izena emateko aukera ere baden–, uztailaren 3tik 21era. Eguneroko jarduerak umeek

Txatxilipurdi

- Nafarroa etorbidea, 23.
- Txatxilipurdi.com
- 943 79 54 46

hautatzen dituzte, eta ekintza bereziak ere egiten dituzte: igerilekura irteera, hondartzara, Osintxura gaua pasatzera...

Udaleku itxiei dagokienez, 9-12 urtekoek astebeteko egonaldia egiten dute uztailaren 2tik 9ra Askizun –Zumaia eta Getaria artean–, mendia eta kostaldea batuta. 12-14 urte bitartekoei bi aukera dituzte: uztailaren 1etik 10era Zingira kanpinean –Orio eta Aia artean– egonaldia edo Ozaeta Garaion gunean –11tik 20ra–. Nagusienez (14-16 urte) *Kosta ala kosta* udalekua dute, uztailaren 8tik 19ra bitartean Ozaeta hasi eta Gipuzkoako kostan bukatzen den abenturan.

Udalekuetan izen ematea: apirilaren 3tik maiatzaren 12ra.

EMY, urteetako eskarmentua hizkuntza ikastaroak eskaintzen

Agentzia horretan 32 urte daramatzate udako programak eskaintzen, gertukotasuna eta kalitatea ardatz

EMY agentzian 32 urteko eskarmentua daukate atzerrian kalitatezko hizkuntza ikastaroak eskaintzen. Horren erakusle da urteotan bost bider izendatuak izan direla arlo horretan erreferente den *Study Travel* aldizkariak ematen dituen sarietan, *Europako agentzia izarra* kategorian.

Horretarako, euren zerbitzuaren gertutasunari eta harrera personalizatuari ematen diete

garrantzia, eta horren bidez lortu dute parte hartzaileen fideltasuna. Hala, eskaintzen dituzten egonaldiak eta programak ondo ezagutzen dituzte, eta, parte hartzaileak kurtsuan dauden bitartean, gerta daitekeen edozein arazo ahalik eta lasterren konpontzeaz arduratzen dira. Urteetan egindako lanketa horren ondorioz, "eskolarik eta programarik onenak" eskaintzen dituzte EMY



EMY agentziako lantalde zabala.

EMY

- Donostia: Ferrerías 18.
- Emy.org
- 943 46 30 99.
- info@emy.org

agentzian. "Ez dugu inoiz lanik egiten ezagutzen ez dugun eskola batekin", diote.

Euren eskaintza, gainera, ezin zabalagoa da. Adin guztietako jendearentzat eskaintzen dituzte ikastaroak, hizkuntza

eta maila desberdinetan eta jardura mota guztiekin. Besteak beste, Ingalaterran, Frantzia, Alemanian, Irlandan, Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan eskaintzen dituzte hizkuntza ikastaroak.

Mondragon Lingua, ondo pasatzeko ingelesarekin

Hizkuntza akademia horrek urte askotako esperientzia dauka, eta antolatzen dituzten udalekuen helburua da ume eta gaztetxoak konturatu daitezela ingelesa, ikasgai bat izateaz gain, elkar komunikatzeko eta ondo pasatzeko tresna baliagarria ere badela

Bi motatako udalekuak eskaintzen dituzten Mondragon Lingua: itxiak eta irekiak. Ekainean eta uztailean izaten dira horiek.

Udaleku irekiei dagokienez, Arrasaten eta Oñatin dituzte, Mondragon Linguak herriotan dituen zentroetan. Ekainaren 27tik uztailearen 28ra arte egiten dituzte, eta 4 eta 14 urte bitarteko umeei zuzenduta daude.

09:00etan hasi eta eguerdira arte edo arratsaldeko bostak arte geratzeko aukera daukate neska-mutikoei. Arrasaten, umeei 08:30ean gerturatzeko aukera ere badute, harrera zerbitzua baitaukate. Bertan baz-

kaltzeko aukera ere badaukate. Gosaria ere zentroan bertan egitera gonbidatzen dituzte, Arrasaten zein Oñatin.

Udalekuotan denetarik ekin-tzak egiten dituzte, umeei ondo pasa dezaten: kirola, eskulanak, irteerak, jaialdiak ikuskizunak...

Udaleku itxia, aldiz, Errioxako Santo Domingo de la Calzada

herrian egiten dute, eta 8-14 urte bitartekoei zuzenduta dago.

Bertan, atal akademikoa ere badute; hau da, arlo didaktikoa eta pedagogikoa uztartzen dituzte. Lau ikasleko, jatorrizko ingeles hiztuna den irakasle bat daukate. Eskolez gain, baina, ekintza ludiko ugari ere egiten dituzte: eskalada, igeriketa, mendi bueltak, Logroñora eta Ezkairaira txangoak... Gainera, egonaldiaren bukaeran titulu bat ematen diete parte hartzaileei.

Esperientzia zabala

Mondragon Linguan 30 urteko esperientzia daukate, eta udalekuetan parte hartzen dutenek



Mondragon Linguaren Santo Domingo de la Calzadako udalekuak.

ingelesari "beste buelta bat" emateko aukera eskaintzen dute.

"Umeei ondo pasatzeko, lagunarteko harremanak sendotzeko eta ingelesa, asinatura soil bat baino, komunikatzeko eta ondo pasatzeko tresna bat dela konturatzeko" baliagarriak dira udako egonaldi hauek.

Mondragon Linguaren udalekuetan neska-mutikoen autonomia lantzen dute, baina, betiere,

"oso ondo eramanda" irakasle baten eskutik, zeinek ikusiko duen ume bakoitzak non behar duen errefortzua, integrazioa landuko duen... Hain zuzen, haurrak bere burua babestuta senti dezan eta uneoro lagunduta egon dadin.

Udalekuetan parte hartzeko izen ematea Mondragon Linguako zentroetan zein *on line* egin daiteke: mondragonlingua.com.

Mondragon Lingua

- Arrasaten: Araba etorbidea 4
- Oñatin: Motxon kalea 7
- Mondragonlingua.com

Udalekuak

30 urte baino gehiagoko esperientzia dugu. Zure seme-alabek ezin hobeto pasako dute, ingelesa ikasten duten bitartean.

• Udaleku irekiak

Arrasate eta Oñatiko zentroetan. Lanegunetako goizetan, ingelesa erabiliko dute ekimen dibertigarrien bitartez.

• Udaleku itxiak (Ingeleseko Murgilketak)

Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Ingelesa modu oso naturalean barneratuko dute, egonaldi ahaztezin batean.

• eta askoz gehiago...

Udaleku asko dauzkagu, ordutegi eta data eskaintza zabalarekin.

Informa zaitze zure MONDRAGONLINGUA zentroan:

ARRASATE

Araba etorbidea, 4.
Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon, 7
943 71 60 00

mondragonLingua



HUMANITY AT WORK MONDRAGON



Aukera asko
2-4 aste
uztailean

On line bidez
izena emateko aukera badago:
www.mondragonlingua.com





"Esperientzia oso polita"

Maddi Petreñas eta Janitz Abasolo Txatxilipurdirekin izan ziren iaz udalekuetan, Askizuko aterpetxean, hain zuzen, eta "esperientzia polita" izan zela diote. "Lagun

berriak egin genituen, eta konfiantza giroa egon zen". Kontatu dutenez, denetarik egin zuten: Zumaiara joan, mendian ibili, hondartzan bainatu, boleibolea ibili...



"Oso ondo pasatu genuen"

Parlanceko udalekuetan izan ziren aurreko urtean Garazi Lasa eta Nagore Barandiaran. Bertan izandako esperientzia oso ona izan zela aitortu dute bi gaztetxoek: "Oso ondo pasatu genuen; igerilekura joan ginenean eta kirol ezberdinak praktikatu genituenean, batez ere. Gainera, ingelesarekin lotutako jolasak ere egin genituen. Asko ikasi genuen udalekuetan".



"Ikasi eta ondo pasatzeko"

Mondragon Lingua akademiak antolatzen dituen udaleku irekien argazkia da ondoko hau, eta bertan parte hartu zuten neska-mutikoak ageri dira. "Ondo pasatzeko eta ingelesa hobetzeko" udalekuak dira, eta

jarduera desberdinak egiten dituzte umeeek ikasi eta ondo pasa dezaten: "Marrakziak, irteerak, jaialdiak...". Ingelesa ondo pasatzeko tresna izan daitekeen erakusgarri.

"Errepikatzeko modukoa"

Eugenio Gomez gazteak bi bider hartu du parte EMyk antolatutako ingeles ikastaroetan. 2015ean Los Angelesen (AEB) izan zen eta iaz, berri, Toronton (Kanada). "Lehen urtean primeran ibili nintzen, eta horregatik errepikatu nuen. Bertako lagun gehiengoak ere errepikatu egin du gerora. Jende berria ezagutu nuen, eta asko disfrutatu nuen", dio.



"Irteera politik egin genituen"

Erlaitz Moreno gazteak Idiomaster akademiaren Jai Skool udalekuan hartu zuen parte iaz. "Oso ondo" pasatu zuela dio, eta "irteera politik" egin zituztela: "Adibidez, behin mendira joan ginen, eta mapa batean agertzen ziren mendiak seinatu eta ezagutu genituen. Herensugearen kondaira ere landu genuen, eta Arrasateko gazteluaz gehiago ikasi genuen".



Makalena eta Oinarri elkarteetako kideak lekukoarekin duela bi urteko Korrikan, Udanan behera. GOIENA

Korrika Txikiak hartuko du Handia Oñatin

Bazkaria, musika eta dantza egongo dira, besteak beste, apirilaren 8an Oñatin, Korrika egunean. Giroa, baina, bezperan hasiko da, herriko ikastetxeek prestatuko duten Korrika Txikiarekin. Kilometro batzuk bikoiztu egin dira dagoeneko

Oihana Elortza OÑATI

"Apirilaren 8an pasako da Korrika Oñatitik. 11:30 aldera iritsiko da Udako gainera eta 12:00etan-edo Bidaurreta parera. Zapatuan eta ordu ezin hobean pasako da aurten Korrika guretik eta ez dago aitzakiarik parte ez hartzeko. Ziur gaude jende askok hartuko duela parte", dio Oñatiko Korrika batzordea koordinatzen ari den Josu Zubiak.

Eta batzorde horrek dagoeneko prest du Korrikari ongietorria egiteko egitaraua. "Bezperan, apirilaren 7an, 15:00etan, Korrika Txikia egingo dute hiru ikastetxeek herri barruan. Bukatutakoan, txokolatea eskainiko dute Makalena elkarteetako eta Lizargarate Trikiti Elkarteetako kideak txorimaloekin batera ibiliko dira kalez kale. Egun horretan, gainera, *Batzuk* dokumentala eskainiko dute gaztetxean, eta horren segidan bakarriketa saio bat egongo da Antixena gaztetxean", dio Josu Zubiak.

Udanan behera

Oraingoan ere Udanan behera etorriko da Korrika, eta Oinaztu eta Irazan taldekoek aurreko ordu horiek girotuko dituzte. Apirilaren 8an izango da hori, 11:00etan. "Oñatiko talde batek Udanan lehen lekukoa hartzen duenetik azkena eramaten duen tarte horretan, Korrikako furgonetaren atzetik joango gara oñatiar guztiok. Eta gero, 13:15 aldera, kantu-poteoa egingo dugu Foruen plazatik hasita, trikitilarietara eta Oñatz taldeko dantzarietara. Bazkaria egongo da gaztetxean eta Trikimailu taldeak erromeria eskainiko du. Gaztelekuan, berriz, gazteek eurek antolatutako ekitaldia egongo da, oraindik prestatzen ari di-

MARTXOAREN 30ETIK AURRERA JASO AHAL IZANGO DIRA PETOAK UDALETXEKO SARRERAN

rena. Egitaraua bete osatu dugu herriko eragile ezberdinekin batera. Gainera, autobusa ere antolatu dugu apirilaren 9an Iruñera joateko", adierazi du Oñatiko Korrika batzordeko koordinatzaileak.

Txartelak

Autobusa Bergarako taldearekin batera antolatu dute eta Elorregiko geltokitik aterako da 08:45ean. Itzulera ordua zehazteke dute oraindik. Joan gura duenak izena eman behar du Boga, Ona edo Izarraitz tabernan. Hamar euro da txartela.

Bazkarirako txartelak ere hiru taberna horietan daude dagoeneko salgai: hamar eurotan langileendako eta zortzi eurotan ikasle eta langabeendako. Antixena gaztetxean izango da herri bazkaria.

Kilometro salmentari dago-kionez, Zubiak adierazi du "oso ondo" doala, "herri luzea da Oñati eta batzuk dagoeneko bikoiztu egin ditugu. Pozik gaude".

Udaleku irekietan begirale aritzeko izen-ematea zabalik

Udaletxeko bulegoetan bete behar ditu eskuorriak interesa duenak; umeen izen-ematea gaur bukatzen da

O.E. OÑATI

Uztailaren 3tik 28ra izango dira aurtengo udaleku irekiak eta Udalak izen-emate epea zabaldu du begiraleak kontratatzeke. Lau baldintza hauek bete behar ditu interesa duenak: euskaraz ondo moldatzea, eskola graduatua izatea, kontratazio egunean hemezortzi urte beteta izatea eta sexu delitugileen erregistro zentralerako agiri negatiboa aurkeztea. Haurtzaro eta adolezentiaren babeserako agiri hori Bilboko Elkano kalean dagoen lurraldeko gerentzian atera behar da. Formazioa, esperientzia eta EGA agiria, besteak beste, bereziki baloratuko dituzte.

Udalak antolatzen dituen udaleku irekietako begirale izateko izen-ematea hilaren 30ean bukatzen da; udal bulegoetan bete behar dira eskuorriak. Hautatzen

dituen begiraleei hilabeteko lan-kontratua egingo die Udalak, uztailaren 1etik 31ra arte. Aurretik, baina, bi formazio saiotara joan beharko dute.

Umeak apuntatzeko epea lehenago zabaldu zuten eta gaur, martxoak 24, da izena emateko azken eguna. 4 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoak ibiliko dira aurtengo udaleku irekietan. Gaztelekua izango da aurten ere topalekua eta herriko txoko ezberdinetan egingo dituzte ekintzak. Uraren Eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia eta gehiago egingo dituzte aurten ere umeek.

Arte udalekuak

Arte udalekuak ere antolatuko dituzte aurten. Gaztetxoendako eta irakasleendako izen-emateak aurrerago zabalduko dituzte.

Bidegurutzera zabaltzeko sinadurak batzen hasi dira

Oinezkoek dute lehentasuna Zazpibideta edo Sietevidentes bidegurutzera, eta, 12:00etatik aurrera, aste barruan, garraio publikoak eta bizikletak bakarrik pasa daitezke. Mugikortasun Planaren barruan Udala Gobernuak hartutako behin-behineko neurria da, hiru hilabetez egongo da proban, baina hainbat herritarrek erabaki

horren kontrako iritzia eman dute dagoeneko *change.org* webgunearen bitartez. Arrazoen artean herriko beste gune batzuetan zirkulazioa handitu egin dela aipatzen dute sinatzaile batzuek. Diote Euskadi etorbidean eta Aita Lizarralde kalean, esaterako, lehen baino gehiago pilotzen direla autoak. Kultur etxearen ondoko pasabide estuan ere zirkulazioa geldotu egingo dela diote. Udalak ez du adierazpenik egin gura oraindik.

Oñatiko emakumeen lana aztertzeke beka aurkeztuko dute

Oñatiko emakumeek historian zehar egindako ekarpenak –lanean, bizitza sozialean, ekonomian, politikan, kulturaren...– aztertzeke eta argitaratzeko beka emango du Oñatiko Udalak. Selma Huxley izena izango du beka horrek eta eguaztenean, martxoak 29, egingo dute aurkezpenean, 19:00etan, Euskaldun Berria gelan. Aurkezpen horren

barruan, mahai ingurua izango da. "Bi gonbidatu izango ditugu. Irantzu Mendiak *Emakumeon memoria historikoa* lanaz hitz egingo digu eta Amagoia Gurrutxagak ikerketa baten adibidea jarriko digu. *Gerra gauza alua da* hartuko du hizpide", azaldu du Berdintasun teknikari Maitane Iribarrek.

Ikerketaren iraupena urtebetekoa izango da eta GAOari argitaratzen denetik 30 eguneko epea egongo da proposamenak aurkezteko.



Hotz Oñatik hurrengo asteburuan egingo duen bilketarako kaxak ere lokal horretan dituzte orain. O.E.

Beste lokal batean batuko dituzte arropak

Hermansoloña elkarteak Bidebarrietan duen lokala behar du Udalak, Goribar auzoko artxiboa egoitza horretara pasatzeko. Arropak, jostailuak eta oinetakoak biltzeko proiektuak, baina, aurrera jarraituko du: lokal bila ari dira orain elkarrekin

Oihana Elortza OÑATI

Hermansoloña elkarteak erabiltzen duen Bidebarrietako lokala Udalarena da eta artxiborako behar du orain egoitza hori Udalak. "Goribar auzoan dagoena ez dago egoera onean. Hezetasun handia dago han eta tokiz aldatzea beharrezkoa da. Aukeretakoa bat da Bidebarrietara ekartzea. Oraindik erabakia ez dago ehuneko ehunean hartuta, baina aukerak handiak dira, egokia da-eta lokal hori. Hala ere, Hermansoloña elkarteak egiten duten lanak jarraipena izan behar duela garbi ikusten dugu guztiok eta ari gara beste lokal batzuk aztertzen", adierazi du alkateak, Mikel Biainek.

Astelehenean egin zuten bilera Udaleko eta Hermansoloña elkarteak ordezkariak gai horri buruz. "Gure proiektuak jarraipena izango duela badakigu. Ziur gaude. Orain, lokal berria non jarri ari gara aztertzen. Udalak Ibarako aldagelak dauden erakina eskaini digu, adibidez. Erdia

Acesmak erabiltzen du, elikagaien bankurako, baina beste erdia hutsik dago. Hala ere, beste lokal batzuk begiratzekotan gelditu gara", dio Hermansoloña elkarteak Jose Antonio Urteagak. Kallean hutsik dauden lokal bat hartzea ere ez du inork baztertzen eta elkarteak ari dira zerrenda egiten. "Egokia izan behar da, herritarrendako erosoia eta zama-lanak egiteko ere arazorik ez duena. Elkartearekin batera ari gara topatzen. Bilatuz gero, Udalak alokairua ordainduko luke", argitu du alkateak.

Lokal egokia topatzean hasiko dira gauzak batetik bestera garratzen. "Denbora tartetxo batean ezingo dugu, agian, ezer jaso, traslodoa egin bitartean.

UDALEKO ARTXIBO ADMINISTRATIBOA DA GORIBARKOA, ETA HEZETASUN ARAZOAK DAUDE

Baina gero, orain arte bezala jarraituko dugu", zehaztu du Jose Antonio Urteagak.

Goribarko artxiboan 1950etik 1990eko hamarkada arteko txosten administratiboak daude. "Paperezko euskarran daude denak. 2003an eraman ziren udaletxetik hara, toki faltagatik", dio udal artxiboko langileak, Izar Salaberriek. Artxibo horretan, gainera, udal brigadako langileek erabiltzen dituzten palak, kuboak, gatz eta bestelako elementuak ere gordetzen dituzte.

16 urte

Hermansoloña elkarteak 2001ean hasi ziren Argentinara arropa batzen. Egun, Oñatiko Caritas elkartearendako batzen dute, lehen bezala, eta horrek du lehentasuna. Gipuzkoako Caritas elkartearendako furgoneta bat edo bi betetzen dituzte hilero. Bospasei lagun artean kudeatzen dute egunerokotasuna, baina premiazko egoeretan 20 baino gehiago elkartzen dira.



Arkada Socialeko Hodei Beitia Oñatiko Elkar Heziko ikasleekin. JAGOBA DOMINGO

Arkada Social, Des-Kontrol eta 20 urteko ibilbidea, 30 minututan

Elkar Heziko ikasleek Hodei Beitia musikariari egindako elkarrizketa Goiena telebistan, hilaren 29an, 21:30ean

J.B. OÑATI

Elkar Heziko Julen Fernandez, Ainhoa Urzelai eta Haritz Olaeta ikasleek gustu handiz elkarrizketatu dute Arkada Social taldeko abeslari Hodei Beitia (Arrasate, 1982). 1997an sortu zenetik, 20 urte egin ditu Arkada Socialek. "Seinale da zerbait ondo egin duzula, gutxienez jendea gustatu zaiola. Alde horretatik, oso pozik gaude", dio Beitia. Urteurren borobila aprobetxatuko dute "zerbait berezia" egiteko: "Bilduma berezi bat egitea abesti zaharrekin, argazki zaharrak ere batuz... Oraindik ez dugu ezer argi, baina zerbait egingo dugu, seguru".

20. urteurrenaren barruko kontzertu berezi batzuk ere aurreratu zituen Beitia; esaterako, maiatzean Tolosan (Frantzia) joko dute, ekainean Bartzelonan eta uztailan aurtun 20 urte egingo dituen eta berezia izango den

Hatortxu Rock jaialdian. Jaialdi horretan Des-Kontrol taldearekin ere igoko da agertokira.

'Arkada'-k eten, Hodei Beitia ez Arkada Socialek gorabeherak izan ditu 20 urteotan; 2003tik 2006ra, adibidez, ez zuten kontzerturik eman. Beitia, baina, ez du etenik izan musika egiten hasi zenetik: "Taldea bat baino gehiago izan dut; Arkada-k utzi zuenean Des-Kontrolen hasi nintzen. Beti izan dut zerbait, musika barik ezingo nintzatekeelako bizi". Eta hor errudunen bat badago, hori anaia Oier da: "Anaiak erakutsi dit dakidana. Des-Kontrolen egon nintzen berekin eta arantza bat nuen, Arkada-n sartu denean kendu dudana. Ni ere nekatuta nengoen baxua jotzen abesti guztiak kantatu beharraz... Horrela denok pozik". Elkarrizketa Goiena telebistan ikusi ahalko da, 21:30ean.

Sexua zergatik egiten dugun gaztekeraz galdetuko du Vegak

Zergatik praktikatzen dugu sexua gaztekeraz? galderarekin etorriko da Oihan Vega bergararra gaur, egubakoitza, Santa Ana aretora. Kilometroak 2017 festaren barruan antolatutako bakarriketa izango da eta 20:00etan hasiko da. Bihar, berriaz, Kilometroak jaia antolatzeko ereduaren gaineko hausnarketa egingo dute gaztekeraz.

la 2.000 lagunek ikusi dute Natur Eskolaren erakusketa

Okilak eta biodibertsitatea erakusketak ia 2.000 ikusle izan ditu. Ikasleekin eta pertsona nagusiekin bisita gidatu bereziak egin dituzte, baina euren kasa joandako herritar asko ere izan dira. Bihar, Bertizko hariztira egingo dute irteera Natur Eskolakoekin, okilak ikustera, eta etzi Pasaia-ko Albaolara. Beintzako Orbela aterpetxean egingo dute lo.



Neska-mutilak patinaje saioan. GOIENA

Udako kirol kanpaina: izen-ematea abiatzear

Guztira, 24 kirol eskaintza jarri dituzte herriko neska-mutilen eskura, tartean, pala. Lau txanda egongo dira; 1.500 plaza daude. Zozketaz antolatuko dituzte izen-emateko hitzorduak eta aurre-inskripzioak astelehenetik eguaztenera egin beharko dira

Iker Oñate OÑATI

Aurreko urteetan bezala, lau txandatan banatu dituzte kirol eskaintzak. Lehen biek dute eskaintza zabalena, era guztietako 22 aukera dituzte. Horien artean dira, besteak beste, *zumba*, aquaerobika, waterpolo eta gazte spinninga. Hirugarren eta laugarren txandek, berriz, bi kirol aukera eskainiko dituzte: igeriketa eta ur jolasak.

Pala, neskei begira

Aurten, berrikuntza gisa, neskei begira diseinatu eta eraiki den eskaintza dakar udako kirol kanpainak: pala. "Beste herri batzuetan neska askok dihardute palan, eta hemen ez. Hor ikusi dugu hutsunea, eta arazoari irtenbidea emateko bitartekoak jartzeari ekin diogu", dio Oskar Carrascalek, Udaleko Kirol teknikariak. Dena den, ez dira neskei soilik bideraturiko plazak izango. "Edonork, neska edo mutil izan, du palan apuntatzeko aukera", argitu du.

Bestetik, erraketa kirol eta squash txapelketak egingo dituzte. "Gainerako kasuetan, kirola bera ikasi eta lantzea da xedea; txapelketen kasuan, baina, ohiko egitura eta helburuetatik harago, ondo pasatzeari eman diogu garrantzia", azaldu du Carrascalek.

Larrañako kirol instalazioak

Aurten, udako kirol kanpainak Larrañako instalazioak baliatuko ditu lehenengoz; bertan egingo dute multikirola. Kiroldegian sortzen den saturazioari aurre egiteaz aparte, Larrañako instalazioek eskaintzen duten kirol aniztasunerako aukera aprobetxatu nahi dute arduradunek. "Bere berezitasunak

AURTEN, UDAKO KIROL KANPAINAK LARRAÑAKO INSTALAZIOAK BALIATUKO DITU

ditu: belar artifiziala duen futbol zelaiaz aparte, pilotalekua eta kirol anitzeko kantxa txiki bat eskaintzen dizkio erabilitzaileari", azpimarratu du Carrascalek.

Haren esanetan, "ohiko zein ezohiko" kirolak eskainiko ditu multikirolak. Horri dagokionez, tartean, boleibolaz, pilota jokoez, material alternatiboekin sorturiko jolasez eta eurek proposaturiko ekintzez gozatzeko aukera izango dute neska-mutilek.

Larrañako kirol instalazioak

Zozketa bidez antolatuko dituzte behin betiko izen-ematerako hitzorduak, martxoaren 30ean, eguenean. Oñatiko Udalaren webgunean eta kiroldegiko iragarki taulan jakinaraziko dituzte emaitzak. Horretarako, lehenik, aurre-inskripzio orria helarazi beharko da kiroldegira, martxoaren 27 eta 29 bitartean (09:00-13:30 eta 15:00-19:00). Behin betiko izen-emateak, aldiz, apirilaren 3tik 7ra izango dira.



Proiektuan parte hartu duten umeek aurkeztu dute ipuina, antzeztuz. AMAIA TXINTXURRETA

'Ipuin ibiltaria' haurren liburutegian dago, maileguan

Herriko hamabi familiak hartu dute parte proiektuan, hamazazpi umek. Testua eta marrazkiak ditu

O.E. OÑATI

Guraso baten ekimenetik sortu da *Ipuin ibiltaria*. Sormena, hiru ikastetxeak eta irakurzaletasuna helburu hartuta, ipuin bat sortzeko proposamena egin zuen Ekiñe Zumetak Udal Liburutegian.

Herriko hamabi familiak hartu dute parte ekimenean, hamazazpi umek guztira. Eurek pentsatu, sortu, dute ipuina. Testuak eta marrazkiak egin dizkiote eta dagoeneko haurren liburutegian dago proiektua, maileguan hartu, etxera eraman eta irakurtzeko. Asteazkenean egin zuten *Ipuin ibiltaria*-ren aurkezpena.

Lur Korta ipuin kontalariak gidatu zuen, proiektuan parte hartu duten umeak eta gurasoak ondoan zituela. Kortak ipuina erakutsi zuen lehendabizi, orritz orri, eta gero hori sortu duten umeek kontatu zuten, idatzitakoa antzeztuz. *Ipuin ibiltaria*-n agertzen diren pertsonaia batzuk irudikatzen, ileordeak eta maskarak jantzi zituzten eta modu horretan antzeztu zuten idatzitako lana.

Proiektuan parte hartu dutenek eta liburutegiko langileek oso ondo baloratu dute ekimena eta ez dute baztertzeko berriz egitea.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Esperantzaren doinua

Emakume musulmanek, hebrearrek eta kristauak *Women wage peace* mugimendua sortu dute Israelen, eta bakerako bideak eraikitzen ari dira. Entzun al duzu albiste hau? Ez da hedabide nagusietan azaldu, baina gertatu da berri ona.

Milaka emakumek, ezkertiar izan edo eskuindar, erlijioso edo laiko, ahotsa jaso du bake hitzarmen iraunkor baten alde, eta guztientzat giza eskubide duinak eskatzeko. *Prayer of the Mothers* abestiaren inguruan bildu dira, elkarri eskuak eta bihotza lotu dizkiote, eta esperantzaren doinua zabaltzen ari dira mundu osoan zehar (<https://youtu.be/YyFM-pWdqrY>).

Emakumeok, izan ere, badugu tokia historian, badugu hitza injustiziaren aurrean, badugu kemena bakea eraikitzean, badugu indarra bizia zaintzean, badugu konfiantza eta esperantza otoitz egitean... Gizonezkoek ere badute tokia on bidean, eta pausoan lagun izateko arrazoi denak ditugula iruditzen zait; ez baikara elkarren etsai, noski, bidelagun baizik.



Hainbat ume eta heldu Ahotik Bihotzera maratoiko ipuinak entzuten. GOIENA

Altxorak kontatzeko eta berreskuratzeko saioa

Laugarrenez egingo da, apirilaren 2an, domeka, Ahotik Bihotzera ipuin maratoia Antzuolan. Herritar eta eragile orori zabaldua dago gonbidapena eta parte hartzeko ez dago zertan ahozkotasan profesionala izan; izen-ematea zabalik dago

Maidar Arregi ANTZUOLA

Galdu ezin diren eta azaleratzea merezi duten istorio, ipuin edo kontakizunei leku egingo zaie apirilaren 2an. Ahozkotasan egungo "bizimoduaren zurrumbiloan" daukan garrantziaz jardungo dute. "Antzuola bereziki herri egokia da horrelako ekimen bat aurrera eramateko. Izan ere, bertakoek, teknikariek edo langileek ahozkotasanaren aldeko apustua egiten dute. Eskolan astero jasotzen dute kontalari baten bisita; eta hori, gero, igarri egiten da", kontatu du Dorleta Kortazar antolatzaile eta ipuin kontalariak.

Aurtengoa laugarrena da eta gaineratu du inurri lana izan dela orain arteko ibilbidea. Pixkanaka errotu den ipuinen festa bilakatu dela dio. "Badoa gorputza hartzen, poliki-poliki. Ibilbide luzeko ekimen gisa aurkeztu genuen Ahotik Bihotzera ipuin maratoia. Gainera, antzularrek badute prestutasuna ipuinak entzuteko eta ohituta

daude ipuinak kontatzera ere. Habia polita da Antzuolako herria", gaineratu du arrasatearrak.

Altxorak berreskuratzeko

Horrelako ekimenei esker, nagusien istorioak berreskuratzeko aukera ere izaten da. "Iaz, erretiratuen elkartetik etorri ziren eta izugarri istorio ederrak kontatu zizkiguten. Askotan pentsatzen dugu txikitzen kontatzen dizkiguten istorioak ez direla garrantzitsuak, baina sekulako altxorak dira. Iaz, esaterako, Antzuolako baserri, leku eta pertsonaien inguruko istorioak kontatu zizkiguten. Ezezagunak zirenak eta soilik etxe horretan zekizkitenak. Sekulako aurkikuntza izan zen".

"IAZ, EZEZAGUNAK ZIREN HERRIKO BASERRIETAKO ETA LEKUETAKO ISTORIOAK KONTATU ZITUZTEN"

Edonork parte hartu dezake

Parte hartzeko baldintza bakarra da ezin dela irakurri. "8-10 minutuko ipuin bat, txikitako pasarte bat, irakurritako istorioa, poesia, bertsoa, txistea... ahozkotasa ipuina baino gehiago dela ulertzen dugu eta".

Kortazarrek dio gure aitona-amonek eta gurasoek ohituta zeudela kontakizunak entzuterako. "Eguneko zereginak bukatzean batzen ziren eta geratzeko tarte hartzen zuten elkar entzunez. Nik uste dut horren garrantziaz ere ohartzen hasiak garela".

Egun osoko festa

Ahotik Bihotzera ekimena apirilaren 2an egingo da. 13:00etatik 14:30era, ipuin eta bertso-potea egingo dute herriko tabernetan zehar. "Eguerdian giro oso ederra eta gertukoa sortzen da". 18:30ean, ipuin eta bertso maratoia egingo da Torresoroan. Izena eman gura dutenek kultura@antzuola.eus helbidera idatzi dezakete.



Oxel Apraiz Billabonari sartutako gola ospatzen Eztalan. IMANOL SORIANO

"Giro polita" sortu du futbol taldeak herritarren artean

Lehen postuari eutsi gura badiote, antzularrek irabazi egin beharko dute biharko partidua, Eztalan, etxean

M.A. ANTZUOLA

Pasa den asteburuan, Mutrikur aurka, aukera gutxiko partidua bizi izan zuten antzularrek, eta gogorra. Baina lider izateari eutsi diote. "Antzuolak lidergoa mantentzen du, Billabonarekin berdinduta dago eta. Zarautz hirugarren dago eta gerturatu egin da, hiru puntura. Gauzak estu jarri dira eta orain da garra eta indarra erakusteko momentua", azaldu du AKEko Mikel Kerexeta lehendakariak.

Animo aldetik taldea oso ondo dagoela gaineratu du Kerexetak. Izan ere, oso denboraldi ona

egiten ari dira. Gainera, "futbolearen disfrutatzen" ari dira.

"Herrian giro polita sortu dute; azken bi urteetan taldea mailaz bi aldiz jaitsi dela kontuan izanda ekipoa lehen postuan ikustea eta, gainera, Antzuolako jokalariekin, pozgarria da".

Helburua garbia dela dio: iguera lortzea. "Partiduz partidu hauspotzen joan behar den ametsa da. Horretarako, bihar, Eztalan, Landetxari irabaztea komeni da. Igoera faseko seigarren garaipena izango litzateke jarraian". Izan ere, Eztalan partidua guztiak irabazi dituzte.

OHARRAK

Beldurrezko filmen emanaldia

Fantasiatzko eta beldurrezko film laburren emanaldia eskainiko da domekan, martxoak 26, Torresoroa aretoan. 16 urtetik gorakoendako da eta 18:30ean hasiko da emanaldia.

Herriko abesbatza biziberrituz

Erretiratu talde batek bultzatuta, berriro indartu gura dute abesbatza. Hala, eguenero, 19:00etan entseguak egingo dituzte udaletxeko areto nagusian, eta herritar oro dago gonbidatuta.

Landatxopeko batzar orokorra

Apirilaren 1ean, zapatua, Landatxopek urteko batzar orokorra egingo du. Urteko balantzea egiteaz gain, beste hainbat gai jorratuko dituzte: gai ekonomikoak eta egitarauari dagozkionak, hain zuzen ere. Batzarra 17:00etan Olarango aretoan egingo da.

Korrikako bazkarirako txartelak salgai

Apirilaren 7an, egubakoitza, herri afaria egingo dute pilotalekuan. Txartelak salgai daude -15 euro helduek eta 11 euro haurrek-. Herriko tabernetan eros daitezke. Korrika apirilaren 8an pasako da Antzuolatik, 01:00 aldera, eta Zumarragarantz abiatuko da.



Arrolako mendizaleak Kanpazarren 1972an. ARROLA

Mendiaz gozatzeko aukera eta modu ezberdinak Mendi Astean

Martxoaren 28tik 30era bitartean, kirolaz, abenturaz eta paisaia zoragarriez gozatzeko aukera izango da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere Arrola Mendi taldeak Mendi Astea antolatu du. "Mendi asteen zehar herritarrei mendia inguruko eskaintza kulturala eskaini nahi diegu; Arrolak urtean zehar egiten dituen irteeren osagarri da Mendi Astea. Iazko Mendi Astea oso arrakastatsua izan zen, eta aurten goan ere bide beretik jotzeko erabakia hartu genuen. Hitzaldiak interesgarriak izango dira. Abentura bizitzeko bi modu ezberdinen isla izango dira", azaldu dute Arrolako kideek.

Egitaraua

Hilaren 28an, Alex Txikon izango da Torresoroan, 19:00etan. Everest aparteko erronka izan dela azaltzera etorriko da.

Hilaren 29an, aldiz, Ugaitz Iturbek Tajikistanera egindako bizikleta zeharkaldiaren gainean jardungo du.

Eta martxoaren 30ean, Bilboko Mendi Tour jaialdiko hiru film onenak ikusteko aukera izango da: *Boys in the Bugs*, *Incognita Patagonia* eta *Jean Troillet, Toujours Aventurier*.

Emanaldi guztiak 19:00etan hasiko dira, Torresoroan.



Arrola taldeak Urbian egindako kanpaldia. ARROLA TALDEA

Urbian, 80ko hamarkadan

Mendira joateko ohiturak aldatu egin direla eta talde txikiagoetan joaten dela diote. "Lehen, zailagoa ere bazen mendira edo kanpaldiak egitera joatea. Arrolari esker, antzularrek bazuten asteburuetan mendi ibilbideak egitera joateko aukera".

Zubia jo duen kamioiaren bila dabilta


Udaleko Hirigintza Saileko Valen Moñuxek dio inork ez daukela datu zehatzik kamioiari buruz: "Ez Ertzaintzak, ez Trafiko Zuzendaritzak, ez Aldundiak... zeharo misterioitsu bilakatu da gaia. Aztertzen ari gara, eta ez dakigu noiz egingo den konponketa". Zubiak kolpe handia badauka ere, ez dago arriskurik.



BERNARDO KORTABARRIA

DEBAGOIENEN LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

JOSU TIJERAREN IBILBIDEA



Josu Tijera gaztea Mekanizatuko erdi-mailako heziketa ziklo bat egiten ari da Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuan. Ikasketak batxilergotik jarraitu beharrean, Lanbide Heziketa aukeratu du ikasketekin jarraitzeko:

Zergatik aukeratu duzu Lanbide Heziketa?

Garbi nuen ez nuela unibertsitatera joan nahi, eta batxilergoa egin nahi ere. Mekanizatu arloa eta tailerra gustatzen zait, eta horregatik aukeratu dut. Aspalditik neukan erabakita Lanbide Heziketa egingo nuela.

Lagunek edota gurasoek zer esan dizute Lanbide Heziketa aukeratzeko?

Nagusia goak diren lagunek ere oso ondo hitz egin didate ikaske-

ta hauei buruz, eta horrek are gehiago animatu nau. Gurasoak ere nire aukeraketarekin ados agertu dira.

Zein ezberdintasun topatu dituzu eskolatik Lanbide Heziketara?

Hemen ez daude hainbeste ikasgai eta liburu. Tailerrera joaten gara, marrazketa egiten dugu, mekanizazio prozesuak eta automatizazioa ikasten ditugu, piezak tresna desberdinekin neurtzen ikasten ari gara... Goiza konturatu gabe pasatzen zaigu!

Gustura zaude egindako aukerarekin?

Bai; ez nuke atzera egingo. Oso gustura nago. Gainera, goi-mailako ziklo batekin jarraitzeko asmoa daukat mekanizazio arloan, gaur egun enpresek maila hori eskatzen dute eta.



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

[f](#) [t](#) [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA





Elena Lete alkatea eta Joseba Aizpurua teknikaria Imara zein Sasoi enpresako ordezkariekin, Ipintzako harmailen aurrean. J. BEREZIARTUA

Estalkia, 145 eserleku eta argitasuna harmailetan

Ipintza futbol zelaiko harmaila berriak apiril amaierarako egongo dira erabilgarri, izan ere, geratzen diren asteotan aulkiak eta teilatua jarri, kristalak muntatu eta itxiturak errematatuko dituzte; hiru sarbide izango ditu, horietako bat kiroldegiko arrapalatik

Jokin Bereziartua BERGARA

Hiru hilabeteko lanen ostean apiril amaieran irekiko dituzte Ipintza futbol zelaiko harmaila berriak. Horixe iragarri du asteon Elena Lete alkateak, *Obretan baina zabalik* ekimenaren barruan Udalak deitutako bisitan. Lanak bukatzeko geratzen diren lau asteetan ez dute uste gora-beherarik izango denik. Lanik zailenak eginda, azken erremateak emango dizkiete Sasoi eraikuntzak enpresako langileek. "Kristalak muntatzea, itxiturak, teilatua eta aulkiak jartzea falta da, askoz gehiago ez", adierazi du obraren zuzendari Josu Aranguren. Proiektua Imara enpresak idatzi zuen; aurrekontu osoa 152.000 euro izan da (BEZ barik).

Sarbideak eta irisgarritasuna

Aulkiak jartzeke daude oraindik, baina 145 eserleku aurreikusten dira. Gainera, harmailak igerilekuetako edo tabernako terrazatik zein futbol zelaitik bertatik izango dute sarbidea. Azken sar-

bide hori harmailen atzealdetik zegoen aurreikusita proiektuan, baina herritarren ekarpenak aintzat hartuta aldatu egin zuten; orain aurrealdeko sartu ahalko da, bi aldeetatik. Eta irisgarritasuna bermatzeko arrapala sartu dute kiroldegitik. Gorpil aulkian Agorrosingo sarrera nagusiko igogailuetatik heldu ahalko da harmailetara. Harmailen atzealdeak bi metro eta erdiko tartea uzten du igerilekuetako guner berdea kiroldegiko aldagelekin lotzeko eta aurrealdean, aldiz, metro eta erdiko tartea dago futbol zelaiarekiko. Aurrealdean metro eta erdiko altuera duen horma bat dago eta laster jarriko diote kristal mardulezko baranda bat. Harmailen

OBREK IRAUN ARTEAN ZELAIA EGUNERO ERABILI AHAL IZATEA BERMATUKO DUTE LANGILEEK

hiru *aurpegiak* kristalezkoak izango dira, ikusgarritasuna eta argitasuna emateko.

Zelaiaren erabilera bermatzea

Proiektuaren baldintza agirietan jasotzen zen obrek iraun artean futbol zelaiko jardunak ez zuela etenik izan behar: "Belar artifizialeko zelai bakarra da Bergaran eta ezinbesteko ikusten genuen eguneroko erabilera bermatzea, hori oso inportantea zen guretako. Obraren antolamendua baldintzatu arren epeen barruan gabiltza", dio alkateak. Futbol zelai libre uzteko Sasoi Eraikuntzak enpresako langileak 17:00ak arte aritzen dira lanean.

Alkateak gogora ekarri duenez, herritarren nahietara eta beharretara egokitu zen proiektua hasieratik: "Jasotako hainbat ekarpenetatik hiru proposamen hartu dira aintzat. Arrapalaren kokalekua aldatu da, atzeko sarbideak aurrealdera pasatu dira eta atzealdean biltegi txiki batzuk egokitu dira".

Natura Eguna domekan, herriko natur-guneak balioan jartzeko

Gorlako kantina inguruan zuhaitz landaketa, umeendako jolasak eta hamarretakoa; oinez edo autobusez igo daiteke

J.B. ARRASATE

Bergarako natur-guneak balioan jartzeko Natura Eguna ospatuko da domekan Gorlan, berriro ere ireki berri den Iturriberriko kantinaren inguruan. Eguraldi iragarpenak onenak ez badira ere, egitarau zabala antolatu dute: Gorlara oinezko igoera (09:00), Gorlara igoera autobusez (10:00), Pagadiko zuhaitzen landaketa eta natura sustatzeko jolasak umeendako (10:30-12:15), eta Udalak jarritako hamarretakoa kantina aurrean (12:15). Goiza boro-biltzeko, Gorlako Igoera txirritularitza probaren amaiera ikusiko dute, 13:00 aldera.

Zuhaitz landaketaren helburua *Pagadi azidofiloa* berreskuratzea izango da, eta, beraz, pagoa izango da gehien landatuko den espeziea; urkiak eta haginak ere landatuko dira. Umeendako jolasen artean Basoko sokatira



Zuhaitz landaketa Gorlan, 2014an. GOIENA

eta Zuhaitz-txapak izango dira protagonista. Gorlara oinez igozteko irteera Pol-Pol taldeak antolatu du, Udal Pilotalekuan parean geratuko dira. Autobusak, berriz, bi bidaiara egingo ditu, 10:00etan eta 10:30ean irtenda autobus geltokitik.

Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak, hilaren 30ean Iralan

Antolaketa prozesuan "arazo txiki" bat izan eta salmenta atebete atzeratu behar izan ostean, Txapa Irratiak eta Xaxau Konpartsak martxoaren 30ean jarriko dituzte salgai Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak. Txartelak Irala kalean erosi ahalko dira (19:30), 12 eurotan. Lau txartel salduko dira gehieze gerturatzen den pertsonako.

Angiozarko Marindao auzoko jaiak, umeen bedeinkapen eta guzti

Domekan, hilak 26, jaiak ospatuko dituzte Angiozarko Marindao auzoan. 12:00etan meza egingo dute eta ondoren, Elixamendi elizako Andra Mari haurtxoari bularra ematen ageri den iruditik eratorritako ohiturari eutsiz, umeak bedeinkatzeko aukera egongo da. Goiza boro-biltzeko, luntxa eta erromeria izango dituzte.

Maite Peña diputatua martxoaren 30ean San Joxepe elkartean

San Joxepe erretiratu elkarteak Maite Peña Gizarte Politiketako foru diputatua gonbidatu du datorren astean hitzaldi bat emateko. Martxoaren 30ean izango da saioa, 19:30ean hasita, San Joxepe elkartearen egoitzan bertan. Gizarte gaien inguruan Diputazioak esku artean dituen lehenetasunen gainen egingo du berba Peñak besteak beste.

OHARRAK

'Oparitu Zuhaitz Bat'

Josu Garitaonandiak aditzera eman duenez, martxoaren 30ean honako gai hauek landuko dira kultura etxean (19:30): *Oparitu Zuhaitz Bat* egitasmoa, kooperatiba eneretikoak, Fiare moduko banku etikoen jardura eta Hondurasko aktibista eta feminista Berta Caceres hil zela bi urte pasatu direla gogora ekarriko dute.

"Jai eredu kontsumistari buelta eman nahi diogu"

NEREA MADARIAGA XAXAU KONPARTSAKO KIDEA

Pentekosten aurretik formazio saioak antolatzeaz gain, jaietan txosnagunetik irten eta kalean presentzia handiagoa izango du Xaxauk aurten ere: "Ateak zabalik ditugu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Nerea Madariagak iragarri duenez, *Xaxau eta formau: jaixak (bir) pentsatzen* izenarekin hiru saio antolatu ditu Xaxau konpartsak gaurko *-Izan Pirata* dokumentala eta solasaldia, 18:00-, apirilaren 5erako eta maiatzaren 6rako, Kartzela Zaharrean. **Nondik dator jaien aurretik formazio saioak antolatzeko ideia?** Jaien antolakuntzan parte hartzen dugunotako bakoitza formatzea oso garrantzitsua da, gero landu nahi den gaia era errazagoan jaietan txertatzeko. Orain arte, landu nahi izan ditugun edukien inguruan ezagutza nahikorik izan ez dugula uste dugu, eta horregatik erabaki dugu aurten formazio saioak jasotzea. Era berean, jaiak herriar orok osatzen ditugunez, saioek irekiak izan behar dute. **Jaiak zertarako birpentsatu?** Jaiak antolatzea ez da egitaraua osatzea bakarrik. Egitarauak logika bat izan behar du eta ba-

lio batzuei lotuta joan behar du. Jaiak birpentsatu egin behar dira, beste gauza asko bezala. Egun, jai eredu zuzenki lotuta dago kontsumismoarekin eta gauarekin; ahal dugun neurrian, horri buelta eman nahi diogu.

Eta zein da Xaxauren jai eredu?

Ekintza parte hartzaileak, parekideak eta euskaldunak bultzatzen dituena. Jai herrikoiak, herritik sortuak herriarentzat. Jaiak ez dira eremu isolatuak eta egungo gizartearen gatazkak islatzen dira; gatazka horiei aurre egiteko herritarron parte hartzea beharrezkoa da eta horregatik jarri behar ditugu bi-tartekoak denon artean. Jaiak beti izango dira ondo pasatzeko, baina ezin dira atzean gelditu egunerokotasuneko gatazkak. Herriko eragileei garrantzi berezia ematen diegu, haiek direlako urtean zehar herria bizirik mantentzen dutenak. Jaiak erakusleho polita dira eragile horriendako.

Ze gai landuko dituzue hurrengo asteetako formazio saioetan?

Nahiko genukeen guztia lantzeko astirik ez dugu. Balio orokorren gaineko hausnarketa batekin hasiko gara, feminismoa moduko gai mamitsu batekin jarraituko dugu eta zikloa amaitzeko jai eredu parte hartzaileen inguruko gogoeta bultzatuko dugu. Helbu-



Madariaga, Xaxaurekin batera, txosnetako edalontziekin topa egiten. XAXAU KONPARTSA

ru orokorra da jai ereduaren gaineko gogoeta bultzatzea; gero, ideala litzateke ondorioak Bergarako jaietan txertatzea. Hori, baina, ez da egun batetik bestera

gertatzen; hala ere, Xaxaun hausnarketarako bidea hartu dugu eta horretan jarraitzeko asmoa dugu. Esango nuke lan hori hasi dela fruituak ematen.

NIRE USTEZ



SAIOA GARITANO

Bat Zuk, Batzuk

Nekez imajinatuko zuten Korrikaren lehen edizioaren antolatzaileek lasterketa hark lortuko zuen arrakasta. Oraingoan badator berriz Euskal Herritik, herriz herri, hamaika eguneko korrikaldia. Tipi-tapa, pausoz pauso euskararen aldeko oihua barreiatzen duena. 20. Korrika, *Zirkorrika* abestiaren laguntzarekin, animatua, poztasuna eta indarra ematen duen abestia eta mezu argia helarazten duena.

Goiz eta gau, haur, nerabe, gazte eta helduak kilometroak eginez. Badator! Han furgoneta! Horiek guztiak berriz ere biziko ditudala badakit, barrenak mugituko zaizkit eta pauso bat beste baten atzetik jarri, kilometroak egiten joango gara ekintza honetan sinisten dugun euskaltzale guztiok. Herri honetako gizarte mobilizaziorik handiena da zalantza gabe eta modu ikusgarrian, herri honetako hizkuntzak munduan bere lekua izateko eskubidea duela esanez. Euskara, mundura eta arlo guztietara zabaltzeko. Oraindik ez dakit zenbat Korrika izango ditugun aurretik baina 20. edizioko leloa dut gogoan: *Bat Zuk. Zuk* lagunduko duen *Bat* hori izan nahi baduzu, *Bat* gehiago izango gara eta *Batzuk* handiagoa osatuko dugu.

MUSIKAREKIN GOZATZEA NAHI DUZU?
ETOR ZAITEZ MUSIKA ESKOLA EZAGUTZERA!!!
HAUR, GAZTE ZEIN HELDUAK

MUSIKAK EZ DU ADINIK!

ATE IREKIAK
MARTXOAREN 25ean, larunbata
EGUERDIKO 12:00etatik 14:00etara

Bizikleta erdigunean eta iraunkortasuna oinarri

Seigarren urtez antolatu dituzte Bizikleta Jardunaldiak Bergaran, eta, martxoaren 26tik aurrera, herritarren artean haren erabilera eta mugikortasun iraunkorra bultzatzera bideratutako hainbat ekimen izango dira herrian eta ikastetxeetan

Maite Txintxurreta BERGARA

Seigarrenez Bizikleta Jardunaldiak antolatu ditu Udalak herriko ikastetxeekin, Lokatza ziklismo eskolarekin eta Palmerakuak taldearekin elkarlanean, herritarren artean garraibide horren erabilera sustatzeko eta mugikortasun iraunkorraren alde egiteko helburuarekin.

Elena Lete alkateak azaldu duenez, "herritar aktiboen kopurua handitzea" dute xede, eta asmo horren baitan kokatzen da ekimen hori. "Mugikortasun jasagarria nahi badugu, garraio ohiturak erabat aldatzea ezinbestekoa da". Horretarako, autoen eta bestelako ibilgailu pribatuen erabilera gutxitzea gura dute, eta, horren partez, bizikleta bezalako garraio iraunkorren erabilera bultzatu gura dute.

Uriarteren erakustaldia Gorlan

43. Gorlako igoerak emango die hasiera jardunaldiei. Domeka honetan izango da, eta txirringulariak 10:00etan abiatuko dira San Martin plazatik.

Ziklistak bi bider igaroko dira Gorlatik. Bi igoeron aurretik, Markel Uriarte aretxabaletarrak ikuskizun berezia eskainiko du, Gorlara gurpil bakarraren gainean igota. *Everesting Wheelie Challenge*-a prestatzen dihardu, Everesten desnibelari dagokion ibilbidea gurpil bakarrean egitean datzan erronka.

Areto txirringularitza eta BTT

Apirilaren 1ean, areto txirringularitza edo spinningeko eskola magistral bat egingo dute Agorrosinen (17:30). Bertan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da, kirolgunean bertan, 3 euro ordainduta.

Bestalde, hurrengo egunean, apirilaren 2an, Palmerakuak taldekoen eskutik mendi bizikleta irteera izango da. 10:00etan Agorrosindik aterako dira eta Urkuluko urtegiraino joan-eto-



Udaleko langileak eta ordezkariak ikastetxeetako kideekin aurkezpenean. M.T.

ria egingo dute. Irteeraren exigentzia maila egokitu egin dute, eta parte hartu nahi duen edonori dago zuzenduta.

Ikastetxeetako jarduerak

Aurkezpenean aipatu zutenek, antolatzaileek "ezinbesteko" irizten diote mugikortasun iraunkorraren arloan haur eta gazteekin lan egiteari. Horregatik, zenbait ekintza ikastetxetara eroango dituzte.

Ainhoa Perez de Nanclaresek eta Koldo Zubizarretak Asian bizikletaz egindako bidaiaren diaporamak ikusiko dituzte ikasleek, protagonisten aurkezpen eta guzti.

Bestetik, jardunaldiak ixteko, apirilaren 5ean eskolara bizikletaz joateko eguna izango da. Bizikleta jolasak eta marrazki erakusketa izango dituzte, besteak beste. Horrez gain, Markel Uriarterek erakustaldi bat egingo du eta segurtasunari buruzko berbaldia eskainiko du. Izan ere, bizikleta gaineko segurtasunari ere garrantzia eman gura izan diote antolatzaileek, eta "bizikletan ibiltzeko hain beharrezkoak diren kaskoak" oparitu dituzte, adibidez.

Egitaraua

Martxoak 26

- 43. Gorlako igoera (10:00etan San Martin plazatik abiatuta).
- Lasterketak dirauen bitartean, Markel Uriarterek Gorla gurpil bakarraren igoko du.

Martxoak 28 eta 30

- Ainhoa Perez de Nanclaresen eta Koldo Zubizarretaren diaporama emanaldia ikastetxeetan.

Apirilak 1 (17:30)

- Spinningeko eskola magistrala Agorrosinen.

Apirilak 2 (10:00)

- BTT irteera Urkulura.

Apirilak 5

- Eskolara bizikletaz, bizikleta jolasak, Markel Uriarteren erakustaldia eta marrazki erakusketa ikastetxeetan.



Pol-Poleko Hankaluze Trail sailekoak. HKL



Ndank-Ndank elkarteko kideak. NDANK-NDANK



Shotokan karate taldekoak. SHOTOKAN



Bergara Kirol Elkarteko kirol sailekoak. BKE PILOTA SAILA

Korrikari atxikimendua

Udaleko Kirol Sailak egindako deialdiari jarraiki, Bergarako hainbat kirol elkartek Korrikaren aldeko argazkiak atera dituzte; goian agertzen direnek, esate baterako. 20. edizioaren leloa den *BatZuk* dioten pankartekin atera dituzte argazkiak. Otxandion hasi eta Iruñeraino joango da aurtengo Korrika, eta apirilaren 8an goizaldean igaroko da Bergaratik.

Goi mailako eta ezohiko zuzenekoak Zabalotegin

Neighbor-ek joko du gaur Zabalotegin (20:00), antzinako musika egiteaz gain zuzenekoak beste era batera bizitzen jarraitzeko asmoz sortutako taldea: "Musika gogoak ematen digun bezala jotzeko, aurreiritzi, arau eta hitz egin beharrik gabe"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bestelako musika emanaldi batez gozatu gura duen herritarrak horretarako aukera bikaina izango du gaur, egubakoitza, Neighbor taldeak Zabalotegin (20:00) eskainiko duen zuzenekoak hurbiltzen bada. Maite Larburu (Hernani) eta Josh Cheatham (Seattle, AEB) musikariek due-la lau urte sortu zuten taldea Amsterdamgo auzo baten.

Hainbat taldetan antzinako musika jotzeaz gain ostean, Neighbor bikotea osatu zuten libre daudenean eurak konposatutako abestiak jotzeko: "Musika gogoak ematen digun bezala jo ahal izateko; aurreiritzi, arau eta gehie-

gi hitz egin beharrik gabe!". Beranduago batu zen Karlos Taroncher, eta gaur hirukote moduan etorriko dira Zabalotegin. Hainbat instrumentuak joko dituzte: ukelelea, gitarra, baxua, beste sokazko instrumentu batzuk, klarineta, perkusioa... Instrumentu horiekin eta Larbururen ahotsarekin giro berezia sortu ohi dute emanaldietan. "Lozorroan daudenak amets egitera gonbidatuko dituzte", adierazi dute antolatzaileek.

Emanaldi gutxi Euskal Herrian

Gainera, bergararrak zortekoak dira Neighbor ez delako Euskal Herrian sarritan jotzen duen

talde horietako bat. Bihar, zapatua, Ondarroan joko dute. Taldea sortu zutenetik bi disko kaleratu dituzte; 2013an *Ura patrikan* argitaratu zuten; oso kritika onak jaso zituen.

Iaz, berriz, *Hau* izeneko diskoa kaleratu zuten, hamaika kanturekin. "Espero zitekeen bezala, disko dotorea da honako *Hau*, aurrekoaren ezaugarri behinena gordetzeaz gain, areagotu, zorrotz egin dituen", esan zuen, diskoa kaleratu berri zela, Xabier Montoia abeslariak eta idazleak. Gaur Zabalotegi aretoan eskainiko duten kontzertuan bi diskoetako abestiak tartekatuko dituzte.

Udal Musika Banda etzi, Pol-Pol taldearen ereserki eta guzti

Hileroko ohiturari eutsiz eta Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan frontoian (12:30). Berritasun moduan, Pol-Pol Mendizale Taldearen 75. urteurrena dela-eta elkartearen ereserkiarekin irekiko dute kontzertua. Kantu berezi horrez gain, beste hainbat pieza ere joko dituzte.

Esperimentazio artistikoa familian lantzeko tailerra

Bizikasi zerbitzuak, Udalaren laguntzarekin, *Artearen sorkuntza familian* izeneko tailerra antolatuko du apirilaren 2rako, 11:00etatik 13:00etara, Osintxuko ludotekan. 16 urtetik gorakoek hamar euro ordaindu beharko dituzte eta 16 urtetik beherakoek, bost. Izena emateko leku gutxi dago dagoeneko: 943 76 93 94 edo info@bizikasi.com.

Orfeoien 'The Armed Man' obrarako sarrerak salgai

Bergarako Orfeoia apirilaren 1ean Udal Pilotalekuan (20:30) taularatuko duen *The Armed Man* obra ikusteko sarrerak salgai daude hamar eurotan: www.pikupe.com-en, Kutxabanken eta Pikupe Produzioen bulegoan eskura daitezke. Bergarako Orfeoi Gazteak, Intxorta 1937 taldeak eta Candem Town dantza taldeak ere hartuko dute parte obran.

OHARRAK

Musika eskola

Musika eskola ezagutzeko ate irekien jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara. Ume, gazte zein helduendako saioa izango da: proiektzioak ikusi, instrumentuak probatu, tailerrak, ekitaldiak, dantzak... Horiek guztiak ikusteko, entzuteko eta probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.



Astelehenetik ostegunera: 09:30-12:00 / 15:30-18:30
Ostirala: 09:30-18:30
Larunbata: 08:30-12:30
Astelehenetan, asteartetan eta asteazkenetan %20ko eskaintza
Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

Jean Louis David

IBARGARAI 48 • 20570 Bergara • 943 76 22 48 • www.jeanlouisdavid.com



Gorla lehenengo aldiz igotzen hasi aurretik ziklistek 65 kilometro egingo dituzte ordekan, Osintxu eta Zubillaga artean. I.SORIANO

Historiako Gorlako igoera luzeena, domekan

ZIKLISMOA Ziklistek 125 kilometroko lasterketa izango dute etzi; iazkoarekin alderatuta, Gorla lehenengoz igo aurretik orain arte baino kilometro gehiago bete beharko dituzte txirrindulariek; 10:00etan hasiko dira lanean, San Martin plazan

Xabier Urzelai OÑATI

Inoiz baino pedalkada gehiago eman beharko ditu aurtengo Gorlako irabazleak, lasterketa iaz baino 15 kilometro gehiago izango ditu eta. Hala, lasterketa urte gutxitan 90 kilometroko lasterketa izatetik 125 izatera pasa da. Horrek aukera eman du garaipenerako hautagaien artean, igotzaile petoekin bate-

ra, beste profil bateko ziklistak ere borrokan sartzera, eta ez hori bakarrik, taktikoki ere lasterketa irekiagoa izatea ekarri du. Hori bai, esperientziak erakusten du lasterketa irabazteko Gorlako lehenengo igoera –birritan igotzen dute mendatean– aurrean egin behar dela: "Ondoren, Aizpurutxon lo geratzen denak jai du, eta Deskargak ere

min egin dezake", dio Xabier Aranzetak.

Tartean Debagoienekoak

Lehendakari Txapelketan lehian dabilzan taldeen artean, irteera puntuan egongo dira Lokatzatik pasatako Aritz Kortabarria (Eulen) eta Mikel Arregi (Debabarena) antzuolarrak. Eta, Ampok ere ibarreko ordezkariak ditu.

FUTBOLA Aloña Mendik Ordiziaren kontra ezin du barkatu

Aloña Mendiri bala gutxi gertatzen zaizkio errekamaran, baina bai bizitzari eusteko nahikoak. Eta hurrengo bi duela etxean izango ditu jarraian, Azkoagainen, Ordiziaren (domeka, 16:30) eta Hondarribiaren kontra. Aretxabaletak eta Mondrak, ostera, kanpoan jokatu dute; hirugarren dago UDA, eta asteburuan Zarautzen kontra joka-

tuko dute. Eta, laugarren dagoen Mondrak kontrario zuzen Real Unionen zelaietan jokatu du.

Bergarak errekurtsua jarri du

Joan den astean epaileek egindako lanarekin haserre, Bergarak errekurtsua aurkeztu du aste barruan Federazioan, eta Mardarasen kanporaketa izan da motiboa. Etzi Soralezaren kontra jokatu dute, Ezozian. Azkenik, igoera fasean, Antzuolak etxean jokatu du Landetxaren kontra (16:30).

FUTBOLA Arizmendik Ostadar hartuko du domekan etxean

Nahiz eta joan den astean sailkapenean aurrealdean dagoen Anaitasunaren kontra irabazi (2-3), Arizmendiko neskak zapo- re gaziarekin bueltatu ziren Azkoititik, Ane Gartzia kapitainak lesio larria izan zuelako belaunean –ondo errekupe- ratu dadila–. Hala, domekan 12:30ean Ostadar taldea hartuko dute Ibarren.

ERRUGBIA Kanpanzar ARTk Uribealdearen bisita izango du

Lehenengo fasea bezain ondo hasi dute igoera fasea Arrasate Rugby Taldeko mutilek. Dagoeneko bederatzi puntu batu dituzte, eta eurak dira multzoko liderrak. Bada, zapatu arratsaldean, fase berria horren ondo hasi ez duen Uribealdearen bisita izango dute Mojategin (16:30). Uribealdeak oraindik ez du punturik batu.

AUTOMOBILISMOA Xabier 'Purito' Fernandezek lehen garaipena

Joan den asteburuan egin du debuta aurtengo RACE Turismos txapelketan, eta emaitza politik pilatu ditu *Purito*-k. Hasteko, *pole*-a lortu zuen entrenamendu txandan, eta ondorengo bi lasterketetan garaipena eta hirugarren postua poltsikoratu zituen. Hori gutxi ez, eta Arrasatekoa sailkapeneko lehen postuan itzuli da Jaramako zirkuitutik.

"Itzalean egoten den norbaitek ezustea eman dezake domekan"

XABIER ARANZETA LOKATZA TALDEKO KIDEA

Lokatza Ziklismo Eskolako lagunak ohituta daude herriko lasterketa kuttuna antolatzen. Urteak daramatzate horretan –43. edizioa izango da– baina, hala ere, aste berezia izaten da guztiendako, ez da aste normala. Prentsaurrekoak eginda daude, lanak aurreratu daude, bakoitzak badaki non egon behar duen domekan. Lasterketa hastea falta da.

Ze itxura hartzen diozu aurtengo lasterketari?

Eronka bat dugu, eta da Gorlako Igoera eta Espainiako Kopako lasterketa bat, Valentzian egiten duten Momparler memoriale, egun berean izango direla. Hori dela eta, seguruenik lasterketara ez da iazko ziklista kopurua etorriko (204). Eta Espainiako Kopa irabazteko lehian dabilzan taldeak, seguruenik, Valentziara joango dira. Beste batzuk, ordea, batez ere talde euskaldunak, gurera etorriko dira. Beste talde askok banatu egingo dituzte lanak, ziklista batzuk Valentziara



I.S.

bidaliko dituzte eta beste batzuk gurera. Eta noski, ziklisten izenak ez dituzte azken ordura arte esango, beste taldeei pistarik ez emate aldera. Aste barruan, esaterako, Kataluniako, Galiziako eta Kantabriako taldeen deiak jaso ditugu, lasterketara datozela esanaz. Eta, esaterako, Euskadi Fundazioak ere gurean izango dira.

Horrenbestez, amateur mailako oilar batzuk Valentzian izango dira. Horrek handitu egiten du Bergaran irabaz dezaketzen ziklisten zerrenda.

Bai, hala da. Nik uste dut aurreko egongo direla. Hau da, normalean beste batzuek lanean itzalpean ibiltzen direnak aukera polita izan dezakete; igotzaile onak direnak, baina lautadan besteendako lanean indarrak xahutzen dituztenak. Argi horiek. Izan ere, amateur mailako izen nabarmenetako batzuk Valentzian egoteak ekarriko du beste batzuek Gorlagatik apustu egitea.

Ze eragin izango du lasterketa hasieran kilometroak lautadan pilotatzeak?

Domekan Osintxu eta Zubillaga artean ziklistek bi joan-etorri egin beharko dituzte, hor luzatu dugu lasterketa. Horrek aukera emango die gazteei lasterketaz gehiago gozatzeko, lehen kilometro gutxi batzuk egin eta Gorlako lehenengo igoeran atzean geratzen zirelako. Eta horrekin batera, aukerak zabaltzen dira: tropela kontrolpean izan gura duen taldeak azkar joan beharko du, ihesaldi ahaleginak egon daitezke... Ikusteko dago zertan eragingo duen.



Jon Ugarteburu, barneraketa egiten, Valladoliden kontra jokatuako partiduan. I.SORIANO

Badatoz EBAn segitzeko partidu erabakigarriak

SASKIBALOA Domekan (19:00) kategoriari eusteko borrokan kontrario zuzen diren MU eta Ulacia Zarautz izango dira aurrez aurre Iturripen. Zarautzarrak atzerago daude, baina etxekoek datozen sei partiduetatik lau etxetik kanpora jokatuko dituzte

X.U. BERGARA

Liga amaizteko bost jardunaldi geratzen dira, eta mailari eusteko borrokan Mondragon Unibertsitateko mutilek hitzordu garrantzitsua izango dute domekan –Egun eta ordu ezohikoan jokatu dute, instalazioen erabilerak baldintzatuta–. Izan ere, etzi, 19:00etan hasita, sailkapenean azken laugarren dagoen MUK postu bat atzerago dagoen Ulacia Zarautz hartuko du Iturripen: "Sailkapena oso estu dago atzealdeko postuetan. Aurten EBAtik hiru talde jaitsiko dira mailaz, eta laugarren bat ere arriskuan dago, EBA multzo guztietatik irabazitako partida gutxien baditu".

Hala, domekakoa seguruenik zarautzarrak azken aukera izango da, MUK baino bi garaipe gutxiago dituelako. Baina, Etxeko taldeak lesio eta lan kontuengatik bajekin arazoak izan ditu liga hasi denetik, "Eta azken boladan arazo horiek bereziki areagotu dira", adierazi

dute klubetik. Hori horrela, etxekoendako ere final bilakatu da domekako lehia, garaipen batek oxigenoa emango lieke eta: "Batez ere, ligaren azken txanpa gogotsu eta animo berriuekin ekiteko".

Liga amaiera gogorra

Sailkapenak orain erakusten duen egoera engainagarria izan

Sailkapena

Taldea	Puntuak
5. CB. Santurtzi	35
6. Univ. Valladolid	34
7. Pas Pielagos	32
8. Valle de Egues	30
9. Santiago Automo.	29
10. Univ. Burgos	28
11. Mondragon Unib.	28
12. Ulacia Grupo	26
13. Take Tolosa	25
14. Venta de Baños	23

ITURRIA: KIROLAK.NET

daiteke, hemendik eta liga amaierara arte Arrasateko taldeak aldapa gora gogorra izango duelako. Bost partiduetatik bi baino ez dituzte etxean jokatu –Zarautz eta Grupo Santiago– eta Santurtzira, Zizur Nagusira eta Kantabriara egin beharko dute bidaia.

Natra Oñatik "sei final"

Joan den astean hasieratik okertu zitzaion norgehiagoka Oñatik saskibalo taldeari –epaileak bi jokalarikaleratu zituen–, eta Arrik aparteko zailtasun barik irabazi zuen norgehiagoka (53-71). Duela bi jardunaldi zortzi "final" zituzten aurretik, eta orain artean ez dute emaitza onik batu: "Orain sei final geratzen zaizkigu, taldea bizirik dago oraindik baina partidu horietan emaitza ona batu beharko dugu bai ala bai", adierazi du Aitor Ugarte taldeko entrenatzaileak. Hala, domekan (18:00, Bilbo) kontrario zuzena den Berrio Otxoaren kontra jokatu dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Real Union-Mondra

Zapatua. 15:30. Irun.

Zarautz-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Asti.

Aloña Mendi-Ordizia

Domeka. 16:30. Azkoaga.

ERREGIONAL PREFERE.

Getariako Keta-Mondra

Domeka. 17:00. Orio.

Zestoa-Aretxabaleta.

Zapatua. 11:45. Iraeta.

Soraluze-Bergara

Domeka. 17:00. Ezozia.

ERREGIONAL, IGOERA

Bergara-Oiartzun

Domeka. 17:00. Ipintza.

EMAKUMEZKO. IGOERA

Arizmendi-Ostadar

Zapatua. 15:30. Azkoitia.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAP.

Eskoriatza-Aretx.UDA

Zapatua. 18:00. Manuel.

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Euskalduna

Zapatua. 17:15. Musakola

SENIOR EMAKUMEZK.

Anoeta-Eskoriatza

Egub. 21:30. Anoeta.

SASKIBALOA

EBA

MU-Ulacia Grupo

Domeka. 19:00. Iturripen.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Berrio Otxoa-Natra O.

Domeka. 18:00. Bilbo.

GIP. SENIOR MAILA

Dolphins-MU

Zapatua. 18:00. Donosti.

GIP. BIGARREN MAILA

SoraluceBKL-Zarautz

Zapatua. 18:00. Labegar.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Cafes Ait.

Egubako. 20:15. Manuel.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAP.

Urduliz-Ford Mugarri

Zehaztu barik.

Txikipolit-Izarraitz M.

Zehaztu barik.

EUSKADIKO EMAKUME.

Urdaibai-Aloña Mendi

Zehaztu barik.

GIPUZKOAKO TXAP.

Soraluce BKE-Elgoibar

Zapatua. 16:15. Labega.

ZIKLISMOA

LEHENDAKARI TXAP.

Goriako Igoera

Domeka. 10:00. Bergara.



Rezusta, txapelketa barruan azkenekoz Bergaran jokatuako partiduan. I.SORIANO

Lan erdiak egin behar dituzte finalerako txartela eskuratzeko

PILOTA Irribarriak eta Rezustak domekan hamaika tanto egiten badituzte, Eskuz Binakako finalean izango dira

X.U. BERGARA

Kanporaketa gaintzeko berdinketarekin nahikoa duen futbol taldea bezala sentituko dira Irribarria eta Rezusta orain momentuan. Nork daki partidu bat berdintzera jokatzen? Eta, pilota partidu batean lan erdiak eginda –hamaika

tanto– konformatzea? Astean aipatu dute hamaika tanto nahikoa badira ere, buruan 22ra iristea dutela. Olaizolak eta Untoriak, berriz, ezinbestean irabazi behar dute finalean egon gura badute.

Dena erabakitzeaz dago

Bengoetxeak eta Larunbek Elezkanoren eta Zabaletaren kontra jokatu dute bihar. Lehenengoek irabazi egin behar dute, eta domekako emaitzaren zain geratu. Elezkano-Zabaleta bikoteak ere aukerak ditu finalean egoteko, baina zail dute.

BILBOKO FRONTOIAN ERABAKIKO DUTE DOMEKAN ZE BIKOTE EGONGO DEN FINALEAN



2008 / ITZALAK
Iñigo Quintana



2009 / PIN PAN PUN
Andoni de Carlos eta Asier Urbieto



2010 / BIZITZAKO KOPA
Enara Goikoetxea



2011 / HEMEN NAGO
Maialen Sarasua



2012 / EKAITZA
Alberto Gastesi



2013 / DEUS ET MACHINA
Koldo Almandoz



2014 / ZELA TROVKE
Asier Altuna



2015 / ZARAUTZEN EROSI ZUEN
Aitor Arregi



2016 / BERE BIZITZETAKO BAT
Aitor Gametxo

Film laburren tranpolina

Martxoaren 29tik 31ra bitartean egingo dute Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huhezinema euskal film laburren jaialdia; ekitaldi guztiak doan eta publiko guztiarentzako zabalik izango dira, Arkupe kultura etxean

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Iban del Campo Huheziko irakaslea eta hark gidatzen duen hogeik ikasleek osatutako lantaldea buru-belarri ari da hamargarren Huhezinema jaialdiaren puzzlea osatzen. "Epaimahaikideen azken balorazioak jasotzen, gonbidatuendako lekuen erreserbak egiten eta bestelako detalletxoekin ari gara. Askok hazi da; urtero moduan, lehiaketako hiru sailletako lan onenak eskainiko ditugu, baina, urteurrenaren aitzakian, bestelako filmak ikusteko aukera ere izango da: euskarazko film luze bat eta estreinatutako gabeko lan bat daude horien artean. Era berean, Huhezi fakultatearen 40. urteurrenari ere keinua egingo diogu", azaldu du Iban del Campok.

Goi mailako lanen uzta oparora

Oinarrian ikasleek antolatutako zinema jaialdi xumea, poliki-poliki, Euskal Herriko film laburren sortzaileendako erreferentziaz-

ko bihurtu dela diote antolatzaileek: "Hamar ediziotan, 916 lan jaso ditugu –aurten 98– eta orain arte 86 lan saritu ditugu eta beste zortzi sari banatuko ditu-

gu datorren astean. Jasotako kopuruaren bilakaera gorantz joan da. Hasierako urteetan 40 lan inguru jasotzen genituen, baina seigarren edizioan *on line* banaketa sistema jarri genuenean sekulako jauzia izan zen; harrezkero, urtero 100 lan inguru jaso ditugu. Kalitateari dagokionez, ikusi dugu euskal film laburren sormenerako gaitasuna oso anitza eta goi mailakoa dela, lantzen dituzten gaiei eta generoari begiratuta. Azkeneko urteetan lan esperimental asko jaso ditugu, baita emakumeek zuzendutako gehiago ere. Aipatzekoa da, baita ere, aurtengo Basque Culinary sailean unibertsitate kanpoko lan asko jaso ditugula".

Hamar urteotako ikuspegiarekin, jaialdia profesional askoren zirkulua ixteko baliagarria izan dela gaineratu du Del Campok: "Adibide asko ditugu, esaterako, sortzaileei dagokionez: lehenengo film laburra egin, lehiaketa irabazi, eta geroago ikusi dugu zinegile moduan ibilbide oparora egin dutela, eta epaimahaikide moduan izan direla geroago. Ikasleei begiratuta ere hainbat zirkulu itxi dira: lehenengo aldiz jaialdian aurkezle lanak egin eta gaur egun telebistetako aurkezle profesionalak diren hainbat daude. Edota ekoizle profesional moduan *master class*-a ematera etorri zen ikasle ohia... Horrek erakusten digu egiten dugun lanak merezi duela".

Mimoz zaindutako jaialdia

Modu batera edo bestera –lehiakide, antolatzaile, gonbidatu edo epaimahaikide izan–, euskal zinemagintzako onenak izan dira Huhezineman. "Sortzaileen artean izen asko aipa genitzake: Asier Altuna *Kixi*; Koldo Almandoz; Kepa Sojo; Telmo Esnal... *Master class*-ak eman dituztenen artean ere ezagun asko: Fermin Muguruza; Michel Gaztanbide; Moriarti Ekoiztetxeak... Eta hortxe dago epaimahaikideen zerrenda ere: Martxelo Rubio, Begoña del Teso, Gorka Bilbao...".

Urtetik urtera parte-hartzaileen feedback ona jasotzen dute: "Proiektzioak asko zaintzen ditugu eta hori asko estimatzen dute. Era berean, jaialdi txikia izanik, giro atsegina eta etxekoa sortzen da. Herri baten egiteak baditu trabak, baina, orokorrean, abantailak ere asko dira".

Huhezinema jaialdiaren egitaraua

Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango dira saio guztiak; publiko guztiarentzako irekiak eta doan dira.

Martxoak 29

- **10:00-14:00:** Juan Palaciosen *Pedaló* film luzearen emanaldia eta *master class*-a.
- **16:00-17:00:** 40 urtean euskaraz eragiten dokumentalaren aurkezpena (Iñaki Bilbao eta Adrian Alonso). Huhezi fakultatearen ibilbideari buruzkoa.
- **17:00-18:00:** Iazko Donostiako Zinemaldian egin zuten Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketan Orona saria jaso zuten bi film laburren emanaldia.
- **18:00-19:00:** Basque Culinary saileko film laburren emanaldia.

Martxoak 30

- **9:30-13:00:** MUKO ikasleen saileko film laburren emanaldia.
- **16:00-17:00:** Iaz Goiena saria irabazi zuen Aitor Gametxoren *Ilunabarra* film labur berriaren emanaldia eta egilearekin solasaldia.
- **17:00-19:00:** Lehiaketaz kanpo, film laburren emanaldia.
- **19:00-23:00:** Hamargarren urteurrenaren luntxa eta jaia.

Martxoak 31

- **16:00-19:30** Sail Ofizialean hautatutako film laburren emanaldia.
- **20:00-20:30:** Sail guztietako sari banaketa.
- **21:00-22:00:** Luntxa.
- **22:00-24:00:** Mery May musikariaren kontzertua.

Iazko Goiena sariarekin, 'Ilunabarra'

Euskarazko film labur onena saritzen du Goiena sariak. Diru-sariari, iaz, sari praktikoagoa gehitu zioten, Ogeita4 Camera Solution enpresarekin elkarlanean, euskarazko beste film labur bat egiteko kamera profesionalen ekipamenduaren alokairua, hain zuzen ere. Hori horrela, Aitor Gametxok –iazko irabazlea– *Ilunabarra* lana erakutsiko du eguenean, 16:00etan. "Gametxoren lan guztiak bezala, dokumental esperimental da, edo dokumentalaren eta fikzioaren mugan dagoena. Martxoan Iruñeko Punto de Vista jaialdian estreinatutako berri duen *Cicha Symfonia* filmaren jarraipena da. Orain arte ez da inon eskaini, guk ere ez dugu oraindik ikusi; beraz, estreinaldi mundiala guztiontzako!", dio Iban del Campok.

Diziplina ezberdinak 'Kulturizketak' saioan

Harkaitz Cano idazlea eta Manu Muniategiandikoetxea margolari eta eskultorea izango dira datorren asteko Goienako 'Kulturizketa' saioan, martxoaren 30ean, 21:30ean; bertan, artearen gainean hausnartuko dute

Ane Vitoria ARRASATE

Oraingo honetan, Harkaitz Cano idazlea eta Manu Muniategiandikoetxea margolari eta eskultorea elkartu dira *Kulturizketak* saioan. Solasaldi horretan, bi artisten gaur egungo artearen gaineko hausnarketa sakona ikusteko aukera izango da. Artearen panorama aldaketaz, artistek jasotzen duten beste influentzia artistikoez eta teknologia berrien eraginaz mintzatu dira saioan. Eta, noski, nork bere diziplina zein esperientzia kontuan izanik, euren ikuspuntua azalduko dute eguzten gauetan emititzen den telebista saioan.



Manu Muniategiandikoetxea eta Harkaitz Cano Kulturizketak saioko platoon. GOIENA

Azoken panorama aldaketa

Artearen munduan askotariko aldaketak izan direla aitortu dute bi artistek. Eta horietako bat da azoken antolakuntza edota jomuga. Muniategiandikoetxea Arco azokan izan berri da eta bertako funtzionamendua nolako den azaldu du: "Galeristak dira azokara joaten direnak, eta ez artistak. Galeristak dira artisten obrak salgai jartzen dituztenak, erosleekin kontaktuan daudenak. Artistak, normalean, hemendik kanpo izan ohi gara". Canoren ustez, liburuen azoka gehienek antzeko funtzionamendua dute. Izan ere, askotan, agente edota salmentarako bideratuta dauden azokak izan ohi dira: "Azoka asko transakzio lekua izaten dira. Frankfurt-en, esaterako, ez da libururik saltzen, baizik eta egile eskubideak". Hala ere, Durangoko Azokaren garrantzia azpimarratu dute bi artistek elkarriketan. Irakurlearekiko beste harreman zuzen bat bultzatzen duela onartu du Canok. Baina, haren ustez, oso erretikulatu, karratu eta simetrikoa da. Beste azoka batzuetan espazioaren dispozizioa ezberdina dela dio, non artistek garrantzi handiagoa duten. "Espa-

SOLASALDIAN, ARTEAREN GAINEKO HAUSNARKETA SAKONA IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA

zio irregular eta handiagoa sortu beharko litzateke Durangoko Azokan, plaza antzeko bat bilakatuta".

Elkarrekiko influentzia

Beste hainbat alorretan bezala, artearen munduan ere artisten arteko influentziak suertatzen direla uste dute bai Canok, bai Muniategiandikoetxeak. Eta, hain zuzen, luzaroan mintzatu dira horri buruz. Idazleak dio horretan dabilzan profesionalek elkar ezagutzen dutela, onerako eta txarrerako. Eta hori positibotzat hartzen du: "Ekosistema txiki baina parte-hartzaile baten barne gaude". Margolariak, aldiz, bere munduan beste artistekiko harremana hain estua ez dela aitortu du; musikagileekin, esaterako. Hori aldatu egin behar litzatekeela uste du: "Beste modalitate batean sartuz gero,

askotan, artistek beraien papera galtzeko beldurra daukate". Horrez gain, egile eskubideek ere presentzia izan dute elkarriketan.

Teknologia berrien eragina

Teknologia berriek alor guztietan eragin zuzena izan dute azken urteotan, eta horri buruz ere jardun dute bi artistek. Izan ere, eragin handia dutela uste dute biek; edozelan ere, euren lanbideetan ez dituzte teknologia berri asko aplikatzen. Muniategiandikoetxeak onartu du ez dituela askorik erabiltzen; informazioa topatzeko edota irudi edizio programetan saltsan ibiltzeko bakarrik. Baina horien garrantzia nabaria dela azpimarratu du: "Olatuaren gainean gaude. Aldaketa handia gertatu da, baina ez gara horretaz ohartu. Mende aldaketekin iraultzak datoz, eta, honetan, teknologia berriak dira". Canoren ustez, berriz, "banalizazioa" gertatzen ari da, ohiturak erabat aldatu baitira: "Lehen, argazkiak une bat gogoratzeko ateratzen ziren eta orain, aldiz, gizakiaren jokaera konpulsibo baten ondorio dira".

Goiena Klubaren txokoa



BASKONIA - ZALGIRIS

partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu.

Apirilaren 6an, 21:00etan Buesa Arenan jokatuko den partidurako.

PARTE HARTZEKO: APIRILAREN 3RA ARTE.

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "baskonia"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuzaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Goiena Klubaren bazkietza kanpaina



Eñaut eta Irati, irabazlearen seme-alabak, saria jasotzen.

Abenduaren 19an, 20an eta 21ean Arrasateko Eroski Hipermerkatuan izan ginen Goiena Klubeko bazkide berriak egiten. Egun haietan bazkide egin ziren debagoiendar guztien artean zozketa egin genuen, eta Oñatiko Zelai Zabal jatetxean bi pertsonarendako bazkari edo afaria irabazi duena Zorione Jausoro Izurrategi izan da.

Eskerrik asko egun haietan bazkide egin zineten guztioi, eta zuri, Zorione, zorionak eta on egin!

Irabazi bi lagunendako otordua

SORAN ETXEA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...




Bazkietu zaitetz: 2017 (apiriletik aurrera): 40 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA



Juan Pozo Sanchez 

2017ko martxoaren 17an hil zen, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguenoi eskerrik asko, bere emaztearen eta seme-alaben izenean.

Arrasaten, 2017ko martxoaren 24an.

ESKER ONA



Jesus Mari Elkoroberezibar Odriozola 

2017ko martxoaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko martxoaren 24an.

ESKER ONA

Jose Ibarra Azkarate 

2017ko martxoaren 20an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko martxoaren 24an.

ESKER ONA

Juanito Guridi Arriaran 

2017ko martxoaren 12an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko momentu hauetan familiaren ondoan egon eta babesa eman diguzuen guztiei.

Martxoaren 25ean, larunbata, agustindarren elizan, 19:30ean, ondraz izango dira. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko martxoaren 24an.

OROIGARRIA

Antonio Bikuña Igartua 

(Mireia Bikuña lankidearen aita)

2017ko martxoaren 23an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Oñatin, 2017ko martxoaren 24an.

URTEURRENA



Maria Pilar Etxeberria Zangitu 

Rafael Albizuren alarguna

2016ko martxoaren 25ean hil zen, 85 urte zituela.

Beti gure artean.

Lehen urteurreneko meza igandean izango da, martxoaren 26an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi, bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran (Osintxu), 2017ko martxoaren 24an.

HILDAKOAK

- Gerardo Valdezate Salvador.** Arrasaten, 17an. 87 urte.
- Juan Pozo Sanchez.** Arrasaten, martxoaren 17an. 89 urte.
- Jose Mari Iriarte Azurmendi.** Arrasaten, 20an. 85 urte.
- Juana Ibabe Otxoa.** Oñatin, martxoaren 20an. 91 urte.
- Jose Ibarra Azkarate.** Bergaran, martxoaren 20an. 89 urte.
- M. Luisa Lizarralde Arrieta.** Zumaian, 21ean. 89 urte.
- Antonio Bikuña Igartua.** Oñatin, martxoaren 23an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 24	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 25	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 26	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Astelehena, 27	IRIZAR: Ercilla 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 28	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguaztena, 29	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 30	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 24	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 25	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 26	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 27	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 28	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 29	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 30	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 24	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 25	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 26	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 27	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 28	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 29	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 30	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 943 79 22 26	

BERGARA GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 943 76 11 74	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskhlak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.




OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:

NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Asier eta Aintzane**

Asier Bidaburu eta Aintzane Zubizarreta bihar, martxoak 25, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ezkontza egun ederra izan eta zoriontsu izan! Etxekoen eta lagunren partetik".

**2. Historiarako**

Pol-Pol Mendizale Taldearen 75. urteurrena ospatzeko mendi bueltaren barruan, talde argazki ederra atera zuten mendizaleek elkarteari izena ematen dion iturrian.

3. Eider eta Asier

Eider Mentxaka eta Asier Calero martxoaren 10ean ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Zorte on zuen bizitzako ibilbide berri honetan. Lagunen eta familiaren partetik".

**4. Bastoiekin**

San Joxepe erretiratu elkarteak *nordic walking* jarduera probatzeko ikastaroa izan dute. Interesatu batzuk itxaron zerrendan gelditu dira, hurrengorako.

5. Sagardotegira

Oraintxe da sagardotegira joateko sasoa eta horixe egin dute Bergarako gaztetxeo kideek. Hernaniko jai giroa ezagututa bueltatu ziren etxera, autobusean.

6. Nor da nor?

1977an jaiotako arrasatearrek kintada egitea pentsatu dute eta txikitako argazki honekin egin dute izena emateko deialdia. Ezagutuko dute euren burua eta ondokoarena?

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatuz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

7. Agur Barriolari

Abel Barriolak ez du gehiago profesional moduan jokatuko Oñatin eta Aloña Mendiko pilota sailak omenaldia egin dio Zubikoan jokatutako duen azken partiduan.

#DIOTENEZ

TRIKITIA

Oñatin egingo da Debagoieneko Trikitixa Eguna **apirilaren 29an**. Bailarako **400** neska-mutiko baino gehiago elkartzeko dira, batzuk trikitia jotzeko eta beste batzuk **panderoak** astintzeko. Aurten, gainera, **berritasunak** egongo dira: tailerrak, bazkaria, elektrotxaranga, kontzertuak... Artisau, soinu saltzaile eta pandero egileak ere egongo dira. Duela **bederatz** urte egin zen azkeneko aldiz egun hori

Oñatin eta **arrastoa** utzi zuen. Hurrengo hilabete eta urteetan **gorakada** izan zuen instrumentu horiek jotzen dituzten gaztetxeo **kopuruak**.

KORTABARRIA ETA GALDOS

Iñaxio Kortabarría **arrasatearra**, Realeko jokalaria izandakoa, Gasteizen izan zen joan de asteburuan Realaren eta Alavesen arteko **derbia** ikusten. Eusebio Sacristanen taldearen ereserkia

kantatzen ikusi eta entzun zuten alde zaharreko **Aiztogile** kaleko **Txinbo** tabernan. Mikel **Tabares** eta Mikel **Larrañaga** bergararren taberna bailarako askoren **topaleku** izan zen derbia **jokatu** zen egunean.

Iñaki Galdos **oñatiarra** ere, Realzalea bera, Gasteizen zen egun hartan, **bi** ilobarekin. Partidua ikusteko planaz gain, **Matxeten** elkarrekin **bazkaltzekoa** ere egin zuten.

KALAKAN

Arantzazuko **Gandiaga** topalekuan joko du Kalakan taldeak apirilaren 21ean. Kontzertua **akustikoa** izango da.

KORRIKA

Aurtengo Korrika **ez** da bailarako herri guztietatik pasako, baina bailarako herri **guztiek** hartuko dute parte Korrikan. **Aramaiokoak**, esaterako, Korrikaren hasieran egongo dira, **Otxandion**,

martxoaren 29an. Otxandio eta **Legutio** arteko kilometroak egingo dituzte. **Elgetarrak**, berriz, **Nafarroara** joango dira. **Uxue** inguruko kilometro bat erosi du **Goibeko** euskara elkarteak eta 30 lagun inguru joango dira Elgetatik **hara**. Arrasatearrak eta **oñatiarrak** ere ibiliko dira **Ika, ika, ika, hemen dator Korrika oihuka** Nafarroako lurretan. Bi herri horietako kuadrilla banak, behintzat, Nafarroan **erosi** ditu kilometroak.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Oihan Zamakola Agirrezabal
Martxoaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 12 urte! Zorionak, neskatila! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
Garikoitz Izurrategi
Martxoaren 27an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat.



OÑATI
Miren eta Aritz Bermejo
Martxoaren 26an eta apirilaren 2an, 8 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo ospatu zuen eguna.



ARRASATE
Maddi Vicente de la Hoz
Martxoaren 25ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko partetik. Maite zaitugu!



ARRASATE
Irai eta Izei
Ongi etorri, Izei, astelehenian jaio zinen! Eta zorionak, Irai, domekan bi urte betetzen dozuz! Muxu pila, familixa guztiaren partetik!



OÑATI
Danel Palacin Errasti
Martxoaren 25ean, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, Danel! Ondo pasatu zeure lehenengo urtebetetze egunian! Muxuak danon partetik!



OÑATI
Danel Urrutia Garcia de Albeniz
Martxoaren 24an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Maialen Maillaut
Martxoaren 24an, 8 urte. Zorionak eta patxo pila-pila bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Alaitz Leiba Foronda
Martxoaren 24an, 9 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, etxeko partetik.



OÑATI
Nagore Ugarte Kortabarría
Martxoaren 24an, 7 urte. Zorionak, potxola! Egun politta pasatu eta muxu handi bat, familixako danon partetik.



ARETXABALETA
Xabi Antxia
Martxoaren 22an, 10 urte. Zorionak, Xabi. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean .



BERGARA
Uxue Irujo Igarza
Martxoaren 22an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik.



ARRASATE
Irati Zuatzubiskar Zuazua
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak etxeko partetik!



DEBAGOIENA
Hodei Lizarralde Garcia
Martxoaren 22an, urtebete. Zorionak, familixako danon baina, bereziki, Naiatxoren partetik! Maite zaittugu!



ARETXABALETA
Maddi Amozarrain
Martxoaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Maddi! Patxo potolo-potoluak, maite zaittugun danon partetik.



ESKORIATZA
Iraia eta Haizea Diaz de Gereñu
Martxoaren 21ean eta 20an, 11 eta 5 urte. Zorionak familiaren partetik! Muxu handi bat eta ondo-ondo pasatu zure egunak.



BERGARA
Unax Larrea Gantxegi
Martxoaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Unax! Egun berezi hau primeran pasatu! Familixako danen eta, bereziki, Noraren eta Anerren partetik, muxu handi bat!



ARRASATE
Maite Fuentes Jorge
Martxoaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, bihotz-bihotzez, zure lagunaren partetik. Muxu potolo pila bat.



BERGARA
June Arrondo Agirre
Martxoaren 20an, 10 urte. Zorionak, June! Asko maite zaittugu! Ondo pasatu eta patxo pilo bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Ane Emparanza Judez
Martxoaren 19an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Jada 5 urte. Oso ondo pasatu, etxeko guztien partetik, zure urtebetetze festan. Muxu handi bat.



OÑATI
Ane Zumalde Agirre
Martxoaren 17an, urtebete. Zorionak, Ane! Gure neskatilaxoak urtebete. Ondo pasatu eta muxu potolo bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Iker Seijo Fernandez
Martxoaren 16an, 13 urte. Zorionak, Iker! Asko disfrutatu zure eguna, zure familiaren partetik. Musu handi bat.



ANTZUOLA
June Soto Axpe
Martxoaren 15ean, 10 urte. Zorionak, *potolo!* Jadanik 10 urte! Primeran pasatu eguna eta muxu pila-pila bat, etxeko partetik! Muak!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

OÑATI 'El becario' filma

Pake Leku elkartearen eskutik, Nancy Meyersen pelikula *Kultura etxean, 17:30ean.*

ARETXABAETA What A Band taldea

Bergarako taldeak *Soft and strong* diskoa aurkeztuko du. Doan. *Kixkor tabernan, 19:00etan.*

ARETXABAETA Bakarrizketa saioa

Juanjo Albiñana eta Juan Aroca umoristen saioa. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 20:00etan.*

BERGARA Neighbor taldea

Maite Larburuk eta Josh Cheathamek osatzen duten bikoak *Hau* izenburua duen diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

ELGETA Sumision City Blues eta The Riff Truckers taldeak

Rock-and-roll doinuak izango dira nagusi. Ostein, Karba DJaren txanda izango da. Sarrerak, zazpi euro. *Spaloian, 22:00etan.*

OÑATI 'Zergatik praktikatzen dugu sexua gaztelez?'

Oihan Vegaren bakarrizketa Kilometroak 2017ren eskutik. Sarrerak, hamar euro; ikasleendako, berriz, zazpi euro. *Santa Ana aretoan, 22:00etan.*

OÑATI Rukula taldea

Musika instrumentala interpretatzen du Usurbildik eta Lasartetik datorren taldeak. Punk, rock, stoner, metal... estiloak maisuki nahasten dituzte. Kontzertua doan da. *Pako tabernan, 22:45ean.*

ZAPATUA 25

OÑATI Kilometroak Bidea World Coffe

Kilometroak jaiak etorkizunean izan beharko lukeen jai eredu berriaren inguruko hausnarketa prozesua. *Oñatiko gaztelekuan, 09:00etatik 14:00ak arte.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Azken saioa egingo dute San Andres auzoan Txatxilipurdiren eskutik. Txokolatezko krepak, jolas erraldoiak eta aurpegia margotzeko tailerra egingo dituzte, besteak beste, neska-mutikoei. *Aipatutako lekuan, 10:30ean.*

OÑATI 'Zumba' maratona

Bi orduko saioa hainbat monitoreren eskutik; alde zurretik eman behar da izena. 120 lagunendako lekua dago *zumba*-rako. Arratsaldean, berriz, spinning saioa izango da, 140 bizikletarekin. *Zubikoa kiroledegian, 10:00etan.*

ARRASATE Alternatiben Azoka

Korrante kapitalistaren aurka igeri egiten duten hainbat elkarte osatutako azokaren bigarren edizioa egingo dute Arrasaten, eraldaketa soziala bultzatzeko helburuarekin. Parte hartuko duten elkarten eta eragileen artean daude, besteak beste, Urbisuko Etxea produktu ekologikoekin, Goiener, DDT, Koop 57 eta Fiare Banka Etikoa, Olatukoop, La Gallina Vasca, Ekintza Zuzena, MOC, hainbat idazle eta Bagara. *Seber Altuben, 11:30etik iluntzera arte.*

ARRASATE 'Dinbi, danba' erakusketan bisita gidatu berezia

Bixente Barandiaranen omenezko erakusketan bisita. Maiatzera arte dago ikusteko aukera. *Harresi aretoan, 12:00etan.*

ARRASATE 'Zurekin Arrasate euskaldunago'

Arrasate euskalduntzeko kanpainaren azken txanpa egingo dute Arrasateko AED, Ekin Emakumeak eta Txatxilipurdi elkarteek. Herriko hainbat eragilek ere parte hartuko dute, baina herri euskaldunago batean bizi nahi duen edonork izango du ekarpena egiteko aukera. *Seber Altuben, 12:30ean.*

OÑATI Herrixa Kantuan

Txantxiku ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik kantu-jira egingo dute. *Foruen plazan, 12:30ean.*

ARRASATE 'Herri euskalduna eraikitzen goaz'

Txatxilipurdiren, Ekin Emakumeen eta AEDren *Zurekin Arrasate euskaldunago* kanpainaren azken txanpako ekitaldia. Hainbat eragilek eta norbanakok parte hartuko du. *Herriko plazan, 12:30ean.*

BERGARA Piraguekin lehen kontaktua

Beti Bustikoen eskutik kirol hori probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. *Agorrosinen, 16:00etan.*

OÑATI Sorkuntza ikastaroa

Alex Tello gonbidatu du Irazan Antzerki Guneak. 11-16 urte artekoendako ikastaroa. *Eltzian, 16:00etan.*

OÑATI Musika eskolako udaberriko kontzertuak

Dultzaina, haize, Big Band eta Identitaterik Gabe taldeek emanaldiak. *Santa Ana, 19:00etan.*

DOMEKA 26

BERGARA Natura Eguna 2017

Begarako naturaguneak balioan jartzea helburu duen Natura Eguna ospatuko da domekan Gorlan, gaur bertan berriro ere irekiko den Iturberriko kantina inguruan. Eguraldi iragarpenak onenak ez badira ere, egitarau zabala antolatuko dute: oinezko irteera, zuhaitz landaketa, natura sustatzeko jolasak... Gorlako Igoera proba amaitzen ere ikusiko dute, 13:00etan. *Gorlako kantina inguruan, 09:00etan.*

ANTZUOLA Diana

Udalerriko txistulariek herritarrek esnatuko dituzte dianaren bitartez. *Herriko kaleetan, 10:00etan.*

ARRASATE Bisita gidatua

Industrial ondarea izenburuarekin bisita gidatua egiteko aukera izango da, euskaraz. Izena emateko: Biztanleen Arreta Zerbitzua; 943 25 20 00 telefono zenbakia edo *arrasate.eus/dinbidanba*. *Harresi aretoan, 11:00etan.*



DOSPORDOS

ELGETA Sumision City Blues eta The Riff Truckers

Kontzertu indartsua iragarri dute Spaloian. Disko berria aurkeztuko du Sumision City Blues banda gasteiztarrak. Jaialdia 21:00etan hasiko da Nevada eta The Riff Truckers taldeekin. Sarrera zazpi euro da. *Martxoaren 24an, egubakoitza, Spaloian, 22:00etan.*

ESKORIATZA Debagoieneko Mintzalagun Eguna

Atxorrotxera igoko dira Nafarroako Erreinuako gaztelu izandakoaren indusketak bertatik berataraz ezagutzeko. Mendi buelta borobiltzeko, luntxa izango dute, trikitilariak girotutakoa. Eguraldiak laguntzen badu, Atxorrotxan bertan egingo dute, eta, bestela, Eskoriatzako kontzejupean. *Euskaldun Berrien plazan 10:30ean elkartu eta 11:00etan abiatuko dira Atxorrotxera.*

BERGARA Udal Musika Banda

Kontzertua eskainiko du; adibidez, Pol-Pol elkartearen ereserkia interpretatuko du. *Udal Pilotalekuan, 12:30ean.*

OÑATI Film emanaldia

Benito Sansón y los taxis rojos filma emango dute. *Zinema aretoan, 17:00etan.*

ANTZUOLA Fantasiako eta beldurrezko film laburrak

Fantasiako eta beldurrezko film laburren emanaldia: *Kitchen sink*. Alison Maclean; *Surprise!*. Veit Helmer *George Lucas in love*. Joe Nussbaum; *Staplerfahrer Klaus*. Jörg Wagner, Stefan Prehn; *Rare exports Inc*. Jalmari Helander; *Oh my god*. John E. Bryant *Next floor*. Denis Villeneuve; *The centrifuge brain project*. Till NowakNon. 16 urtetik gorakoendako hitzordua. *Torresoroan, 18:30ean.*

BERGARA Laburbira

Film laburren zirkuituak Bergaran egingo du geldialdia. Jardun euskara elkartearen eskutik. *Gaztetxean, 19:00etan.*

ELGETA Herrixa Dantzan, Spaloian

Gidatutako dantzaldia da Herrixa Dantzan; musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutakoa, hain justu ere: sokan, bikoteka, soltean, korroan, taldeka... denetarik egiten dute. Helburua da bertaratzen animatzen diren herritarrek elkarrekin dantzan ondo pasatzea. Dantza gidaria: Patxi Montero arrasatearra da. Laguntzailea: Elgetako Udala. Sarrera doan eta parte-hartzea libre. *Spaloia kafe antzokian, 19:00etan.*

OÑATI Film emanaldia

Es por tu bien filma emango dute. Bi emanaldi egongo dira gaur: 19:30ean bata eta 22:30ean bestea. *Kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.*

ASTELEHENA 27

OÑATI Udaberriko kontzertua

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek eskainiko dute udaberriko kontzertua. Pianoko ikasleek, gitarrakoei, haize taldekoek, prestakuntzakoei... interpretatuko dituzte kantuak. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*



RICKY DAVILA

ESKORIATZA Kirmen Uribe idazleak azken liburua aurkeztuko du *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburua aurkeztuko du. Egiazko pertsonaietan eta gertakarietan oinarritutakoa da, hiru belaunaldiren kronika eginda. Lau zatitan banatzen da: 1927-1943, 1943-1950, 1953-1979 eta 2010-2011. *Martxoaren 29an, eguaztena, Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

BERGARA Feminismoa eta euskara bidaide

Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek hitzaldia egingo dute. Doan da. *Irizar jauregiko 3. solairuan.*

OÑATI 'Es por tu bien' filma

Es por tu bien filma. Gaur ikuslearen eguna da, gainera. *Zinema aretoan, 19:30ean.*

MARTITZENA 28

ANTZUOLA Mendi Astea

Arrola taldeak antolatuta. *Nigan, barnetasunaren heziketa gurasoendako eta helduendako* ekimena. Helburua: norberaren barnetasuna ezagutzea eta hobeto sentitzeko baliabideak eskuratzea. *Olaranen, 18:30etik 20:00etara.*

BERGARA Ipuin kontaketa

Aldo Mendez ipuin kontalari kubatarrarekin saioa helduentzat. *Irizar jauregian, 19:30ean.*

OÑATI Landa inguruneko plastiko bilketa

Batuko den plastiko mota: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, berotegiko plastiko zuria. Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak zehaztu ditu tokiak eta egunak. Horietako lekuren bat aldatu gura izanez gero, honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943-76 25 47.

Tokiak dira: Zanartu, Zuazola inguruan. Murgialdai, Asentsio ermitan. Olabarrietan, autobus geltokian Musika Eskola gainaldean. *Arratsaldez.*

EGUAZTENA 29

ANTZUOLA Mendi Astea

Arrola taldeak antolatuta. Ugaitz Iturbe antzuolarraren emanaldia. *Olaranen.*

ESKORIATZA Jolas tradizionalak

Sokasaltoa, harrapaketa eta betiko jolasak, Tortolis ludotekara bertaraten diren neska-mutikoei. *Luis Ezeiza ikastetxeko kantxara joango dira, 17:00etatik 18:30era.*

ESKORIATZA Kirmen Uribe idazlea

Kirmen Uribe idazle ondarrutarrak bere azken liburua aurkeztuko du: *Elkarrekin esnatzeko ordua*. Egiazko pertsonaietan eta gertakarietan oinarritutako liburua da, Karnele Urresti erizain ondarrutarra eta Txomin Letamendi musikari bilbotarra dira protagonistak. *Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

OÑATI Ikerketa beka aurkezpena eta mahai inguru

Emakumeon memoria historikoa eta gerra gauza alua da. Irantzu Mendia eta Amagoia Gurrutxaga. *Euskaldun Berria gelan, 19:00etan.*

EGUENA 30

BERGARA Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak

Txapa Irratiak eta Xaxau konpartsak aditzera eman dutenez, martxoaren 30ean jarriko dituzte salgai apirilaren 8an ospatuko den Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak, 12 eurotan. Lau txartel salduko dira, gehienez, gerturatzen den pertsonako. *Irala kalea 3an, 19:30ean.*

ESKORIATZA Ipuin kontaketa

Izaskun Mujika kontalariak ipuinak kontatuko ditu 4 urtetik gorako umeendako. *Bibliotekan, 18:00etan.*

BERGARA Kontzertua

Musika Eskolako Big Band taldea. *Ibargarai kalean, 19:00etan.*

ARRASATE Ipuin kontaketa

Haur Liburuaren Eguna ospatzeko Xabier Olasok ipuin kontaketa egingo du Kulturaten. 3-8 urte bitarteko haurrentzat da eta ezinbestekoa da heldu batekin joatea. Saioa euskaraz izango da. *Kulturaten, Bibliotekan, 18:00etatik 19:00etara.*

ARRASATE 'Cyberbullying'-a

Horrenbesteko kezka eragiten duen gaiaren gaineko hitzaldia izango da. *Kultureteko areto nagusian, 18:00etatik 20:00etara.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

50 sombras mas oscuras

Zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.

Benito Sanson y los taxis rojos

Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Es por tu bien

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Benito Sanson y los taxis rojos

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETIA

ARKUPE

Es por tu bien

Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:00.

Batman, la lego película

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

El bar

Zapatua: 17:00.
19:45.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

Manual de un tacaño

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

La bella y la bestia

Zapatua: 17:00.

Bajo la arena

Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

El bar

Domeka: 20:00.

La bella y la bestia

Domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

El bar

Egubakoitza eta domekatik

eguenara: 15:45,

18:00, 20:10, 22:20.

Zapatua: 15:45, 18:00, 20:05, 22:30.

Redencion

Egubakoitzetik eguenara: 16:45, 19:15, 21:45.

La cura del bienestar

Egubakoitzetik eguenara: 16:00, 19:00, 21:50.

La bella y la bestia

Egubakoitzetik eguenara: 15:45, 17:30, 18:20, 19:20, 20:10, 22:00.

La bella y la bestia 3D

Egubakoitzetik eguenara: 16:45.

Kong: la isla de la calavera

Egubakoitzetik eguenara: 16:00, 18:30, 21:00.

CRUDO

Egubakoitzetik eguenara: 22:45.
Astelehenetik eguenara: 17:05.

Es por tu bien

Egubakoitzetik eguenara: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.

El guardian invisible

Egubakoitzetik eguenara: 16:15, 18:50, 21:30.

Logan

Egubakoitzetik eguenara: 19:20, 22:15.
Zapatua: 18:15.

Ballerina

Egubakoitza eta domeka: 17:00.
Zapatua: 16:00.

Batman

Egubakoitza eta domeka: 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 17:05.

La gran muralla

Astelehenetik eguenara: 17:00.

KRITIKA

Incierta gloria ★★★★★

Zuz.: Agusti Villaronga. **Herr.:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Nuria Prims, Marcel Borrás, Oriol Pla.

Bizitzak zauritutako pertsoianak

IÑIGO ZABALA

Agusti Villarongaren filmak ikusi dituenak – *Tras el cristal, El mar, Pa negra*... badaki, bere unibertsoan, giro kaltegarria nagusitzen dela. Pertsonaien arteko harremanak oso bereziak izaten dira: erakarpeta eta higidura, amodio eta gorrotoa nahasten dira. Eta ederki moldatzen da kontatzen dituen istorioetan, gizakiaren alde basatia eta aztoratzailea erabiliaz, ukitu lirikoaren duten istorio itogarriak sortzeko. Aipatutako ezaugarriak *Incierta gloria*-n agertzen badira ere, gaiak eta pertsonaiak ezagunak egiten zaizkigu. Villalongak erabiltzen duen tonua dotorea da, baina neurritsuagoa eta urrunagoa.

Filma Espainiako gerran kokatzen da, Aragoiko

gerra-lekuan, hain zuzen ere. Istorioan goranahia, amodioa, irrika, laguntasuna, gorrotoa eta biziraupena nahasten dira. Herri txiki baten, alargun bat, herrikoen mesprezuak gainditu ostean, hango jabe bihurtu da. Bartzelonatik etorritako ofizial bat alargunarekin sorginduta geratzen da. Hark Bartzelonan utzitako emazteaz eta semeaz arduratzen den lagun min bat du. Sortzen diren istorioek Carmenekin eta Salomerekin badute antz apur bat. Bizitzak guztiak zauritu ditu, eta bakoitzak modu ezberdinean erantzuten du. Baina, azken finean, alde onak baditu bere itzalak eta txarrenak argiak. Horiek filmaren azken eszenan ikusiko dira.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Aktibazio soziala

Euskararen biziberritze prozesuan faktore erabakigarria izan da –eta izango da– hiztun komunitatearen eragina. Oinarri horren gainean eraiki dira hizkuntza politika publikoak eta euskararen antolakuntza soziala.

Azken urteotan aipatzen da prozesua bidegurutzean ote dagoen, bide bila edo apalaldian. Eta arrazoi posibleen artean aipatu izan da apaltzen ari zaigula, baita ere, komunitatearen bizkortasuna euskararekiko.

Baina badaude zantzuak –eta ez gutxi– kontrakoa adierazten dutenak; alegia, euskaltzaleon komunitatearen baitan zerbait potoloa egosten ari dela. Badirudi ez dagoela bakarrik gero eta hiztun potentzial gehiago, baizik eta euskaraz jardun nahi duen hiztun gehiago. Pentsa daiteke ahalduz kolektibo indartsu bat gertatu dela azken urteotan, eta emaitza bistaratzeko lehen urratsetan gaudela, oraingoz ekimen lokaletan.

Hurrengoa da tokiko ekimen arrakastatsuak dinamika orokor bihurtzea, lankidetzan jarrita maila guztietako erakunde publiko nahiz gizartekoak, eta baita euskaltzale norbanakoak; denak euskararen alde aktibatuta. Hori litzateke jauzi berri baterako oinarria. Mugimenduak hasi dira, olatu bat dator!

BUKATZEKO



Sara Salterain eta Lua Zino, Uruguaiako hondartzan. SALTERAIN



Lua Zino eta Sara Salterain, etxean, Montevideon.



Salteraintarrak.



Salteraintar Patricio.

tan pasa... Eta errematatzeko, zera esaten dit: 'Iruñean ere egon behar dugu papera –Korrikaren mezua– irakurtzen dutenean. Bai, amama, jakina badakidala euskaraz dela. Bestela, ze zentzu dauka Korrikak! Ez dute, ba, espainolez irakurriko!'. Beraz, Leintz Gatzagan geratuko gara afari-festan eta biharamunean Iruñerako bidea hartuko dugu", kontatu du Sara Salterainek.

Arrate baseritik Buenos Airesera
Apirilaren 8an, bada, Leintz Gatzagan elkartuko dira jatorriz bertako Arrate baserrikoa den salteraintar familiako bederatzi kide: "Abadiñoko Mila, Donostia-ko sei Salterain eta Lua eta biok; oraingoz, bederatzi Salterain izango gara Korrikan Leintz Gatzagan. Donostiakoak dira Arrate baserrikoak, nigandik eta Patricio-rengandik gertukoena".

Hain justu, Patricio Salterain –Leintz Gatzaga, 1808– izan zen Salterain abizena itsasoz bestaldera eraman zuena, Buenos Airesera eta Montevideora. "Nik dakidanez, Euskal Herritik emigratu zuen bakarra izan zen; salteraintarrak ez dira handik mugitzen!", dio Sarak. "2015ean atek zabaldu zizkidaten Salterain izate hutsagatik. Gipuzkoan edo Bizkaian bizi arren, 90 urtekoengandik hasi eta txikienetaraino, guztiek euskaraz egiten dute. Euskal Herriarekiko eta bertako kulturarekiko maitasun handia igarri nuen. Eta ja 30 urte ez izan arren, erabaki nuen salteraintarren hizkuntza, euskara, ikasi egin behar nuela; eta hala, gure kultura, Euskal Herriko euskaldunon kultura bizirik mantentzen laguntzeko nire kuota xumea gehitu", esplikatu du hark.

Uruguaitik Korrikara euskara aldarrikatzera

Sara Salterainek eta 8 urteko haren loba Lua Zinok martxoaren 30ean hegazkina hartuko dute bizilekua duten Montevideotik Euskal Herrira etorri eta Korrikan parte hartzeko; arbasoen jaioterria den Leintz Gatzagan elkartuko dira familiako bederatzi kide

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Amama, zenbat gustatuko zitzaidan euskalduna izatea, Euskal Herrian jaiotakoa izatea!". 8 urteko Uruguaiako neskatila batek iaz amamari adierazitako sentimendu horrek ederki deskribatzen du Montevideoko Salterain fami-

liak Euskal Herriarekiko eta euskararekiko duen maitasuna. Sara Salterainek (Montevideo, 1960) transmititu dio maitasun hori Lua lobari.

Horren emaitza da martxoaren 31n Bilbora iritsiko direla amama eta loba, Korrika orduantxe


abiatzen da eta. "Abadiñon eta Gernikan pare bat egunez geratu eta gero Donostiara goaz. Korrika apirilaren 4an pasatuko da Donostiatik, baina Luak argi utzi zidan: Leintz Gatzagan egon nahi du; gatzaz zelaz egiten den ikusi, gau bat baino gehiago ber-

20. KORRIKA OTXANDIOTIK ABIATZEA

ZUZENEAN GOIENA TELEBISTAN
MARTXOAK 30, OSTEGUNA, 16:00

goiena
ZU HEMEN ZAUDE





'PUNTUA' ALDIZKARIAK
 100 ZENBAKI.
 ORAINDIK
 JASOTZEN EZ
 BADUZU:
 943 25 05 05
 688 69 00 07

37 "Osagai moduan informazioa eta entretenimendua hartuta astero menu ezberdina, eta gozoa dakarrelako"



TXOMIN MADINA
Kazetaria

42 "Artikuluak, benetan interesgarriak, bertako informazioa euskaraz eta hau guztia prezio onean!"



MARIJO EROSTARBE
Bazkidea

47 "Urrutira joan gabe, hemen duzu altxorra: ezagutu, baloratu, gozatu, parte hartu, zaindu"



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ
Irakaslea eta historialaria

52 "Puntua' etxean jasotzeaz gain, inguruko eta kanpoko saltokietan abantaila ugari lortuko dituzu!"



MIREIA LARRAÑAGA
Goienako komertzial-burua

57 "Etxean irakurtzean sortzen dizkidan sentimentuak direlako: #datsegit eta #damolat"



IBAN ARANZABAL
Goienako zuzendari nagusia

62 "Euskaraz eta euskaratik gozatzeko, harremantzeko, sortzeko, transmititzeko..."



ELENA EGINO LABORDA
Jarduneko langilea

33 "Edukiak gustukoak izateaz gain, txartela erabiltzen dut eta amortizatu egiten dut urteko kuota"



FLOREN ARANA BARANDIARAN
Bazkidea

38 "'Puntua' irakurtzen dut, parekidetasun gaietan bidelagun sentitzen dudalako"



ARANTZA SANTESTEBAN
Komunikazioan aditua

43 "Eskualdeko esparrua gaingitu eta arlo zabalagoetako langak zabaltzen dizkit"



INAZIO ARREGI
Oñatiar euskaltzalea

48 "Irakurritz gozatu, gozatzuz ezagutu, ezagutzuz gozatu, gozatzuz irakurri"



GEAXI EZPELETA
Elgetako liburuzaina

53 "Pertsona bakoitzak bere mundua, 'Puntua'-k pertsona askoren ikuspuntua"



JUAN MARTIN ELEMPURU
Idazlea

58 "Irakurzalea naiz eta liburu gomendioen atala oso gustuko dut"



MADDI ARTZAMENDI
Irakaslea

63 "Naturak eta ingurumen arazoek euskararekin bat egiten duten hurbileko 'Puntua' delako"



IMANOL BIAIN
Oñatiko Natur Eskolako

34 "Bertakoek bertatik bertara eta kalitatez egindako komunikazioa delako"



IÑIGO IÑURRATEGI
Kooperatibista

39 "Irakurketa pausatua eskaintzen dit, puntako diseinuarekin"



JOXE ARANZABAL
Kazetari eta irakasle ohia

44 "Debagoiendarrek munduko txoko askotara hurbiltzen gaituztelako"



ANE IRAZABAL
Kazetaria

49 "Osasuna denontzat garrantzitsua delako. 'Puntua'-k puntu hau modu berezian ukitzen duelako"



ALBERTO GOROSABEL
Odontologoa

54 "Erakargarria da 'Puntua', bisuala, duen tamainagatik eroso, artxibagarria..."



HELENA AZKARRAGAURIZAR
Margolaria

59 "Lekukoa, gertukoa, euskaraz eta mimo, handiz egina dagoelako"



MARKEL IRIZAR
Txirrindularia

64 "Eduki puri-purikoa, ondo eta euskaraz idatzitakoa. Hortxe 'Puntua'-ren borobiltasuna"



UBANE MADERA
Kazetaria eta 'Goiena' aldizkariko erredaktoreburua

35 "Gertuko artisten lanak ikustea gustatzen zaidalako"



GURUTZE MUJIKA
Margolaria

40 "Adituek, apaltasunetik, euren jakintza denekin partekatzen dutelako"



MAIDER EGINO SAGASTA
Logopeda

45 "Bakarra, eta askotarikoa. Arina bezain sakona. Nazioartetik, Debagoieneraino"



JOKIN BEREZIARTUA
Goienako kazetaria

50 "Esperientzia da, niretzat, jakintzarik onena, eta 'Puntua'-k adituen esperientziak partekatzen ditu"



ITZIAR LARRAÑAGA
Teknologia berrietan aditua

55 "Ikuskizun onak ez dira Donostian eta Bilbon bakarrik. 'Puntua'-n jakingo duzu"



VALEN MOÑUX
Apareladore eta zuzendari eszenikoa

60 "Guztiontzat ardura diren osasun gaiak jorratzen direlako"



MAITE UNZURRUNZAGA
Medikua

36 "Futbola ez diren kirolei garrantzia ematen dielako"



XABI FERNANDEZ 'PURITO'
Auto gidaria

41 "Puntua'-n, nork idatzi? Zer idatzi? Zertarako? Guk irakurtzeko, noski. Eskerrik asko!"



IÑAKI AGIRIANO
Eskoriatzako liburuzaina

46 "%10eko deskontu interesgarria eskaintzen diegu gure artikuluetan Goiena Klubeko bazkideei"




ANA REVUELTA
Ninika loradendakoa

51 "Naturarekin gozatzeko eta kaleak jolaserako berreskuratzeko proposamenagatik"



LANDER JUARISTI
Txatxilipurdiko kidea

56 "Gaurkotasunagatik marko aproposa da gizonen eta emakumeen betiko ereduak zalantzan jartzeko"



ANA MOZOS
Abokatua

61 "Kirolak ikuspuntu ezberdin batetik lantzen dituen astekaria delako"



AITOR MENDIZABAL
Pilotaria

Puntua 4.000 etxe baino gehiagotan jasotzen dute Debagoieneran. Oraindik jasotzen ez baduzu, eskaintza berezia daukagu zuretzat: **jaso astero, urte bukaera arte, 40 euro ordainduta.** 943 25 05 05 | goienakluba.com | 688 69 00 07